




# EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

evaluación diagnóstica

# 2009

## FAKTOREEN ETA ALDAGAIEN ANALISIA

### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 2. MAILA



**ISEI-IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETZA GALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



**ISEI-IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACION  
E INVESTIGACION EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETAK

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIBERSIDADES E INVESTIGACION

**Argitaratzailea:** Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI)

**Txostenaren egileak:** Alicia Sainz Martínez / Amaia Arregi Martínez / Araceli Angulo Vargas

**Aholkularitza eta gainbegiratzea:** Eduardo Ubieta Muñuzuri

**2010eko uztaila**

## Aurkibidea

1.	SARRERA.....	5
2.	IKASLEAREN ETA FAMILIAREN EZAUGARRIEN INGURUKO FAKTOREAK ETA ALDAGAIK .....	8
	2.1. IKASLEAREN ETA FAMILIAREN INGURUNEARI DAGOZKION ALDAGAIK.....	9
	2.1.1 GURASOEN IKASKETA MAILA.....	9
	2.1.2 DBH 2ko IKASLEEN FAMILIAREN EGITURA .....	12
	2.1.3 ETXEKO HIZKUNTZA ETA PROBAKO HIZKUNTZA .....	13
	2.1.4 FAMILIAREN JATORRIA: ATZERRITAR ETORKIKO IKASLEAK .....	15
	2.1.5 IKASLEEN SEXUA .....	19
	2.1.6 IKASLEEN ESKOLATZEAREN HASIERAKO ADINA.....	20
	2.2. IKASLEARI ETA FAMILIARI DAGOZKIEN PROZESU-ALDAGAIK .....	22
	2.2.1. IRAKASMAILAREKIKO ADIN-EGOKITASUNA .....	22
	2.2.2. JAIOTZA HILABETEAREN ERAGINA ERRENDIMENDUAN .....	23
	2.2.3. IKASLEEN IKASKETA-ITXAROPENA.....	26
	2.2.4. CURRICULUM ARLOEKIKO ZALETASUNA.....	28
	2.2.5. CURRICULUM ARLOEN ZAILTASUN MAILAREN BALORAZIOA .....	31
	2.2.6. IKASKIDEEN ARTEKO HARREMANEN PERTZEPZIO-INDIZEA .....	34
	2.2.7. LAN-OHITURAK ETXEAN.....	37
	2.2.8. HBEP PROGRAMA BATEAN IKASTEN DUTEN DBH 2ko IKASLEAK .....	40
	2.2.9. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN ANALISI DESKRIBATZAILEA.....	43
3.	IKASTETXEARI LOTUTAKO FAKTOREAK ETA ALDAGAIK.....	47
	3.1. ABIAPUNTU-ALDAGAIK .....	48
	3.1.1. IKASTETXEKO MAILA SOZIO-EKONOMIKOA ETA KULTURALA.....	48
	3.1.2. EMAITZAK ETA ISEK INDIZEA GERUZEN ARABERA.....	50
	3.1.3. IKASTETXEEN INGURUNE SOZIOLOGIA.....	54
	3.2. IKASTETXEARI LOTUTAKO PROZESU-ALDAGAIK.....	60
	3.2.1. IKASLEAK IKASTETXEAREKIKO DUEN JARRERAREN INDIZEA.....	61
	3.2.2. DBH 2ko IKASLEEN IKASGELAKO KALIFIKAZIOAK MATEMATIKA ARLOAN.....	63
4.	IKASTETXEEN EZAUGARRITZEA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA.....	70
	4.1. EMAITZARIK ALTUENAK ETA APALENAK IZAN DITUZTEN IKASTETXEAK .....	72
	4.2. IKASTETXEEN ERAGINKORTASUNA .....	75
5.	EMAITZEN ARTEKO ALDEAK AZALTZEKO EREDUA.....	79
	5.1. EMAITZEN ALDAKORTASUNAREN ANALISIA: IKASTETXEEN ARTEKO BARIANTZA ETA IKASTETXE BARRUKO BARIANTZ.....	79
	5.2. EMAITZEN ARTEKO ALDEAK AZALTZEKO EREDUA .....	81
6.	ALDAGAIEN ANALISIARI BURUZKO ONDORIOAK. DBH 2. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009 ...	87



## 1. SARRERA

Ebaluazio diagnostikoak bi xede nagusi ditu besteak beste. Lehen a ikasleek oinarrizko konpetentziak noraino garatu dituzten neurtzea da, ikasleek beren eskolatzeko prozesuaren une jakin batean duten konpetentzia maila deskribatzeaz batera. Bigarren xedea oinarrizko konpetentzien garapenean ikasleek emaitzen arteko aldeak zein aldagairen eta faktoreen ondorioak diren identifikatzea da.

Ikasleek konpetentzia maila deskribatzeko bi metodologia osagarri erabiltzen dira. Lehenengo eta behin, errendimendu-eskalak sortzeko aukera ematen duten eredu matematiko egokiak erabiltzen dira. Euskadiko Ebaluazio Diagnostikoa 2009ko errendimendu-eskala Itemari Erantzunaren Teoriatik eratorritako ereduak erabiliz sortu da. Horrez gain, emaitza kuantitatibo horiek konpetentzia-terminoetan adierazi dira, eta horretarako ebakidura-puntuak finkatzea helburu duten prozedurak erabili dira. Ebakidura-puntuei esker, ikasleek konpetentziak probetan izandako errendimenduen arabera deskribatu daitezke (ikus **Laburpen exekutiboa**<sup>1</sup> eta **Emaitzen txosten orokorra**<sup>2</sup>).

Behin ikasleek errendimendua erakutsi ondoren, ebaluazio diagnostikoak arestian aipatutako bigarren xedeari ekin behar dio, hots, emaitzak azaltzen dituzten arrazoiak aztertzeari. Bigarren xede hori printzipio batean oinarritzen da: ikasleek emaitzak askotarikoak dira eta, beraz, badira ikastetxeen arteko aldeak eta baita ebaluatutako ikasleek artekoak ere.

Ebaluatutako oinarrizko konpetentzietako errendimenduari askotariko faktoreek eragiten diote, eta ez bakarrik ikasleek geratzen diren didaktika-prozesuek: ikasleek ezaugarri pertsonalak, familiaren ezaugarriak, ikastetxearen eta hezkuntza-sistemaren antolamenduaren eta kudeaketaren ezaugarriak oso faktore garrantzitsuak dira. Hala eta guztiz ere, ez da batere erraza errendimenduari eragiten dioten faktore eta aldagai guztiak ezagutzea, ezta errealitatean noraino edo nola eragiten dioten ezagutzea ere, hainbat kasutan, geroago ikusiko denez, oso zaila izaten baita aldagai batzuek itxuraz errendimenduari duten lotura zergatia edo ondorioa den egiztatzea.

Txosten hau egiteko aztertu behar den informazioa ikasleentzako galdera-sorten bidez bildu da: ikasleek ikastetxez kanpoko alderdiak, familiari dagozkionak, ikastearekiko jarrera, ikasleek ikastetxearen inguruan duen pertzepzioa, arlo jakin batzuekiko zaletasuna eta abar. Beste aldagai batzuek (hala nola ikasleek sexua, etxeko hizkuntza, probako hizkuntza eta ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala) errendimenduan duten eragina aipatutako emaitzen txostenetan aztertu zen. Hala ere, aldagai horietako batzuk laburki aipatzen dira oraingo honetan ere, emaitzak azaltzeko adierazgarria den informazioa dokumentu bakar batean biltzeko.

Hasierako analisiak egin ondoren, argi ikusi ahal izan da faktore eta aldagai batzuek badutela emaitzekiko nolabaiteko lotura edo eragina. Faktore eta aldagai horiek hautatu eta aztertu dira, beste batzuk, berriz, alde batera utzi behar izan direlarik, konpetentzia gehienetako emaitzetan joera homogeneorik erakusten ez zutelako edo joera hori guztiz kontraesankorra eta azalgaitza zelako.

Irakaskuntzan eta ikaskuntzan garrantzitsuak izan daitezkeen alderdiak aztertzeko, zenbait aldagai jakinen eragina banan-banan aztertzeaz gain, balio estandarizatuko indizeak finkatu dira ikasleek galdera-sortan emandako erantzun batzuk multzokatu ondoren. Indize horiei esker, banako egoeren deskribapena, testuinguruari dagozkion egoeren deskribapena eta emaitzetan duten

<sup>1</sup> Ebaluazio Diagnostikoa 2009. Laburpen exekutiboa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila. 2010eko otsaila. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

<sup>2</sup> Ebaluazio Diagnostikoa 2009. Emaitzen txosten orokorra. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila. 2010eko martxoa. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

eraginaren analisia erraztu egiten dira. Baina batez ere, errendimenduaren eta lotutako aldagaien arteko harremana aztertzeke aukera ematen dute eta, baita ere, errendimenduari eragiteko ahalmena ba ote duten eta noraino eragiten dioten aztertzekeoa.

Jarraian, ebaluazio honetan lortu diren datuen esparruan ikerlanerako adierazgarritzat jo diren eta emaitzak azal ditzaketen faktoreak eta aldagaiak aurkezten dira eskema batean. Hurbilketa sistemiko batetik abiatuz, faktoreak zehazpen-matrize batean ordenatu dira. Matrizeak hiru motatako aldagaiak bereizten ditu (sarrera/testuinguru, prozesu eta produktu aldagaiak) bi mailatan neurturik: ikastetxea eta ikaslea/familia.

ABIAPUNTU-ALDAGAIK	
<b>Ikasleari eta familiari dagozkien aldagaiak (Ikaslearen ezaugarri sozio-familiarrak)</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK)</li> <li>▪ Indize sozio-ekonomikoa eta lanekoa (HISEI)</li> <li>▪ Senitartekoen ikasketa maila</li> <li>▪ Liburuak etxean</li> <li>▪ Ordenagailua eta Internet etxean</li> <li>▪ Egunkariak eta aldizkari espezializatuak irakurtzea</li> <li>▪ Familiaren egitura</li> <li>▪ Etxeko hizkuntza</li> <li>▪ Familiaren jatorria (inmigrazioa)</li> <li>▪ Sexua</li> <li>▪ Eskolatzearen hasierako adina</li> <li>▪ Ikaslearen ezaugarriak (h.p.b.)</li> </ul>	<b>Ikastetxeari dagozkion aldagaiak (Ikastetxearen eta irakasleen ezaugarriak)</b> <p><i>Ikastetxearen ezaugarriak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Geruza: irakasteredua eta hezkuntza-sarea</li> <li>▪ Ingurune soziolinguistikoa</li> </ul> <p><i>Ikastetxeko batezbestekoari dagozkion aldagaiak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikastetxeko batezbesteko indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEKi)</li> </ul>

PROZESU-ALDAGAIK	
<b>Ikasleari eta familiari dagozkien aldagaiak</b> <p>Irakasmilarekiko adin-egokitasuna Ikasketarako aukerak Arloekiko zaletasuna Arloen zailtasunaren balorazioa Ikaskideen arteko harremanen pertzepzio-indizea Lan ohiturak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Etxerako lanetan emandako denbora</li> <li>○ Etxerako lanak egiteko autonomia</li> </ul> <p>HBEP programetako ikasleak</p>	<b>Ikastetxeari dagozkion aldagaiak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasleak ikastetxearekiko duen jarrera</li> <li>▪ ikasgelako noten eta ED09ko emaitzen arteko korrelazioa.</li> </ul>

PRODUKTUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ ED09 ebaluazioko emaitzak</li> </ul>

Hautatu diren aldagaien azterketa bi ataletan egingo da: lehenengoan ikasleari eta familiari dagozkion zenbait aldagai aztertuko dira, eta bigarrenean ikasleen ikastetxeei dagozkien aldagaien multzoaren azterketa egingo da.

Eredua osatzen duten faktore eta aldagai horietako bakoitzaren analisirako metodologia bera erabili da:

1. Faktore edo aldagaiaren zergatia eta garrantzia definitzen dira, beste ebaluazio batzuetako analisiarekin duen harremanarekin (horrelako ebaluaziorik baldin badago) eta datuak lortzeko erabili den informazio iturriarekin batera (kasurik gehienetan ikaslearentzako eta ikastetxeko zuzendaritza taldearentzako galdera-sortetatik datoz; baina datu batzuk Ikuskaritzaren DAE agiritik ateratzen dira.
2. Emandako erantzunen maiztasun zuzena aztertzen da, eta ondoren estatistikaren ikuspuntutik zentzua duten kategorietan sailkatzen dira. Kategoría horiek erabiliko dira gainontzeko analisietarako.
3. Ebaluatutako oinarritzko lau konpetentzietako errendimendu mailak aldagaian definitutako kategoriekin elkartzen dira alde adierazgarririk ba ote dagoen ikusteko eta egotekotan alde horiek nolabaiteko erregularatasuna erakusten duten ala ez.
4. Azkenik, ondorio batzuk eskaintzen dira egindako analisisian oinarriturik.

Errolda ebaluazioa izanik, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan matrikulatutako ikasle guztiek hartu dute parte. Hala ere, *Emaitzen txosten orokorrak* eta ebaluazio diagnostikoaren prozesua arautzen duen 2008ko abenduaren 2ko Aginduak finkatzen duten bezala, ikasleen parte bat ez da puntuazio orokorrean sartu honako arrazoi hauengatik: ikasleak Curriculum Egokitzapen Indibiduala (CEI), orokorra zein arlokoa, izatea; ohiko absentista izatea; eskolaturik urte bat baino gutxiago eramatea eta, gainera, probako hizkuntza ez ezagutzea. Horrez gain, ebaluazioa egin zen egunean ikastetxera azaldu ez ziren ikasleak logikoki puntuaziotik at geratu dira.

***Konpetentzia bakoitzeko emaitzen analisia egiteko, kasuan kasuko konpetentziako proba egiteaz gain puntuazioa emaitza orokorretarako kontuan hartu zaien ikasleen kopurua erabili da.***

***Demografiaren, familiaren eta ikaslearen inguruko datuak kalkulatzeko, ikasleek bete behar zuten galdera-sortan kasuan kasuko galderari erantzun dioten ikasleen kopurua hartu da erreferentzia bezala.***

Proba egin eta puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua ebaluatutako konpetentzia bakoitzean. ED09-DBH2

Konpetentziak	K	Ikasle guztien %
<b>Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentzia</b>	15.246	95,8%
<b>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</b>	15.805	95,6%
<b>Matematikarako konpetentzia</b>	15.872	95,9%
<b>Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzia</b>	15.915	95,8%

Bukatzeko, kontuan izan behar da kasu batzuetan aldagai baten eta emaitzen arteko lotura, estatistikaren ikuspuntutik zuzena izan arren, errealitatearen ikuspuntutik halabehar hutsa izan daitekeela. Beraz, ongi bereiztu behar dira lotura eta azalpen osoa: lotura ezin da inolaz ere kausalitatez hartu. Aitzitik, lotura beharrezkoa da emaitzak azaltzeko, baina ez nahikoa.



## 2. IKASLEAREN ETA FAMILIAREN EZAUGARRIEN INGURUKO FAKTOREAK ETA ALDAGAIK

Familiaren inguruneari eta ikaslearen ezaugarri pertsonalei lotutako faktoreak, ereduari ***Ikasleari eta familiari dagozkien aldagaiak*** deitu diegunak, ikastetxetik kanpokoak dira, eta, beraz, hezkuntza-sistematarako input bezala hartu behar dira eta ikastetxean garatzen diren hezkuntza-prozesuen baldintzatzaile bezala.

Ikasle bakoitzaren familiak bere maila sozio-ekonomikoa eta kulturala du, bere jatorria eta egitura eta hezkuntza-ezaugarri propioak; ondare kultural eta baliabide material jakinak ditu, hezkuntzarekiko kezka gutxi edo aski handia eta etorkizunerako ikasketa-itxaropen jakinak. Hori guztia kontuan izanik, ikastetxeek beren baliabideak eta metodologia moldatzeko gai izan behar dute ikasleen beharrei eta ezaugarri pertsonalei erantzun egokia eman ahal izateko.

Familiaren egitura, gurasoen ikasketa maila eta egiten duten lana, besteak beste, ezaugarri garrantzitsuak dira ikaslearen eta familiaren ingurune sozio-ekonomikoa eta kulturala definitzeko, eta ikaslearen errendimendua hein batean aurreikusteko aukera eskaintzen dute.

Jakina da ikaslearen eta familiaren maila sozio-ekonomikoa oso eragin handia izaten duela ikaslearen errendimenduan; hala ere, jakina da, baita ere, hezkuntza-sistema eta ikastetxe jakin batzuek berdindu edo orekatu ditzaketela desabantaila sozial eta kultural batzuk, ikasleei ingurune sozio-ekonomikoa gorabehera ikasteko aukera eskaintzen baitizkiete. Ikasleek galdera-sortetan emandako erantzunetan oinarriturik, alderdi horiek errendimenduan duten eraginaren azterketa errazteko zenbait indize finkatu dira.

Indize batzuk galdera-sortetan elkarren arteko lotura duten galderen erantzunak multzokaturik finkatu dira. Indize guztiek, gure kasuan ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturalak, aldagai jarraituen forma hartzen dute: haietan balio guztiak dira posible eta estandarizaturik daude (batez bestekoa 0 da eta desbideratze tipikoa, 1). Gainontzeko faktoreek aldagai kategoriko edo nominalen forma hartzen dute, haietan balio edo kategoria kopuru mugatua bakarrik egon daitekeelarik.



## 2.1. IKASLEAREN ETA FAMILIAREN INGURUNEARI DAGOZKION ALDAGAIK

### 2.1.1 GURASOEN IKASKETA MAILA

Gurasoen ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, emaitzak hobetoagoak izan dira ebaluatutako konpetentzia guztietan. Oinarrizko ikasketadun gurasoak dituzten ikasleen eta unibertsitateko ikasketadun gurasoak dituzten ikasleen artean 40 puntu inguruko aldea dago konpetentzia gehienetan.

Orain arte egindako ikerlanetan<sup>3</sup> ebaluazioetako emaitzei eta ikasgelako notei nabarmen eragin izan dien aldagaietako bat gurasoen ikasketa maila izan da.

Egindako ikasketen arabera lau multzotan sailkatu dira gurasoak: oinarrizko ikasketak bakarrik egin dituztenak; DBH edo ikasketa baliokideak egin dituztenak; Batxilergoa edo maila ertaineko Heziketa Zikloak bukatu dituztenak; eta unibertsitate mailako ikasketak egin dituztenak.

Ondoko taulan gurasoen ehunekoa adierazten da multzo bakoitzean.

DBHko 2. mailako ikasleen amaren eta aitaren ikasketa mailarik altuena.

	Oinarrizkoak		DBH		Batxilergoa, LH		Unibertsitatea	
	K	%	K	%	K	%	K	%
Aita	1.218	8,2	3.809	25,6	5.183	34,8	4.663	31,4
Ama	1.019	6,7	4.096	27,0	4.834	31,9	5.203	34,3

DBHko 2. mailako ikasleen amen eta aiten % 66k esan du Batxilergoa, Lanbide Heziketako ziklo bat edo unibertsitateko ikasketak bukatuak dituela; % 25-27k DBH edo ikasketa baliokideak bukatuak dituela; eta aiten % 8k eta amen % 7k oinarrizko ikasketak bakarrik bukatuak dituela.

### Aitaren ikasketa maila eta ebaluatutako konpetentzietako puntuazioa

Ondoko taulan eta grafikoan ikus daiteke nolako harremana dagoen DBHko 2. mailako ikasleen aiten ikasketa mailaren eta 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan ebaluatutako konpetentzia bakoitzeko puntuazioaren artean.

Aitaren ikasketa maila eta DBHko 2. mailako ikasleen emaitzak

	Oinarrizkoak	DBH	Batxilergoa, LH	Unibertsitatea
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	227	244	255	260
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	227	240	254	265
Matematikarako konpetentzia	224	240	254	267
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzia	225	241	254	265

<sup>3</sup>PISA 2003 ebaluazioaren bigarren txostena. Euskadiko emaitzak. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)


Lehen Hezkuntzaren ebaluazioa 2004. Laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobekuntzarako proposamenak. 2006ko apirila. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

Aiten ikasketa maila gora joan ahala, DBHko 2. mailako ikasleek lortutako puntuazioak handiagoak direla egiaztatu da.

Ikasleen puntuazioen arteko alderik handienak oinarrizko ikasketak bakarrik dituzten aiten multzoaren eta DBH edo ikasketa baliokideak dituzten aiten multzoaren artean gertatu dira (bi multzo horien arteko aldea 16 eta 17 puntuetara heldu da kompetentzia guztietan, *Gaztelaniazko hizkuntza komunikaziorako kompetentzian* izan ezik, kompetentzia horretan aldea 13 puntukoa izan baita). Oinarrizko ikasketak bakarrik dituzten aiten multzoaren eta unibertsitateko ikasketak dituzten aiten multzoaren artean ikasleen puntuazioen arteko aldea 40 puntuetara heldu dira *Matematikarako kompetentzian* eta *Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian*.

Batxilergo edo Lanbide heziketa bukatu duten aiten multzoko ikasleek batez bestekoa gainditu dute kompetentzia guztietan, eta berdin gertatu da unibertsitateko ikasketak bukatu dituzten aiten multzoan.

1. grafikoa : ED09-DBH 2: Aitaren ikasketa maila eta ikasleen emaitzak kompetentzien arabera



### Amaren ikasketa maila eta ebaluatutako kompetentzietako puntuazioa

Aurreko analisi bera egin da DBHko 2. mailako ikasleen amen ikasketa mailarekin. Ondoko taulan eta grafikoan ikus daitekeenez, amen ikasketa mailak badu loturarik ikasleen emaitzekin. Ikasleen emaitzak hobetoagoak dira amen ikasketa maila gora joan ahala

Amaren ikasketa maila eta DBHko 2. mailako ikasleen emaitzak


	Oinarrizkoak	DBH	Batxilergoa, LH	Unibertsitatea
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	219	241	253	264
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	223	239	253	265
Matematikarako kompetentzia	219	238	252	268
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako komp.	221	238	253	267

Ikus daitekeenez, oinarrizko ikasketak bakarrik dituzten amen multzoko ikasleek ebaluazioko puntuaziorik apalenak lortu dituzte konpetentzia guztietan.

Aiten kasuan bezala, ikasleen puntuazioen arteko alderik handienak oinarrizko ikasketak bakarrik eginak dituzten amen multzoaren eta DBH edo baliokidea eginak dutenen multzoaren artean. Bi multzo horien arteko puntuazio aldea 17 eta 22 puntukoa izatera heldu da konpetentzia guztietan. Oinarrizko ikasketak bakarrik dituzten amen multzoaren eta unibertsitateko ikasketak dituzten amen multzoaren artean ikasleen puntuazioen arteko aldea 40 puntukoa baino handiagoak dira, *Matematikarako konpetentzian* eta *Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzian* 50 puntuera heldu delarik.

Batxilergo edo Lanbide Heziketa bukatu duten amen multzoko ikasleek 250 puntutan finkatu den batez bestekoa gainditu dute ebaluatutako konpetentzia guztietan. Berdin gertatu da unibertsitateko ikasketak dituzten amen multzoan.

**2. grafikoa : ED09-DBH 2: Amaren ikasketa maila eta ikasleen emaitzak konpetentzien arabera**



Ikasleen puntuazioak bi gurasoen ikasketa maila kontuan harturik konparatzen badira honako hau ikusten da:

- Amek oinarrizko ikasketak bakarrik dituztenean, ikasleek konpetentzia guztietan lortu dituzte puntuazio apalagoak ikasketa maila hori dutenak aitak direnean baino.
- Amek DBH edo ikasketa baliokideak eginak dituztenean ere, ikasleen emaitzak apur bat apalagoak izan dira konpetentzia guztietan ikasketa maila hori dutenak aitak direnean baino.
- Guraso biek Batxilergoa edo unibertsitateko ikasketak eginak dituztenean, emaitzak oso antzerakoak dira konpetentzia guztietan.

### 2.1.2 DBH 2ko IKASLEEN FAMILIAREN EGITURA.

**Familia nuklear batean bizi diren ikasleek (% 80 inguruk) emaitza hobekak lortu dituzte familia gurasobakarrean edo beste egoera batean bizi direnek baino.**

Ikasleentzako galdera-sortako galdera batean ikasleei informazioa eskatzen zitzaienten etxean normalean haiekin bizi diren pertsoneri buruz. Ikasleen erantzunak lau multzotan banatu dira ondoko taulan ikusten den bezala.

Aita, ama eta anai-arrebak		Aita eta ama		Aita edo ama		Beste egoera bat	
K	%	K	%	K	%	K	%
10.655	65,8	2.841	17,6	2.379	14,7	312	1,9

DBH 2ko ikasle gehienak, % 80 baino apur bat gehiago, nukleartzat hartzen den familia batean, hots, aitak, amak eta, baldin baditu, anai-arrebek osatutako familia batean bizi dira. Horien artean, % 66 inguru gurasoekin eta anai-arrebekin bizi da, eta % 17,5 gurasoekin bakarrik bizi da, seme edo alaba bakarrik direla ondoriozta daitekeelarik. Ikasle horien % 15 familia gurasobakarrean bizi da, guraso bakar batekin, aita edo ama. Ikasleen % 2 beste senitarte batzuekin bizi da, pisu babestu batean edo erakunde batean; horiek guztiak "beste egoera bat" multzoan sartu dira.

#### Familiaren egitura eta lortutako emaitzak

Jarraian DBH 2ko ikasleen familiaren egiturak ikasleek ebaluatutako konpetentzietan lortutako emaitzetan eraginik izan ote duen aztertzen da. Beste ebaluazio batzuek (PISA eta Lehen Hezkuntza 2004<sup>4</sup>) egiaztatu dute aldagai horrek ikasleek lortutako emaitzei eragiten diela.

#### Lortutako emaitzak eta DBH 2ko ikasleen familiaren egitura

	Aita, ama eta anai-arrebak	Aite eta ama	Aita edo ama	Beste egoera bat
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	254	250	236	214
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	252	252	245	220
Matematikarako konpetentzia	255	247	238	221
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzia	253	250	241	219

Datuek erakusten dute familia nuklearretan, hots, aitak, amak eta, baldin balira, anai-arrebek osatutakoetan, bizi diren ikasleek (% 80) emaitzarik altuenak lortu dituztela. Multzo hori konpetentzia guztietan dago 250 puntuetan finkatutako batez bestekoan edo gorago, *Matematikarako konpetentzian* izan ezik, konpetentzia horretan gurasoekin bakarrik, anai-arrebarik gabe, bizi direnek puntuazio apur bat apalagoa lortu baitute. Puntuaziorik baxuenak guraso bakar batekin bizi diren ikasleek lortu dituzte, eta batez ere "beste egoera batean" bizi direnek.

Puntuazioen arteko aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan, *Gaztelaniazko hizkuntza komunikaziorako konpetentzian* izan ezik, kasu horretan gurasoekin eta anai-arrebekin bizi diren ikasleek eta gurasoekin bakarrik bizi direnek emaitza berdinak lortu baitituzte.

<sup>4</sup> PISA 2003 bigarren txostena. Euskadiko emaitzak. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

Lehen Hezkuntzaren ebaluazioa 2004. Laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobekuntzarako proposamenak. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

### 2.1.3 ETXeko HIZKUNTZA ETA PROBAKO HIZKUNTZA<sup>5</sup>

**Proba etxeko hizkuntzan egin ez duten ikasleek proba etxeko hizkuntzan egin dutenek baino emaitza nabarmenki apalagoak lortu dituzte hizkuntza-komunikaziotik aparteko kompetentzietan.**

Badirudi errendimendu proba egiteko erabiltzen den hizkuntza ez dela elementu neutroa, emaitzei eragin diezaiekeela baizik<sup>6</sup>.

Orain arte egin diren hainbat ebaluaziok eta ikerlanek adierazi dute bigarren hizkuntzaren ikaste-prozesuan dauden ikasleek ez dutela jaiotzetiko hiztunen maila bera hizkuntza horretan, eta horrek eragin handia izaten duela bigarren hizkuntzan egiten dituzten probetako emaitzetan. Bigarren hizkuntzaren muga edo garapen urriago horren ondorioz, ikasleak bere trebetasunak eta ikasitakoa oso-osorik erakusteko gaitasuna txikiagoa izaten da. Aldagai hori xehetasunez aztertu zen 2009ko Ebaluazio Diagnostikoa, **DBHko 2. mailako laburpen exekutiboan**<sup>7</sup>.

Hizkuntzaren aldetiko alderdiak aztertzerakoan bi elementu hartu dira kontutan:

- Alde batetik, *probako hizkuntza*: ikastetxeek aukeratu ahal izan zuten ikasleek proban zein hizkuntza erabiliko zuten hizkuntza-komunikaziotik aparteko kompetentzietan. Aukera hari buruzko datuek honako hau adierazten dute:
  - A ereduko ikasle guztiek hizkuntza komunikaziotik aparteko kompetentzietako probak gaztelaniaz egin zituzten.
  - D ereduko ikasle gehienek –%99k baino gehiagok– euskaraz egin zituzten.
  - B ereduko ikasleen kasuan, hala ere, ezberdintasun handia dago hizkuntza komunikaziotik aparteko bi kompetentzietan: *Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako* proba B eredu publikoko ikasleen %72k eta itunpeko B eredu ikasleen %62k euskaraz egin zuen. *Matematikarako kompetentziako* proba, berriz, B eredu publikoko ikasleen %16k eta itunpeko B eredu ikasleen %10ek bakarrik egin zuen euskaraz.
  - *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* probak logikoki bakoitzari zegokion hizkuntzan egin ziren, gaztelaniaz edo euskaraz.
- Ikasle bakoitzaren *etxeko hizkuntza nagusia*: beste ebaluazio batzuetako ondorioetatik (PISA, TIMSS, Euskara B2...) badakigu etxeko hizkuntzak zer nolako eragina izaten duen emaitzetan etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza bat ez datozenean.

Emaitzak egoki azaldu ahal izateko, bi aldagaiak –probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza– erlazionatu dira B eta D ereduetan, hots, proba euskaraz egin zuten ikasleak eta gaztelaniaz egin zuten ikasleak dituzten irakastereduetan.

<sup>5</sup> Ebaluazio Diagnostikoa 2009. Laburpen exekutiboa. DBH 2. 2010eko otsaila. 33-34. or. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

<sup>6</sup> The Standards for Educational and Psychological Testing. American Educational Research Association (E.R.A.), American Psychological Association: "Hizkuntza erabiltzen duten ebaluazio guztiek neurtzen dituzte, hein batean, ebaluazioa egiten dutenen hizkuntza trebetasunak. Eta hori bereziki kezkarria ebaluazioa beren lehenengo hizkuntzan egiten ez dutenentzat"

<sup>7</sup> Op.cit.

Ondorengo tauletan *Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako* eta *Matematikarako kompetentziako* emaitza orokorrak aurkezten dira ebaluazioan parte hartu duten B eta D eredu-tako ikasleen etxeko hizkuntzaren arabera eta probako hizkuntzaren arabera<sup>8</sup>.

B EREDUA		Matematikarako kompetentzia		Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako komp.	
Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	K	Batez bestekoa	K	Batez bestekoa
Gaztelania	Gaztelania	3.767	<b>251</b>	1.532	<b>258</b>
Euskara	Gaztelania	345	<b>244</b>	2.666	<b>238</b>

D EREDUA		Matematikarako kompetentzia		Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako komp.	
Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	K	Batez bestekoa	K	Batez bestekoa
Euskara	Euskara	2.206	<b>264</b>	2.233	<b>262</b>
Euskara	Gaztelania	6.297	<b>249</b>	6.397	<b>248</b>

Aurreko emaitzetatik ondorio hau atera daiteke bi irakasteredu-tarako: ikasleak proba egiteko erabiltzen duen hizkuntzak argi eragiten die emaitzei. Hizkuntza hori eta ikasleak gaitasunik handiena duen hizkuntza, hots, etxeko hizkuntza, ezberdinak direnean, emaitzak apalagoak izaten dira beti. B ereduko emaitzen arteko aldeak nabarmenki txikiagoak dira DBHko 2. mailan LHko 4. mailan baino.

<sup>8</sup> Gainontzeko egoeretan ikasle kopuruak ez du emaitzen fidagarritasuna bermatzen. Adibidez, B ereduan etxeko hizkuntza euskara duten 119 ikaslek bakarrik egin zuten Matematikarako kompetentziako proba euskaraz; D ereduan etxeko hizkuntza gaztelania duten 45 ikaslek bakarrik egin zuten kompetentzia horretako proba gaztelaniaz.

### 2.1.4 FAMILIAREN JATORRIA: ATZERRITAR ETORKIKO IKASLEAK

**Atzerritar etorkiko ikasleek –ikasle guztien % 7,8k– batez bestekoa baino puntuazio apalagoa lortu dute konpetentzia guztietan, bereziki *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetenziaren* kasuan.**  
**Atzerritar etorkiko ikasleen % 50 inguru ikasle etorkinak dituzten 242 ikastetxeetako 35 ikastetxetan eskolaturik daude.**

Lehen aipatu den bezala, 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan Euskadiko ikastetxe guztietako DBH 2ko ikasle guztiek hartu dute parte. Hala eta guztiz ere, zenbait egoera berezitan, besteak beste ikasle etorkinen kasuan edo hezkuntza sistemara baldintza jakin batzuk bete gabe sartu berri diren ikasleen kasuan, salbuespen bat egin da ebaluazioan parte hartzeko baldintzetan.

Kasu horietan, ikasle etorkinek eta hezkuntza sistemara sartu berriek parte hartu ahal izan dute proban ikastetxeak hala erabaki duenean, baina ikasle horien puntuazioak ez dira sartu ikastaldeko eta ikastetxeko batez bestekoan.

Ebaluazioan parte hartu duten ikasle etorkinei buruzko datuak aztertzeko, ikasle etorkintzat honako baldintza hauetako bat betetzen duena hartu da:

- Hezkuntza sistemara sartu berri diren ikasleak, probako hizkuntza, urte bat baino gutxiago ikasten eramateagatik, ezagutzen ez dutenak. Kasu horietan ikasleek proba egin ahal izan dute zuzendaritza taldeak hala erabaki duenean, baina puntuazioak ez dira kontuan izan ikastaldeko eta ikastetxeko batez besteko orokorrean.
- Ikaslea eta bere bi gurasoak (ama eta aita) Euskaditik kanpo jaiok direnean, Euskadin bizitzen daramaten denbora edozein delarik ere.
- Gurasoetako bat (ama edo aita) eta ikaslea bera Euskaditik kanpo jaiok direnean, Euskadin bizitzen daramaten denbora edozein delarik ere.

Ikasle etorkinen sailkapena ikasleek galdera-sorta betetzean eman zuten informazioan oinarriturik egin da. Hala ere, ikastetxeak alde zuzenetik zenbait datu eman zituen irakasmaila horretan eskolaturik urte bat baino gutxiago zeramaten eta bi hizkuntza ofizialetako bat ezagutzen ez zuten ikasle etorkinei buruz. Informazio hori ez da beti bat etorri ikaslearentzako galdera-sortan jasotakoarekin. Horrelako desadostasuna izan den kasuetan, ikastetxeak emandako informazioa hartu da erreferentziazat, eta puntuazioak ez dira kontuan izan ikastaldeko eta ikastetxeko batez bestekoan.

Beraz, atal honetan deskribatzen diren datuak proba egin zen momentuan DBHko 2. maila ikasten ari ziren eta, emaitzak puntuazio orokorrean sartu ez diren arren, gutxienez proba batean parte hartu zuten ikasle etorkinei buruzkoak dira.

Irakasmaila horretan, DBHko 2. mailan, 1.361 ikasle etorkin daude, ikasle guztien % 7,8. Haien arteko 724 (% 53,2) ikastetxe publikoetan eskolaturik daude, eta 637 (%46,8) itunpeko ikastetxeetan.

DBH 2ko ikasle etorkinak honela banaturik daude geruzen arabera:



## Ikasle etorkinak geruzen arabera.DBH 2

A publikoa		B publikoa		D publikoa		Itunpeko A		Itunpeko B		Itunpeko D	
K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
452	33,2	121	8,9	151	11,1	333	24,5	226	16,6	78	5,7
Ikastetxe publikoetako ikasle kopurua: 724 (53,2%)						Itunpeko ikastetxeetako ikasle kopurua: 637 (46,8%)					
<b>Ikasle etorkinak guztira: 1.361</b>											

Ikasleen banaketa irakastereduen arabera ondoko taulan adierazten da: ikasle etorkinen erdia baino gehiago (% 57,7) A ereduan eskolaturik dago; % 25,5 B ereduan eta % 16,8 bakarrik D ereduan.

## Ikasle etorkinak eta irakastereduak

A eredia		B eredia		D eredia	
K	%	K	%	K	%
785	57,7	347	25,5	229	16,8

Nesken eta mutilen ehunekoa oso antzekoa da ikasle etorkinen artean, % 50 ia, Lehen Hezkuntzan gertatzen den bezala.

## 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan parte hartu zuten ikasle etorkinen banaketa sexuaren arabera

Mutilak		Neskak	
K	%	K	%
684	50,3	677	49,7

Ikaslearen jaioturretik jakin daiteke ikasleak egoera egokian dagoen ala ez, hots, adinari dagokion irakasmilan dagoen ala irakasmila bat edo gehiago errepikatu duen. Ikasle etorkinen kasuan ikaslearen atzerapena eskolatzeko berantiararen ondorioa izan daiteke edo hezkuntza sistema ezberdinetara egokitze izandako zailtasunen ondorioa.

## Ikasle etorkinen jaioturtea

	K	%
<b>Jaioturtea 1995 (adin egokia)</b>	616	45,3
<b>Jaioturtea 1994</b>	490	36,0
<b>Jaioturtea 1993</b>	155	11,4

Adin egokiko ikasle etorkinak, hots, adinagatik dagokien irakasmilan daudenak, ez dira erdira heltzen (% 45,3). Haien artean % 36k irakasmila bat errepikatu du edo ikasturte bat beranduago eskolatu zen. % 11 inguruk bi urteko atzerapena darama adin egokiarekiko.

Ikasle etorkinen inguruan bereziki egindako analisiaren osagarri gisa, beste analisi bat egin da ikasle etorkinen emaitzak eta ezaugarriak 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan parte hartu duten ikasle guztien emaitzekin eta ezaugarriekin konparatu ahal izateko.

Lehen aipatu den bezala, 1.361 ikasle etorkinak irakasmila horretako ikasle guztien % 7,8 dira. Ikasle etorkinak honela banaturik daude geruzen arabera:

## Bertako ikasleen eta ikasle etorkinen ehunekoa geruzen arabera

	Bertako ikasleak		Ikasle etorkinak	
	K	%	K	%
<b>A publikoa</b>	610	57,4	452	42,6
<b>B publikoa</b>	842	87,4	121	12,6
<b>D publikoa</b>	5.788	97,5	151	2,5
<b>Itunpeko A</b>	1.877	84,9	333	15,1
<b>Itunpeko B</b>	3.647	94,2	226	5,8
<b>Itunpeko D</b>	3.424	97,8	78	2,2
<b>Guztira</b>	<b>16.188</b>	<b>92,2</b>	<b>1.361</b>	<b>7,8</b>

Geruzak aztertu ondoren, azpimarratu beharrekoa da A eredu publikoaren geruzako ikasleen % 43 inguru etorkinak direla, Lehen Hezkuntzan gertatzen den bezala. Gainera, aipatu beharrekoa da itunpeko A ereduaren geruzako ikasleen % 15 etorkinak direla. B eredu publikoaren geruzan eskolatutako ikasleen % 12,6 etorkinak dira. D eredu publikoaren eta itunpekoaren geruzak dira irakasmaila horretan ikasle etorkin gutxien dutenak, % 2 baino gehixeago.

Irakasmaila horretako ikasle etorkinak hezkuntza sistemako ikastetxeetan nola banaturik dauden aztertzen badugu, aipatu behar da hiru lurraldeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasten duten 335 ikastetxeetatik ikasle etorkinak 242 ikastetxetan daudela eskolaturik. 93 ikastetxek ez dute ikasle etorkinik. Ikastetxeetan dauden ikasle etorkinen ehunekoa, hainbat kasutan, familia etorkinen etxea ikastetxeetatik hurbilago edo urrunago egotearen ondorioa izan liteke.

Hala eta guztiz ere, datu orokor horiek ez dute eskaintzen Autonomia Erkidegoko ikasle etorkinen eskolatzearen errealitatearen irudi osoa. Eskolatzeko horren egoera hobeto ulertu ahal izateko bi alderdi aztertu behar dira: alde batetik, ikasle horiek modu orekatuan banaturik ote dauden, eta bestetik ikasle horien kasuan kontzentrazio-egoerarik gertatzen ote den.

## Ikasle etorkin guztien banaketa ikastetxeetan.

Ikasle etorkinak eskolatzeko dituzten ikastetxeen kopurua	Ikasle etorkinak (ikasle guztien %)
25	40,4
35	48,6
45	55,4
55	61,4

Aurreko taulako datuak metagarriak dira. Taularen bi muturrak erreferentzia puntutzat hartzen baditugu, ikasle etorkinak dituzten 242 ikastetxeetako 25 ikastetxetan ikasle horien % 40 eskolatuta dagoela ikus daiteke. Ikasle etorkinen ia erdia 35 ikastetxetan kontzentratzen da, eta DBH 2ko ikasle etorkinen % 61 55 ikastetxetan (haien artean aurrekoak ere sartzen dira) banatzen da.

Era berean, ikasle etorkinak dituzten ikastetxeetan ikasle horien ehunekoa ez da homoginoa, nabarmen aldatzen baita ondoko taulako datuek erakusten duten bezala:

**Ikastetxe kopurua eskolatzen dituzten ikasle etorkinen ehunekoaren arabera.**

Ikastetxe kopurua ikasle etorkinen ehunekoaren arabera	Ikasle etorkinak (ikasle guztien %)
<b>3</b>	% 75 edo gehiago
<b>8</b>	% 50 - % 75
<b>17</b>	% 30 - % 50
<b>19</b>	% 20 - % 30
<b>20</b>	% 15 - % 20
<b>17</b>	% 10 - % 15

Ikasle etorkinen ehunekorik handienetakoa duten ikastetxeen artean, hiru ikastetxetan DBH 2ko ikasleen % 75 baino gehiago etorkinak dira, eta 8 ikastetxetan ikasleen % 50etik % 75era bitartean.

Ebaluatutako konpetentzietako probetan parte hartu zuten ikasle etorkinen puntuazioak ez ziren kasu guztietan sartu ikasle guztien batez besteko orokorrean. 1.361 ikasle etorkinetatik 650ek lau konpetentzietako probak egin zituzten, eta, beraz, haien puntuazioak batez besteko orokorretan sartu ziren.

Konpetentzia bakoitzeko proba egin eta puntuazioa batez besteko orokorrean kontuan hartu zitzairen ikasle etorkinen kopurua adierazten da ondoko taulan. Horrekin batera ikasle etorkinek konpetentzia bakoitzean lortutako puntuazioaren batez bestekoa adierazten da.

**Proba egin eta puntuazioa batez besteko orokorrerako kontuan hartu zaien ikasle etorkinen emaitzak konpetentzien arabera.**

	<b>K</b>	<b>Batez bestekoa</b>
<b>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</b>	690	<b>178</b>
<b>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</b>	1.082	<b>210</b>
<b>Matematikarako konpetentzia</b>	1.079	<b>215</b>
<b>Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzia</b>	1.134	<b>223</b>

Ikasle etorkinen puntuazioak ez dira heldu inongo konpetentzian 250 puntuetan finkatutako batez bestekora.

### 2.1.5 IKASLEEN SEXUA<sup>9</sup>

**Nesken errendimendua mutilena baino hobea izan da *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, bai euskaraz bai gaztelaniaz, eta baita *Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian* ere. *Matematikarako kompetentzian* bi taldeek antzeko emaitzak lortu dituzte.**

Sexuaren aldetiko ezberdintasunak ikasleen emaitzetan hein batean mantendu egin dira beste ebaluazio batzuetan gertatzen direnekiko: neskek mutilek baino emaitza nabarmenki hobea lortu dituzte *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, bai euskaraz bai gaztelaniaz. Hala ere, ebaluazio honetan aldaketa bat izan da *Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian*: beste zenbait ebaluaziotan ez bezala, neskek mutilek baino emaitza nabarmenki hobea lortu dituzte. *Matematikarako kompetentzian* antzeko errendimendua izan dute neskek eta mutilek.

Hurrengo taula honetan DBH 2ko neskek eta mutilek ebaluatutako kompetentzietan lortu duten puntuazioa azaltzen da, emaitzen adierazgarritasunarekin batera.


**Ikasleen puntuazioak sexuaren arabera eta aldean adierazgarritasunaren arabera %95ean<sup>10</sup>**

Kompetentziak	Neskak	Mutilak	Aldea	Adierazgarria
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	259	242	17	BAII
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	253	247	6	BAI
Matematikarako kompetentzia	249	251	-1	=
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzia	252	248	4	BAI

Bai: Alde adierazgarria %95ean. = : Ez dago alde adierazgarririk % 95ean

Aurreko datuetan ikus daitekeenez, alderik handiena euskarazko *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* puntuazioetan gertatu da, neskek mutilek baino 17 puntu gehiago lortu baitituzte. *Matematikarako kompetentzian* mutilen taldeak neskenak baino 1 puntu gehiago lortu ditu, baina aldea ez da adierazgarria.

Ondorengo grafikoan bi taldeek ebaluatutako kompetentzietan lortu duten batezbesteko puntuazioa azaltzen da, talde batek puntuazio nabarmenki hobea lortu duenean, gezi batez adierazten delarik. Bi taldeetako emaitzen arteko aldea estatistikoki adierazgarria ez denean, berdin ikurraz adierazten da.



<sup>9</sup> Ebaluazio Diagnostikoa 2009. Laburpen exekutiboa. DBH 2. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

<sup>10</sup> Irakurketa erraztearren puntuazioak zenbaki osotan aurkezten badira ere, benetako puntuazioek hamarrenekoak dituzte, eta, beraz, atal batzuetan aldea puntu batekoa da eta ez bikoia

### 2.1.6 IKASLEEN ESKOLATZEAREN HASIERAKO ADINA

**Eskolatzea hiru urte bete aurretik hasi zuten DBH 2ko ikasleek (% 59,9) puntuaziorik altuenak lortu dituzte kompetentzia guztietan.**

Derrigorrezko hezkuntza ofizialki 6 urterekin hasten bada ere, gure erkidegoan badira eskolatzeko goiztiarra bultzatzen duten plan batzuk, eta, beraz, haur gehienak adin ofizialera heldu baino lehen eskolatzeko dira, 2 eta 5 urte bitartekoak direnean. Egoera horretatik abiatuz, eskolatzeko hasierako adinak, edo bestela esanda, ikasleek hezkuntza sistemak daraman urte kopuruak, kompetentzietan lortutako emaitzetan eraginik ote duen aztertu nahi da.

Galdera-sortan ikasleari galdetzen zaio zenbat urterekin hasi zen bere eskolatzeko, ikastetxe edo hartzaindegira, eta erantzunetan oinarrituz egin da analisia.

DBH 2ko ikasleek eskolatzeko hasierako adina ehunekoetan

3 urte bete aurretik		3 urterekin		4 urterekin		5 urterekin		6 urterekin edo beranduago	
K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
9.369	59,9	5.255	33,6	509	3,3	308	2,0	191	1,2

2008-2009 ikasturtean DBH 2 ikasten ari ziren ikasle gehienak (% 93,5) 3 urterekin edo lehenago hasi ziren ikastetxera edo hartzaindegira joaten. 4 urterekin ikasleek % 3,3 bakarrik hasi zen eta 5 urterekin % 2.

#### Eskolatzeko hasierako adina eta lortutako emaitzak

Jarraian irakasmaila horretako ikasleek kompetentzia bakoitzean lortutako puntuazioak erakusten dira, ikastetxean edo hartzaindegian hasi zireneko adina kontuan izanik.

DBH 2ko ikasleek emaitzak eskolatzeko hasierako adinaren arabera.

	3 urte bete aurretik	3 urterekin	4 urterekin	5 urterekin	6 urterekin edo beranduago
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	255	248	225	211	206
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	253	251	233	224	205
Matematikarako kompetentzia	255	249	229	220	210
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako komp.	253	250	235	229	211

Eskolatzeko 3 urte bete baino lehenago hasi zuten DBH 2ko ikasleek (% 59,9) puntuaziorik altuenak lortu dituzte kompetentzia guztietan, kasu guztietan 250 puntutan finkatutako batez bestekoa baino altuagoak.


Ikasleek eskolatzeko hasierako adina igo ahala, emaitzak jaitsi egiten direla ikusten da. Hartara, 3 urterekin eskolatu ziren ikasleek (% 33,6) puntuazio apur bat apalagoak lortu dituzte, batez

bestekoaren ingurukoak, kompetentzia guztietan; 4 eta 5 urterekin eskolatu zirenek 30 eta 40 puntu gutxiago lortu dituzte hasierako taldekoek baino.

Kontuan hartu behar da 6 urterekin eskolatu ziren ikasleek 8 urte daramatzatela hezkuntza sisteman, baina 3 urte ingururekin hasi zirenek gutxienez 11 urte daramatzatela eskolaturik. Eskolatzeko goiztiarrak (3 urterekin edo lehenago) Euskadiko ikasleen ondorengo eskola errendimenduan duen eragin onuragarria beste ebaluazio batzuetan egiaztatuta zegoen<sup>11</sup>. Gainera, beste zenbait ebaluaziok (PISA, TIMSS, PIRLS) baieztatu dute behin eta berriro aldagai horren eragina.

Gauza bera gertatu zen 2009ko Ebaluazio Diagnostikoa egin zuten Lehen Hezkuntzako ikasleen artean, eta badirudi aldagai horren eragina eskolatzeko osoan zehar mantentzen dela, eta ez duela indarririk galtzen irakasmaitan gora joan ahala.

4. grafikoa : ED09-2ºESO: Eskolatzearen hasierako adina eta emaitzak kompetentzien arabera



<sup>11</sup> Lehen Hezkuntzaren ebaluazioa 2004. Laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobekuntzarako proposamenak. 2006ko apirila. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

## 2.2. IKASLEARI ETA FAMILIARI DAGOZKIEN PROZESU-ALDAGAIK

### 2.2.1. IRAKASMAILAREKIKO ADIN-EGOKITASUNA

**Irakasmilarekiko adin egokia duten ikasleek –1995ean jaio zirenek– kompetentzia guztietan izan dute errendimendu nabarmenki hobea urte bateko edo biko atzerapena dutenek baino. Horrez gain, urte bateko atzerapena dutenek bi urtekoa dutenek baino emaitza nabarmenki hobea lortu dituzte.**

Ebaluazio honetan parte hartu duten DBH 2ko ikasleen %19 inguru 1993 eta 1994 urteetan jaio zen, eta, beraz, urte bateko edo biko atzerapena du adin egokiarekiko –1995ean jaiotakoekiko. Atzerapena irakasmila bat edo bi errepikatu edo ikaslea urte bat edo bi beranduago eskolatu izanaren ondorioa izan daiteke. Ikasle multzo horrek adin egokiko ikasleek baino emaitza nabarmenki apalagoak lortu ditu kompetentzia guztietan.


Ikasle multzo horrek kompetentzia bakoitzean lortu duen batezbesteko puntuazioa honako taula honetan erakusten da.

	Hizkuntza-komunikazioa. Euskara	Hizkuntza-komunikazioa. Gaztelania	Matematikarako kompetentzia	Zientzia, teknologia eta osasun-kult.
Jaioturtea 1993	205	213	206	210
Jaioturtea 1994	214	217	213	215
Jaioturtea 1995	258	258	259	259

Alderik handienak euskarazko *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* eta batez ere *Matematikarako kompetentzian* gertatu dira, adin egokiko ikasleek, 1995ean jaiotakoek, 1993an edo 1994an jaiotakoek baino 40 puntu gehiago lortu baitituzte.

Hurrengo grafikoan ikasleen errendimendua jaioturtearen arabera azaltzen da.

5. grafikoa: ED09-DBH 2. : Ikaslearen errendimendua jaioturtearen arabera





Emaitzen arteko aldeak adierazgarriak dira konpetentzia guztietan; hau da, adin egokiko ikasleek – 1995ean jaiotakoek– 1993an eta 1994an jaiotakoek baino emaitza nabarmenki hobeak lortu dituzte. 1994an jaiotakoek adin egokikoek baino emaitza nabarmenki apalagoak lortu dituzte eta bi urteko atzerapena dutenek baino emaitza hobeak lortu dituzte.

Ondorio hori bat dator beste ebaluazio batzuekin (PISA 2003, PISA 2006, Lehen Hezkuntzaren Ebaluazioa 2004 eta TIMSS 2007) eta *Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmilla errepikatzeak duen eragina* ikerlanaren sorburua izan zen<sup>12</sup>.

## 2.2.2. JAIOTZA HILABETEAREN ERAGINA ERRENDIMENDUAN

**Jaiotza-datak emaitzei eragiten die, eta eragin hori ahulduz doa ikaslearen adina handitu ahala.**

TIMSS 2006 ebaluazioan parte hartu zuten DBH 2ko ikasleen laginarekin *Ikasmilla errepikatzeak duen eragina*<sup>13</sup>, ikerlana gauzatu zen. Bertan ikasleen urte bereko jaiotza-hilabeteak ikasleek proba ezberdinetan lortzen dituzten emaitzetan zer nolako eragina izan dezakeen aztertzeke nazioarte mailan eta bertan egindako zenbait ikerlanen emaitzak jaso ziren.

Aipatutako ikerlanetako bat Ingalaterran egin zen 2007an<sup>14</sup> eta bertan egiaztatu zen *irailean jaiotako ikasleek ikastetxeko azterketetan, batez beste, abuztuan jaiotakoek baino emaitza nabarmenki hobeagoak lortzen dituztela, eta arrazoa sinplea da: eskolatzea urtebete lehenago hasten direlako (eta baita azterketak egin ere)... abuztuan jaiotakoak ia urtebete gazteagoak dira irailean jaiotakoak baino* (ikasturtea abuztuan bukatzen da). Ikerlanean, horrekin batera, aldea, handiena hasieran, ondorengo etapetan murriztu egiten dela egiaztatu zen.

Ildo beretik, ISEI-IVEIren ikerketan Albertan (Kanada) egindako ikerlan bat aipatzen zen<sup>15</sup> eta ikerlan hartan ondorioztatzen zen Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 5. mailara Ingeles Hizkuntzan ikasle gazteen errendimendua, adinaren eraginez, ia urtebete lehenago jaiotako ikasleena baino apalagoa zela, eragina 5. mailatik aurrera ahuldu egiten zen arren.

Julio Carabañak PISA ebaluazioko datuetan oinarriturik (15 urteko ikasleak) adinaren eraginari buruz egindako ikerlanean<sup>16</sup> honela dio: *“lehen hiruhilabeteen jaiotakoek eta laugarren hiruhilabeteen jaiotakoek arteko alderik handienak 20 puntu inguruak dira...”*

Ondorengo grafikoetan Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako adin egokiko ikasleek 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan lortutako emaitzak jaiotza-hilabetearen arabera azaltzen dira. Arestian aipatutakoa egiaztatzen da: jaiotza-datak badu eraginik emaitzetan, eta eragina ahuldu egiten da ikasleen adina handitu ahala.



<sup>12</sup> PISA 2003. PISA 2006. Lehen Hezkuntzaren Ebaluazioa 2004. TIMSS 2007. *Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmilla errepikatzeak duen eragina*. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

<sup>13</sup> ISEI-IVEI. 2009ko apirila. *Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmilla errepikatzeak duen eragina*. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

<sup>14</sup> “When you are born matters: the impact of date of birth on child cognitive outcomes in England” en la investigación realizada por el ISEI-IVEI. Efecto de las repeticiones de curso en el proceso de enseñanza-aprendizaje del alumnado. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

<sup>15</sup> Alberta Education. Accountability and Reporting Division (January 2008). Grade level of achievement 2006-07 pilot data. The Crown in Right of Alberta as represented by the Minister of Education *Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmilla errepikatzeak duen eragina* ikerlanean. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

<sup>16</sup> Carabaña, J. “Las diferencias entre países y regiones en las pruebas PISA” *Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmilla errepikatzeak duen eragina* ikerlanean. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)



Oro har, Lehen Hezkuntzako 4. mailako adin egokiko ikasleen errendimendua altuagoa da lehen hiruhilabetean jaiotako artean, eta adin-aldea, hilabeteetan, handitu ahala, errendimendua nabarmenki jaisten da. Lehen eta laugarren hiruhilabeteetan jaiotako errendimenduen arteko aldea 14 puntukoa da.



Hala ere, DBH 2ko ikasleen artean ez da ia ezberdintasunik ikusten lehen eta laugarren hiruhilabeteetan jaiotako errendimenduen artean (4 puntu baino ez).

Hilabeteetako alde horrek (zenbait kasutan ia urtebetekoa) ikaslearen garapen-prozesuan ezberdintasunik sor ditzakeela pentsa liteke, ezberdintasunik 9-10 urteko ikasleen kasuan 14-15 urteko ikasleen kasuan baino nabariagoak direlarik.

Vygotskik dioen bezala, *“ikaskuntza ez da berez garapen bat, baina hauraren ikaskuntzaren antolamendua egokia denean, buru-garapenera eramaten du, garapen-prozesu multzo bat pizten du, eta pizte hori ezin liteke gerta ikaskuntzarik gabe”*.<sup>17</sup>

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek eta DBHko 2. mailakoek Ebaluazio Diagnostikoan izan duten errendimendua konparatzen badugu, DBH 2ko ikasleen kasuan ikasten emandako urteek garapen handiagoa ekarri dute, eta, beraz, haien arteko aldeak txikiagoak dira. Alde horiek hein handiagoan dira beste faktore pertsonal edo sozial batzuen ondorio jaiotza-hilabetearen ondorio baina.


Ondorengo grafikoetan, gehigarri gisa eta arestian esandakoa egiaztatzeko, adin egokiko ikasleen emaitzak jaiotza-hilabetearen arabera aurkezten dira.



<sup>17</sup> Vygotski, L.S. “Aprendizaje y desarrollo intelectual en la edad escolar” Revista Infancia y Aprendizaje. 1984. N°27/28. 105-116. or.

Beste alde batetik, lehen aipatu den bezala, ISEI-IVEIko DBH 2ko ikasleen lagin adierazgarriarekin egindako ikerlanean egiaztatu zen lehen hiruhilabeteen jaiotako ikasleen artean irakasmaila % 15ek bakarrik errepikatu zuela, baina laugarren hiruhilabeteen jaiotako %25ek errepikatu zuela. TIMSS ebaluazioko Zientzia eta Matematika probetan, adin egokiko ikasleen artean, lehen hiruhilabeteen jaiotako emaitzak laugarren hiruhilabeteen jaiotakoak baino 6 eta 10 puntu handiagoak izan ziren hurrenez hurren. Hala ere, alde horiek ez ziren adierazgarriak.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan adin egokia ez duten ikasleen (adinagatik dagokiena baino beheragoko irakasmaila batean daudenen) jaiotza-data hiruhilabetea aztertzen badugu, Lehen Hezkuntzako 4. mailan irakasmaila errepikatu duten ikasleen ehunekoa laugarren hiruhilabeteen jaiotako artean lehen hiruhilabeteen jaiotako artean baino bi aldiz handiagoa dela ikus daiteke. DBHko 2. mailan, berriz, lehen hiruhilabeteen eta laugarren hiruhilabeteen jaiotako arteko aldea 4 puntukoa da, errepikatzaile kopurua handiagoa bada ere.



### 2.2.3. IKASLEEN IKASKETA-ITXAROPENA

**Ikasleen ikasketa-itxaropena zenbat eta handiagoa izan, hobeagoak izan dira konpetentzia guztietan lortutako emaitzak. Derrigorrezko ikasketak bakarrik bukatu nahi dituzten ikasleen eta unibertsitateko ikasketak egi nahi dituztenen artean 50 puntu inguruko aldea dago.**

Ikerlan askok egiaztatu dute harreman positiboa dagoela ikasleen emaitzen eta familiak beren seme-alabekiko duten ikasketa-itxaropenaren artean. Oraingo honetan aldagai hori DBH 2ko ikasleek galdera-sortan, etorkizunean egiteko asmoa duten ikasketa mota dela eta, emandako erantzunetatik aztertu da.

DBH 2ko ikasleen ikasketa-itxaropena ehunekoetan

DBH bukatzea		Batxilergoa bukatzea		Heziketa Zikloa bukatzea		Unibertsitatea bukatzea	
K	%	K	%	K	%	K	%
1.545	9,9	1.806	11,5	1.846	11,8	10.466	66,8

DBH 2ko ikasleen % 80k unibertsitate mailako titulua (% 66,8) edo Lanbide Heziketako Prestakuntza Ziklo bat (% 11,8) lortzea espero du. Ikasleen % 10 inguruk esan du bere ikasketa-itxaropena derrigorrezko ikasketak bukatzera mugatzen dela.


#### Ikasketa-itxaropena eta lortutako emaitzak

Ikaslearen ikasketa-itxaropenaren eta konpetentzietan lortutako emaitzen arteko lotura ondorengo taulan eta grafikoan azaltzen da.

Emaitzak DBH 2ko ikasleen ikasketa-itxaropenaren arabera.

	DBH bukatzea	Batxilergoa bukatzea	Heziketa Zikloa bukatzea	Unibertsitatea bukatzea
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	209	230	238	262
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	210	225	238	263
Matematikarako konpetentzia	209	227	236	264
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzia	206	226	239	264

### 12. grafikoa : ED09-DBH 2: Ikasleen ikasketa-itxaropena eta konpetentzietako emaitzak



Derrigorrezkoaren ondoko ikasketak egiteko itxaropena zenbat eta handiagoa izan, are eta altuagoak dira ebaluatutako konpetentzia guztietako puntuazioak. Unibertsitateko ikasketak bukatu nahi dituzten ikasleen multzoak, zehazki, batez bestekoa baino 12-14 puntu gehiago lortu ditu konpetentzia guztietan. Gainera, DBH bakarrik bukatu nahi duten ikasleen puntuazioak 50 puntu baxuagoak dira unibertsitate mailako ikasketak bukatzea espero dutenen puntuazioak baino.

## 2.2.4. CURRICULUM ARLOEKIKO ZALETASUNA

**Oro har, ebaluatutako konpetentziei zuzenki lotutako arloekiko zaletasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta puntuazio altuagoa lortu dute kasuan kasuko konpetentzian**

Errendimenduaren inguruko hainbat ikerlanek azpimarratu dute ikaslearen ezaugarri pertsonal jakin batzuek eskola-arrakastarekin duten lotura<sup>18</sup>. Argitalpen horietan, ikastearen aldeko motibazioak edo arloarekiko zaletasunak ikasketei nola eragiten dien aztertu ondoren, elementu horiek (motibazioa eta zaletasuna) ikasleak ikasketetan inplikatzeke duen moduari eragiten diotela demostratu dute, emaitza onen adierazleak eta iragarleak izatera ere heltzen direlarik..

Aldagai hau aztertzeko ikasleek zenbait arloekiko duten zaletasunari buruz emandako datuak erabili dira (Euskara, Gaztelania, Matematika eta Natur Zientziak, printzipioz ebaluatutako konpetentziekin loturarik zuzenena duten arloak). Horretarako bost multzo finkatu dira zaletasunaren arabera: ez dut batere gogoko, ez dut gogoko, hala-hola, nahiko gogoko dut eta oso gogoko dut.

Ikasleen ehunekoa arloekiko duten zaletasunaren arabera.

	Bat ere ez		Ez		Hala-hola		Nahiko		Oso	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
<b>Euskara</b>	1.897	12,6	2.316	15,4	3.996	26,5	4.235	28,1	2.643	17,5
<b>Gaztelania</b>	1.204	7,9	1.856	12,1	4.303	28,1	4.878	31,8	3.083	20,1
<b>Matematika</b>	2.504	16,3	2.656	17,2	3.785	24,6	3.833	24,9	2.620	17,0
<b>Natur Zientziak</b>	2.443	15,5	2.950	18,8	4.390	27,9	3.917	24,9	2.027	12,9

Ikus daitekeenez, arlo guztietan ehunekorik altuenak “hala-hola” eta “nahiko” kategorietan izan dira. Analisia errazteko, arlo bakoitzean “ez dut batere gogoko” eta “ez dut gogoko” erantzun duten ikasleak multzo bakar batean sartu dira, eta “nahiko gogoko dut” eta “oso gogoko dut” erantzun dutenak beste multzo batean, ondorengo taulan azaltzen den bezala.

Ikasleen ehunekoa eta arloekiko zaletasuna.

	Ez dut batere gogoko eta ez dut gogoko		Nahiko eta oso gogoko dut	
	K	%	K	%
<b>Euskara</b>	4.213	28,0	6.878	46,5
<b>Gaztelania</b>	3.960	20,0	7.961	51,9
<b>Matematika</b>	5.160	33,5	6.453	41,9
<b>Natur Zientziak</b>	5.393	34,3	5.944	37,8

DBH 2ko ikasleen % 40-50ek esan du arlo guztiak dituela “nahiko eta oso gogoko”, Natur Zientzietan izan ezik, arlo horretan ehunekoa apur bat apalagoa baita (% 37,8).

<sup>18</sup> ACOSTA, E.S. (2001): The relationship between school climate academia self-concept and academia achievement. Dissertation Abstracts International Section A: Humanities and Social Sciences, 62.  
VILLAROEL, V.A. (2001): Relación entre autoconcepto y rendimiento académico. Psykhe: Revista de la escuela de Psicología 10(1): 3-18.

Beste muturrean, ikasleen % 20k esan du Gaztelania “ez duela gogoko” eta “ez duela batere gogoko”; % 28k gauza bera esan du Euskara arloari buruz, eta % 30ek gauza bera esan du Matematika eta Natur Zientziak arloei buruz.

Datu horiek ebaluazio honetan Lehen Hezkuntzako ikasleen artean bildutakoekin konparatzen baditugu, nolabaiteko ezberdintasuna ikus daiteke motibazioan eta arloekiko duten zaletasunean. Arloak “nahiko eta oso” gogoko dituztela esan duten ikasleen ehunekoak handiagoa da Lehen Hezkuntzan DBHn baino. Arloak “ez dituela gogoko” eta “ez dituela batere gogoko” erantzun duten ikasleen ehunekoak, berriz, txikiagoa da Lehen Hezkuntzan.

Interesgarria izan daitekeen beste alderdi bat analisia ikasleen sexuaren arabera egitea litzateke, zenbait konpetentzian bi multzoen arteko aldea adierazgarria izan baita<sup>19</sup>. Hurrengo taulan mutilek eta neskek erakutsi duten arloekiko zaletasuna ehunekoetan azaltzen da.

Arloekiko zaletasuna sexuaren arabera

	NESKAK %		MUTILAK %	
	Ez dut batere gogoko eta ez dut gogoko	Nahiko eta oso gogoko dut	Ez dut batere gogoko eta ez dut gogoko	Nahiko eta oso gogoko dut
<b>Euskara</b>	23,5	49,2	32	42,3
<b>Gaztelania</b>	15,3	56,5	24,3	47,8
<b>Matematika</b>	34,1	40,2	32,9	43,4
<b>Natur Zientziak</b>	35,5	34,3	33,1	41

Emaitzak kontuan izanik, arlo bakoitza nahiko edo oso gogoko duten nesken eta mutilen ehunekoak begiratzen baditugu, honako hau egiaztatzen da:

- bi hizkuntza-arloak gogoko dituzten nesken ehunekoak mutilena baino handiagoa da; bi konpetentzia horietan neskek mutilek baino puntuazio nabarmenki altuagoak lortu dituzte.
- Matematika arloa gogoko duten mutilen ehunekoak neskena baino handiagoa da, zaletasun hori mutilek ebaluazioan lortu duten puntuazio altuagoarekin bat datorrelarik. Hala ere, aldea bi puntukoa baino ez da (249-251) eta ez da adierazgarria.
- Natur Zientzietan, hala ere, ez da horrelako erlaziorik gertatzen, arloa gogoko duten mutilen ehunekoak neskena baino handiagoa da, dagokion konpetentzian neskek puntuazio nabarmenki altuagoa lortu duten arren.

### Arloekiko zaletasuna eta dagokion konpetentzian lortutako emaitzak

PISA 2003 ebaluazioan<sup>20</sup> demostratu zen ikasleek Matematikarekiko –ebaluazioaren gai nagusia– zuten interesa eta zaletasuna emaitzei nabarmenki eragiten zien aldagaia zela. Beraz, 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan ere aztertu da ikasleek arloekiko duten zaletasunak noraino eragin ahal izan dien ebaluazioko emaitzei.

Ondorengo taulak konpetentzia bakoitzeko emaitzak erakusten ditu dagokion arloekiko zaletasuna sailkatzeko finkatu diren bost kategorien arabera.

<sup>19</sup> Gogoratu behar da neskek mutilek baino emaitza nabarmenki hobetoak lortu dituztela komunikazio-konpetentzia bietan eta Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzian. Matematikarako konpetentzian mutilek emaitza hobetoak lortu dituzte, baina aldeak ez dira adierazgarriak

<sup>20</sup> PISA 2003 ebaluazioaren bigarren txostena. Euskadiko emaitzak. [www.isei-ivei-net](http://www.isei-ivei-net)




## Konpetentzia bakoitzeko emaitzak dagokion arloarekiko zaletasunaren arabera

	Bat ere ez	Ez	Hala-hola	Nahiko	Oso
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	215	240	249	264	266
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	233	250	253	256	248
Matematikarako konpetentzia	226	239	248	261	274
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzia	226	243	251	262	270

Konpetentzia guztietan egiaztatzen da dagokion arloarekiko zaletasuna zenbat eta handiago izan, oro har, puntuazio handiagoa lortu dutela ebaluazioan. Hala eta guztiz ere, *Gaztelaniazko hizkuntza komunikaziorako konpetentziaren* kasuan, arloa “nahiko” gogoko dutela dioten ikasleek “oso” gogoko dutela diotenei baino puntuazio altuagoa lortu dute (256, 248 hurrenez hurren), ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala.

Arloa “hala-hola” gustatzen zaien DBH 2ko ikasleek batez bestekoaren inguruko puntuazioak lortu dituzte.

13. grafikoa : ED09-DBH 2: Konpetentzia bakoitzeko emaitzak dagokion arloarekiko zaletasunaren arabera



## 2.2.5. CURRICULUM ARLOEN ZAILTASUN MAILAREN BALORAZIOA

**Arlo baten zailtasuna, ikaslearen iritziz, zenbat eta handiagoa izan, orduan eta apalagoa izaten da arloari lotutako kompetenziako puntuazioa. Oro har, ikasleek zaletasun handiagoa izaten dute hizkuntza-arloekiko zientzia-arloekiko baino (Matematika eta Natur Zientziak), eta zailtasun txikiagokoak direla uste dute.**

Ikasleek arloen zailtasunari buruz duten iritzia, arloekiko zaletasunarekin batera, auto-kontzeptuarekin, ikasteko motibazioarekin eta, beraz, errendimenduarekin erlazionatu ohi da, eta horregatik aztertu da zer nolako eragina izan duen aldagai horrek ebaluazioko emaitzetan.

Horretarako, arloekiko zaletasunaren informazio osagarri gisa, arloaren zailtasunari buruz duten iritzia eskatu zitzaizen ikasleei. Iritziak ehunekoetan azaltzen dira ondorengo taulan.

**Ikasleek arloaren zailtasunaren inguruan duten iritzia ehunekoetan.**

	Oso zaila		Zaila		Normala		Erraza		Oso erraza	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
<b>Euskara</b>	1.271	8,4	2.669	17,7	6.358	42,1	3.472	23,0	1.326	8,8
<b>Gaztelania</b>	542	3,5	2.042	13,3	6.947	45,2	4.070	26,5	1.776	11,5
<b>Matematika</b>	1.634	10,6	3.836	24,8	5.699	36,9	3.103	20,1	1.165	7,5
<b>Natur Zientziak</b>	1.512	9,6	3.695	23,4	6.633	42,1	3.018	19,1	904	5,7

Zientzia-arloetan (Matematika eta Natur Zientziak) ehunekorik altuenak “*normala*” eta “*zaila*” kategorietan izan dira. Hala ere, hizkuntza-arloetan ehunekorik altuenak “*normala*” eta “*erraza*” kategorietan izan dira.

“*Oso zaila*” eta “*zaila*” kategoriak alde batetik, eta “*oso erraza*” eta “*erraza*” kategoriak bestetik elkartzen badira, ikasleen iritziak ondorengo grafikoan azaltzen den bezala geratuko dira ehunekoetan:

**Ikasleen ehunekoa eta arloaren zailtasunari buruzko iritzia**

	Oso zaila eta zaila		Erraza eta oso erraza	
	K	%	K	%
<b>Euskara</b>	3.940	26,1	4.798	31,8
<b>Gaztelania</b>	2.584	16,8	5.846	38,0
<b>Matematika</b>	5.470	35,4	4.268	27,6
<b>Natur Zientziak</b>	5.207	33,0	3.922	24,8

Ikasleen % 40 inguruk uste du Gaztelania “*erraza edo oso erraza*” dela, eta % 32 inguruk iritzi bera du Euskarari buruz. Ikasleen ehuneko txikiago batek (% 25 inguru) zientzia-arloak errazak direla uste du.

Oro har, hizkuntza-arloak errazagotzat hartzen direla esan daiteke, eta ikasleek haiekiko zaletasuna handiagoa dutela. Zientzia-arloek (Matematika eta Natur Zientziak) zailtasun handiagoa dute ikasleen iritziz eta haiekiko zaletasuna txikiagoa da.

Jarraian arlo bakoitzarekiko zaletasuna eta ikasleen iritziz arloaren erraztasuna erkatzen dira haien arteko loturarik ote dagoen aztertzeko. Tauletan kategoria bakoitzari dagozkion ikasleen ehunekoak adierazten dira.

**Arloa erraza edo oso erraza dela uste duten eta nahiko edo oso gogoko duten ikasleen ehunekoak.**

	Nahiko edo oso gogoko	Erraza edo oso erraza	Aldea
Euskara	46,5	31,8	14,7
Gaztelania	51,9	38,0	13,9
Matematika	41,9	27,6	14,3
Natur Zientziak	37,8	24,8	13,0

**Arloa zaila edo oso zaila dela uste duten eta gogoko edo batere gogoko ez duten ikasleen ehunekoak**

	Ez dute gogoko edo ez dute batere gogoko	Zaila edo oso zaila	Aldea
Euskara	28,0	26,1	1,9
Gaztelania	20,0	16,8	3,2
Matematika	33,5	35,4	-1,9
Natur Zientziak	34,3	33,0	1,3

Oro har, adostasun handiagoa ikusten da ikasleek arloa gogoko ez dutela diotenean eta, aldi berean, zaila dela uste dutenean; ikasleen ehunekoak bi kasuetan oso antzerakoak dira eta aldeak ez dira aintzat hartzekoak. Alderik handiena, bakarrik % 3,2 puntukoa, Gaztelanian gertatu da, ikasleen % 20k ez duela gogoko esaten baitu, eta % 17k zailtzat edo oso zailtzat hartzen baitu.

Hala eta guztiz ere, arloa “nahiko gogokoa” eta “oso gogokoa” dutela esaten dutenean, aldeak handiagoak dira: arloarekiko duten zaletasunaren eta arloari egozten dioten zailtasunaren arteko aldea 14 puntu ingurukoa da arlo guztietan. Adibidez, % 34k esaten du Natur Zientzien arloa ez duela gogoko, eta, aldi berean, % 33k arloa zaila dela uste du.

### Arloarekiko zaletasunaren eta egotzitako zailtasun-mailaren arteko korrelazioa

Ikasleek arlo bakoitzarekiko duten zaletasunaren eta egozten dioten zailtasun-mailaren arteko korrelazioa oso altua da kasu guztietan, ondorengo taulan adierazten den bezala.

	Korrelazio koefizientea <sup>21</sup>
Euskara	0,542
Gaztelania	0,613
Matematika	0,700
Natur Zientziak	0,550

Korrelazioa oso handia eta positiboa da arlo guztietan; hau da, arlo bat oso gogoko izatea erlazionatuta dago oso erraza dela pentsatzearekin. Arloarekiko zaletasunaren eta egozten zaion zailtasun-mailaren arteko korrelaziorik handienak Matematikan (0,700) eta Gaztelanian (0,613) gertatzen dira. Gero, Natur Zientziak eta Euskara daude, biak koefiziente handiarekin.

<sup>21</sup> Pearson korrelazio koefizientea. -1 eta +1 artekoa. Balio absolutua zenbat eta handiagoa izan, aldagaien arteko korrelazio handiagoa.

## Arloaren zailtasunaren balorazioa eta dagokion kompetentzia lortutako emaitzak

Aldagai horren analisiaren bidez argitu nahi da ikasleak arlo bakoitzaren zailtasunari buruz egindako balorazioa erlazioaturik ote dagoen arloari 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan dagokion kompetentzia lortutako puntuazioarekin.


Emaitzak arloaren zailtasunaren balorazioaren arabera

	Oso zaila	Zaila	Normala	Erraza	Oso erraza
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	206	234	254	267	266
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	228	242	251	257	248
Matematikarako kompetentzia	222	238	251	268	280
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentzia	222	243	252	264	267

Oro har, arloaren zailtasuna ikasleen ustez zenbat eta handiagoa izan, dagokion kompetentzia puntuazio apalagoa lortu dutela egiaztatzen da. *Gaztelaniazko hizkuntza komunikaziorako kompetentzia*ren kasuan, aldagaiak ez ditu ongi bereizten “erraza” eta “oso erraza” dela uste dutenen multzoak, bigarren multzo horretako puntuazioa txikiagoa baita (“erraza” dela uste dutenek 257 puntu; “oso erraza” uste dutenek 248 puntu). *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako kompetentzia*ren ere ez du ongi bereizten, kasu horretan aldea puntu bakar batekoa den arren.

Puntuazioen arteko alderik handienak *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako kompetentzia* eta *Matematikarako kompetentzia* gertatu dira: 60 eta 58 puntuko aldeak daude, hurrenez hurren, “oso errazak” eta “oso zailak” direla uste duten ikasleen multzoetako emaitzen artean. Katgoria horien arteko alderik txikiena *Gaztelaniazko hizkuntza komunikaziorako kompetentzia* gertatu da (20 puntu “oso erraza” eta “oso zaila” uste dutenen multzoetako emaitzen artean, baina 29 puntu “oso zaila” eta “erraza” uste dutenen multzoetako emaitzen artean).

14. grafikoa : ED09-DBH 2: Arloaren zailtasunaren balorazioa eta kompetentzietako emaitzak



### 2.2.6. IKASKIDEEN ARTEKO HARREMANEN PERTZEPZIO-INDIZEA

**Ikaskideekin, sarritan edo gutxitan, jokaera-arazoak dituztela dioten ikasleek (% 8) arazorik ez dutela edo harreman onak dituztela diotenek (% 92) baino emaitza nabarmenki apalagoak lortu dituzte konpetentzia guztietan.**

Egiaztatuta dago ikaslearen ezaugarri jakin batzuek, aldagai pertsonal bezala azterturik, lagundu egiten diotela bere ikas-prozesua modu positiboan bideratzen.

Hala eta guztiz ere, aldagai horietako batzuk indizeetan bildu dira beren portaera eta emaitzetan duten eragina batera azertu ahal izateko. Indizeak finkatzeko, informazio garrantzitsua ematen duten aldagaiak multzokatu dira. Haien artean azpimarratu beharko lirateke ikasleak ikastetxeari buruz duen pertzepzioa, eskolako lanarekiko jarrera eta ikaskideekiko harremanen pertzepzioa neurtzen duten indizeak. Informazioa garrantzitsua denean, indize horien berri zehatza ematen da.

Indize horietarako bakoitzean 0ko batez besteko puntuazioa eta 1eko desbideratze tipikoa finkatu dira. Balio positibo batek adierazten du ikasleak indize horretan batez bestekoa baino balio handiagoa erakusten duela; balio negatibo batek, berriz, ikasleak indize horretako batez bestekoa baino balio txikiagoa erakusten duela adierazten du.

Atal honetan aztertzen den indizeren xedea hainbat alderdi argitzea da, hala nola ikastetxeko giroa, bereziki nola ikusten duten ikasleek ikaskideekiko harremana, haien artean jokaera-arazorik gertatzen ote den, eta jokaera horiek emaitzetan eragin negatiboa ote duen.

Galdera-sortan gelakideak nolakoak ziren deskribatzea eskatzen zuten bi galderei emandako erantzunetan oinarritu da indizea.

- *Zirikatzen zaituzte?*
- *Zurekin borrokan ibiltzen dira?*

Bi galderei erantzuteko 5 kategoria zeuden gertaera horien maiztasunaren arabekoak: *inoiz ere ez*, *batzuetan*, *sarritan*, *oso sarritan* eta *beti*. Kategoriek, logikoki, ikaskideen arteko jokaera desegokien edo problematikoen maila ezberdinak definitzen dituzte. Ikaskideen arteko jokaera problematiko edo mehatxuzko horiek sailkatzeari begira, prozedura hau jarraitu da:

1. Jokaera bakoitza gertatzen deneko maiztasunari 1 puntuko balioa eman zaio.

Jokaeraren maiztasuna	Zirikatzen naute	Nirekin borrokan ibiltzen dira
Inoiz ere ez	1	1
Batzuetan	2	2
Sarritan	3	3
Oso sarritan	4	4
Beti	5	5

2. Ikaskideen arteko jokaera problematiko edo desegokiaren maila jokaeraren maiztasunaren arabera emandako puntuak kontuan harturik finkatzen da, sailkapena honela geratzen delarik.

**Ikaskideen arteko jokaera problematikoaren balorazioa**

2 puntu	<i>Inoiz ere ez bi galderetan</i>	✓ Ikaskideen arteko harreman onak. Ez dute jokaera problematikorik antzematen.
4-5-6-7 puntu	<i>Batzuetan bi galderetan edo Oso sarritan bi galderetako batean</i>	✓ Batzuetan jokaera problematikoak edo mehatxuzkoak antzematen dituzte.
8-10 puntu	<i>Sarritan edo Beti galdera batean edo Oso sarritan bi galderetan</i>	✓ Ikaskideen arteko jokaera problematikoak maiz antzematen dituzte.

Sailkapena kontuan harturik, DBH 2ko ikasleei buruzko datuak ondorengo taulan azaltzen dira.

**DBH 2ko ikasleek ikaskideen arteko harremanei buruz duten pertzepzioa**

	<b>Ikasleen %</b>
Ikaskideen arteko harreman onak antzematen dituzte	92
Jokaera problematikoak batzuetan antzematen dituzte	5,9
Jokaera problematikoak maiz antzematen dituzte	2

DBH 2ko ikasle gehienek (% 92) ez dutela ikaskideekiko jokaera problematikorik antzematen esan daiteke. Hala ere, eta ehuneko askoz apalagoa bada ere, azpimarratu behar da irakasmilla horretako ikasleen % 6k ikaskideekiko jokaera problematiko bat edo beste nolabaiteko maiztasunez antzematen duela. Gainera, ikasleen % 2k esaten du jokaera problematikoak maiztasun handiz jasaten dituela, eta maiztasuna hain handia izanik, jokaera horiek mehatxagarri bezala har litezkeela.

Ehuneko hori (ia % 8) kontuan hartu beharrekoa da, ikasleak ikaskideekiko dituen harreman gatazkatsuek, dirudenez, nolabaiteko lotura baitute ebaluatutako kompetentzietako emaitzekin, ondorengo taulan eta grafikoan ikus daitekeen bezala.

**Ikaskideen arteko harremanen pertzepzioa eta ebaluatutako kompetentzietako emaitzak**


	<b>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</b>	<b>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</b>	<b>Matematikarako kompetentzia</b>	<b>Zientzia, teknologia eta osasun-kultura</b>
Ikaskideen arteko harreman onak antzematen dituzte.	252	252	252	252
Jokaera problematikoak batzuetan antzematen dituzte.	238	237	239	236
Jokaera problematikoak maiz antzematen dituzte	224	227	232	227

Datuak ikusi ondoren, begien bistakoa da ikasleek ikaskideekiko harremanei buruz duten pertzepzioaren eta emaitzen arteko lotura. Ikaskideekiko jokaera problematikorik antzematen ez duten ikasleek bakarrik lortu dituzte 250 puntuko batez bestekotik gorako emaitzak ebaluatutako kompetentzia guztietan.

Gainontzeko kasu guztietan, emaitzak ez dira heldu 250 puntutan finkatutako batez bestekora. Ikaskideekiko jokaera desegokia nolabaiteko maiztasunez antzematen edo jasaten duten ikasleen multzoan (ia % 6), hain zuzen ere, puntuazioak apalagoak izan dira kompetentzia guztietan.

Are apalagoak izan dira oraindik sarritan zirikatzen dituztela edo haiekin borrokan ibiltzen direla dioten ikasleen emaitzak. Multzo horietako emaitzen arteko aldea 20 eta ia 30 puntukoa izatera heldu da.

15. grafikoa : ED09-DBH 2: Ikasleek ikaskideen arteko harremanari buruz duten pertzepzioa eta emaitzak



Azken bi kasu horietan kontuan izan behar da, gainera, jokaera horiek maiztasun handiz gertatzen direnean, ikasleentzako egoera mehatxagarri bihurtu daitezkeela. Logikoki, jokaera horiek antzematen diren neurrian, esku hartu ahal izango da jokaerak zuzentzeko, alde batetik ikasleek gerta daitezkeen arazo larriak konpontzen ikasi behar dutelako, eta bestetik ikaskideengandik jokaera horiek jasaten dituzten ikasleen errendimendua apalagoa delako.

Ikaskideen arteko tratatu txarrei buruz egindako ikerlanaren ondorioak<sup>22</sup> bat datoz ebaluazio honetako datuekin. Ikerlan hartan, DBHko ikasle gehienek esaten zuten ez zutela ikaskideengandik tratatu txarrik jasaten, eta beren eskolatzeko-prozesua esperientzia positibotzat jotzen zuten. Hala ere, DBHko ikasleen % 1,3k tratatu txar bateko edo besteko biktima hartzen zuten bere burua, eta tratatu txarrik sarrienak ahozkoak zirela esaten zuten. Orduan ere, eta ehunekoa gorabehera, horrelako jokaerak jasaten zituzten ikasleak aintzat hartu behar zirela ohartzen zen, jokaerakiko "zero" tolerantzia eta ikuspuntu hezigarria beharrezkoak zirelarik.

<sup>22</sup> Ikaskideen arteko tratatu txarrik Euskadin. Lehen txostena. 2008ko urria. [www.isei-ivei-net](http://www.isei-ivei-net)



## 2.2.7. LAN-OHITURAK ETXEAN

### A. Ikastetxeko etxerako lanak egiten egunero emandako denbora

**Dirudienez, etxerako lanak egiten zentzuzko denbora bat –ordu bat edo bi–emateak eragin positiboa du emaitzetan. Hala ere, etxerako lanetan denbora gehiago ematen denean, emaitzak ez dira hobetzen. Etxerako lanak egiten ez duten ikasleek lortu dituzte puntuaziorik apalenak.**

Aldagaia ikasleek galdera-sortan emandako informazioan oinarriturik aztertu da, egunero etxerako lanak egiten edo eskolen ostean ikasten ematen duen denborari buruzko informazioan alegia. Ondorengo taulan kategoria bakoitzari dagokion ikasleen ehunekoa erakusten da.

**Ikasleen ehunekoa eta etxerako lanak egiten emandako denbora**

Ez dauka etxerako lanik		Ez ditu egiten		Ordubete edo gutxiago		1-2 ordu		2 ordu baino gehiago	
K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
326	2,1	533	3,5	5.710	37,3	7.124	46,6	1.602	10,5

DBH 2ko ikasleen % 95 inguruk denbora tarte bat ematen du etxerako lanak egiten ikastetxetik kanpo. % 47k egunero 1 eta 2 ordu bitartean ematen duela dio, eta % 37k ordubete edo gutxiago. % 10ek egunero 2 ordu baino gehiago ematen du etxerako lanak egiten. DBH 2ko ikasleen % 3,5ek dio ez duela etxerako lanak egiten.

### Etxerako lanak egiten emandako denbora eta lortutako emaitzak

PISA 2003 txostenak<sup>23</sup> ondorioztatzen zuen etxerako lanak egiten etxean ematen zen denborak emaitzei eragiten zuela eta bere koefizientea negatiboa zela. Hau da, egunero etxerako lanak egiten ematen zen denbora jakin batetik aurrera emaitzak ez zirela hobetzen demostratu zen. Etxerako lanetan denbora gehiegi ematen zuten ikasleek egunero zentzuzko denbora bat (ordu erditik ordubetera) ematen zutenek baino puntuazio apalagoa lortzen zuten.

Ondorengo taulan adierazten den bezala, Ebaluazio Diagnostikoan ebaluazio hartatik ateratako ondorioak egiaztatu dira: egunero etxerako lanak egiten denbora gehiago emateak ez du halabeharrez emaitza hobegarrik bermatzen; etxerako lanetan zentzuzko denbora bat ematea, berriz, emaitza hobekoak lortzearekin erlazionatu daiteke.

**Emaitzak eta etxerako lanetan egunero emandako denbora**

	Ez dago etxerako lanik	Ez ditu egiten	Ordubete edo gutxiago	1-2 ordu	2 ordu baino gehiago
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	229	213	253	254	247
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	244	228	253	252	249
Matematikarako konpetentzia	243	228	253	252	249
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konp.	241	224	251	253	251


<sup>23</sup> PISA 2003 ebaluazioaren bigarren txostena. Euskadiko emaitzak. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

Emaitzarik onenak etxerako lanak egiten egunero “ordubete baino gutxiago” eta “1-2 ordu” ematen duten ikasleek lortu dituzte. Bi kasu horietan emaitzak 250 puntuko batez bestekotik gorakoak dira kompetentzia guztietan.

Hala ere, denbora horretatik aurrera etxerako lanetan ordu gehiago emateak ez du emaitza hoberik bermatzen. Esate baterako, *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako kompetentziaren* kasuan puntuazioa 7 puntuz jaisten da. Ziur asko, etxerako lanak egiten ordu asko ematen dituen ikasleak gutxienezko mailara heltzeko behar dituelako ematen ditu, eta ez arlo edo kompetentziari buruzko ezagupen sakonagoa lortzeko.

Etxerako lanik egiten ez duten ikasleek lortu dute puntuaziorik apalenak kompetentzia guztietan. Ikastetxean etxerako lanik ez dagoela dioten ikasleek batezbestekoa baino puntuazio baxuagoak lortu dituzte ebaluatutako kompetentzia guztietan.

16. grafikoa : ED09-DBH 2: Emaitzak eta etxerako lanetan egunero emandako denbora



## B. Etxerako lanak egiteko autonomia

**Etxerako lanak egiteko laguntzarik ez duten ikasleek (% 54) eta senitarteko baten laguntza jasotzen dutenek (% 28,8) batez bestekoa baino puntuazio altuagoak lortu dituzte. Emaitzarik apalenak kanpoko laguntza profesionala (irakasle partikularra) duten ikasleek (% 13,5) lortu dituzte. Ziur asko, ikasteko arazorik handienak dituzten ikasleak dira, eta laguntza gehiago behar dute ikasketak aurrera ateratzeko.**

Atal honetan ikasleak etxerako lanak egiteko laguntzarik jasotzen duen aztertzen da, ikaslearentzako galdera-sortatik bildutako informazioan oinarriturik. Analsiak informazio interesgarria eskain dezake ikasteko motibazioaz eta familiek seme-alaben hezkuntzaren inguruan duten ohiturez.

## Ikasleen ehunekoa eta etxerako lanak egiteko izaten duten laguntza

Laguntzarik ez		Irakasle partikularra		Akademiara joaten da		Guraso baten laguntza		Anai/arreba baten laguntza		Beste batzuk	
K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
8.784	54,1	2.196	13,5	1.996	12,3	4.672	28,8	1.824	11,2	392	2,4

DBH 2ko ikasleen erdiak baino gehiagok (% 54,1) inolako laguntzarik gabe egiten ditu etxerako lanak. Ikasleen % 30 inguruk (% 28,8) guraso baten laguntzaz egiten ditu etxerako lanak. Ikasleen % 13 inguruk irakasle partikularra dute edo akademia batera joaten dira. Azkenik, % 11k dio familia barruan anai-arreba baten laguntza jasotzen duela.

Aipatu beharrekoa da kasu horretan ehunekoen batura 100 baino gehiago dela, erantzunak ez baitziren elkarren baztergarriak, eta ikasleak erantzun bat baino gehiago aukera baitzezakeen. Adibidez, guraso baten laguntzaz gain, beste pertsona batena ere izan zezakeen.

## Etxerako lanak egiteko autonomia eta lortutako emaitzak

Jarraian ikasleak jasotzen duen laguntza motak ebaluatutako konpetentzietako emaitzei eragiten dien aztertzen da.

## Emaitzak eta etxerako lanak egiteko jasotako laguntza mota


	Laguntzarik ez	Irakasle partikularra	Akademiara joaten da	Guraso bat	Anai/arreba bat
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	259	229	238	250	244
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	258	227	241	252	243
Matematikarako konpetentzia	260	226	239	250	244
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konp.	258	228	240	253	244

Argi ikusten da etxerako lanak egiteko inolako laguntzarik ez duten ikasleek (% 54) lortu dituztela emaitzarik onenak konpetentzia guztietan, zenbait kasutan 250 puntuko batez bestekoa baino 8-10 puntu altuagoak. Ikasle horiek ez dutela laguntzarik behar ondoriozta daiteke, ikasteko erritmoa inolako zailtasunik gabe jarraitzen duelako eta puntuaziorik altuenak lortzen dituelako.

Puntuazio altuenetan hurrengo multzoa senitarteko baten laguntza, amarena edo aitarena, jasotzen duten ikasleena da (% 28,8). Multzo horretako emaitzak 250 puntutan finkatutako batez bestekoaren inguruan edo apur bat gorago daude.

Emaitzarik apalenak kanpoko laguntza profesionala (irakasle partikularra) duten ikasleek (% 13,5) lortu dituzte. Ziur asko, ikasteko zailtasunik handienak dituzten ikasleak dira, eta, beraz, laguntza handiagoa behar dute ikasketak aurrera ateratzeko. Akademia batera joaten diren ikasleek (% 12,3) emaitza apur bat hobeto lortu dituzte, baina ez dira 250 puntuko batez bestekora heltzen.

17.grafikoa : ED09-DBH 2: Etxerako lanak egiteko jasotako laguntza eta konpetentzietako emaitzak



### 2.2.8. HBEP PROGRAMA BATEAN IKASTEN DUTEN DBH 2ko IKASLEAK

**DBHko 2. mailan eskolatutako ikasleen artean 1.287 ikaslek Hezkuntzan Berriaz Esku Hartzeko Proiektu batean (HBEP) ikasten dute. Haien arteko 1.149k parte hartu dute 2009ko Ebaluazio Diagnostikoko probaren batean. Konpetentzia guztietan lortutako puntuazioak 250 puntuko batez bestekoa baino askoz apalagoak dira.**

Hezkuntzan Berriaz Esku Hartzeko Proiektuak (HBEP) aldekoak ez diren ingurune sozio-kulturaletako ikastetxeetan ikasleei banan-banako arreta ematen dieten proiektuak dira. Horien helburua ikastetxe-mailako proiektu bat garatzea da, DBHko lehen zikloan ikasketetan atzerapen handia edota portaera-arazo larriak dituzten 16 urtetik beherako ikasleei erantzun bat emateko. Programa horien iraupena 2 ikasturtekoa da eta ikastetxeak etapari, zikloari eta curriculumari eragiten dieten ekimenak, beste neurri batzuez gain, zehazten dituen hezkuntza proiektu bat aurkeztu behar du.

DBHko 2. mailako 1.287 ikaslek Hezkuntzan Berriaz Esku Hartzeko Proiektu batean (HBEP) ikasten dute. Haien arteko 1.149k parte hartu dute 2009ko Ebaluazio Diagnostikoko probaren batean, eta ikasle horien ezaugarriak deskribatuko dira jarraian.

Ikasle horien ezaugarrietako batzuk:

- Ebaluazioan parte hartu duten eta puntuazioa kontuan hartu zaien DBH 2ko ikasle guztien % 7 dira HBEP programa baten barruan ikasten dutenak.
- Ikasle horien % 21,8 etorkinak dira (280 ikasle).
- Ikasle horien % 14,5 euskaratik salbuetsita daude (186 ikasle).
- HBEP programa baten barruan ikasten duten ikasleen artean % 60,7 mutilak dira eta % 39,3 neskak dira.

Ikasle horien banaketa irakastereduen eta geruzen arabera ondorengo tauletan azaltzen da:

**HBEP programa baten barruan ikasten duten ikasleak hezkuntza-sarearen arabera**

Publikoa			Itunpekoa		
K	Ikasleen % sarean	HBEPko ikasleak (% sarean)	K	Ikasleen % sarean	HBEPko ikasleak (% sarean)
515	44,8	<b>7,56</b>	634	55,2	<b>7,41</b>
Guztira: 1.149					

Ikus daitekeenez, bi sareetan ikasle guztien artean HBEP programa batean ikasten dutenak % 7 inguru dira: bi sareetan 100 ikasle bakoitzeko 7 Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektu (HBEP) batean ikasten ari dira aldekoa ez den ingurune sozio-kulturaleko ikastetxe batean.

Hala eta guztiz ere, datuak ezberdin samarrak dira ikasleen banaketa irakastereduen eta geruzen arabera egiten denean, ondoren azaltzen den bezala.

**HBEP programa batean ikasten duten ikasleak irakastereduaren arabera**

	K	Ikasleen banaketa irakastereduetan (%)	HBEPko ikasleak irakastereduetan (ikasle guztien %)
A eredia	339	29,5	<b>11,9</b>
B eredia	377	32,5	<b>8,3</b>
D eredia	433	38,0	<b>4,8</b>

Datuak adierazten dutenez, D ereduiko ikasle kopurua (437) handiagoa izan arren, ikasleen populazio osoarekin konparatzen dugunean, irakasteredu bakoitzean duen pisua oso ezberdina da. Hartara, horrelako ikasleen ehunekorik txikiena D eredian dago (% 5era ez da heltzen); A eredian, berriz, horrelako programa berezietan ikasten duten ikasleen ehunekoa bi aldiz handiagoa da (% 11,9).

**HBEP programa batean ikasten duten ikasleak geruzen arabera**

	K	%
A publikoa	122	15,1
B publikoa	92	10,6
D publikoa	301	5,3
Itunpeko A	217	10,6
Itunpeko B	285	7,7
Itunpeko D	132	3,9

A eredu publikoaren geruzak biltzen du programa berezi horietan ikasten duten ikasleen ehunekorik handiena (% 15). Bigarren eta hirugarren tokian B eredu publikoa eta itunpeko A eredia daude, geruza horietan 100 ikasle bakoitzeko 10 inguru HBEP programa batean daudelarik. Horrelako programetan ikasten duten ikasleen ehunekorik txikienak D ereduetan daude, itunpekoan eta publikoan.

### HBEP programetan ikasten duten ikasleen jaioturtea

Lehen egiaztatu da ikasleen jaioturteak eragin handia izaten duela emaitzetan, eta orain analisi bera egingo dugu ikasle horien multzoarekin. Ondorengo taulan ikasleen ehunekoa jaioturtearen arabera azaltzen da, hots, irakasmaila errepikatzeagatik edo berandu eskolatu direlako, irakasmailarekiko adin egokiko ikasleak, urte bateko atzerapena dutenak eta bi urteko atzerapena dutenak zenbat diren .

## HBEP programetan ikasten duten ikasleen jaioturtea

	%
Jaioturtea 1995 (adin egokia)	25,3
Jaioturtea 1994	49,7
Jaioturtea 1993	24,7


Argi ikusten denez, ikasle horien % 25 bakarrik dago adinagatik dagokion irakasmilian. Ikasle horien ia erdiak irakasmila bat errepikatu du, eta gainontzeko % 25ek bi urteko atzerapena du adin egokiarekiko, ustez bi irakasmila errepikatu dituelako.

## HBEP programetan ikasten duten ikasleak eta lortutako emaitzak

Ondorengo taulan eta grafikoan Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektuetan (HBEP) ikasten duten ikasleak ebaluatutako kompetentzietan lortutako emaitzak erakusten dira.

	K Kompetenziako puntuazioan sartutako ikasle kopurua	Batez bestekoa	D.T.
Euskarazko hizkuntza- komunikaziorako kompetentzia	899	200	1,6
Gaztelaniazko hizkuntza- komunikaziorako kompetentzia	1.041	207	1,40
Matematikarako kompetentzia	1.055	205	1,27
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konp.	1.059	207	1,35

Ikusten denez, ikasle horiek lortu dituzten puntuazioak 250 puntuko batez bestekoa baino askoz apalagoak dira kompetentzia guztietan. Hala eta guztiz ere, kontutan hartu beharrekoa da programa horiek ikasleen absentismoa prebenitzeko duten garrantzia, zeren eta, programa horiek gabe, ikasleak ikasketak alde batera utzi eta hezkuntza sistematik kanpo egon bailitezke. Ondorio hori ISEI-IVEIk DBHko bigarren zikloko eskola uzteari buruzko ikerlanean atera zen <sup>24</sup>..



<sup>24</sup> Eskola uztea. DBHko Bigarren Zikloa. (2007ko apirila). Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa. (ISEI-IVEI). [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

### 2.2.9. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN ANALISI DESKRIBATZAILEA.

**Ebaluazioan parte hartu duten DBHko 2. mailako ikasleen artean curriculumera sartzeko egokitzapena edo arloko CEIa dutenak guztira 184 izan dira (%1). Haien artean % 63 sare publikoko ikastetxeetan dago eskolaturik, eta % 37 itunpeko sarean. Mutilen ehunekoa (% 57) neskena (% 43) baino handiagoa izan da.**

Ebaluazio Diagnostikoa errolda-ebaluazio bezala sortu da eta, beraz, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan eskolaturik dauden ikasle guztiek hartu behar dute parte. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak hezkuntza-sisteman sartzeko azken hamarkadetan gauzatu diren planen ondorioz, askotariko egoeretako ikasleak eskolatu dira ohiko ikasgeletan. Hortaz, 2009ko Ebaluazio Diagnostikoari begira, askotariko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek nola parte har lezaketean planifikatu behar izan da.

Ebaluazio Diagnostikoa ebaluazio estandarizatua da, eta ez du aukerarik ematen Curriculumaren Egokitzapen Indibidual (CEI) esanguratsuen bidez ikasten duten ikasleek proba ezberdinak egin ditzaten. Hala ere, irakas-jardunean gertatzen diren egokitzapenen aniztasuna kontuan izanik, eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek ebaluazioetan parte hartzea ahal den neurrian normalizatzeari begira, ikasle horiek egoera jakin batzuetan parte har dezaketela erabaki da. Hezkuntza-sisteman gertatzen diren hezkuntza premia bereziak definitu eta multzotan sailkatu dira; ikasleek Ebaluazio Diagnostikoan curriculumean sartzeko dituzten baldintza berdinetan parte ahal izateko behar diren baldintzak eta baliabideak proposatzen dira.

Honako egoera hauek definitu dira:

#### 1. Curriculumera sartzeko egokitzapena behar duten ikasleak.

Ikasle horiek ikusmen, entzumen edo mugimenduzko urritasuna izan dezakete, baina ebaluazioetara heltzeko behar dituzten egokitzapenak eginez gero, LH 4ko eta DBH 2ko proba estandarizatuak egin litzakete.

- *Ikusmen-urritasuna duten ikasleak.* Urritasunaren mailaren arabera (ikusmen urria edo itsumena) beharrezkoa izan daiteke:
  - Ebaluazioko liburuxkak brailera itzultzea
  - Letraren tamaina handitzea
- *Entzumen-urritasuna duten ikasleak.* Proban erabiltzen den komunikazio-sistemaren arabera, beharrezkoa izan daiteke:
  - Zeinuen hizkuntzaren itzultzailea
  - Maiztasun Modulatu
- *Mugitzeko gaitasun eza duten ikasleak.* Ezgaitasun motaren arabera beharrezkoa izan daiteke:
  - Ordenagailua edo beste tresna tekniko bat probetako erantzunak eman ahal izateko.

Mota horretako beharrak dituzten eta proban parte hartu duten ikasleak ez dira sartu ikastaldeko batez besteko puntuazioan. Egindako egokitzapenek parte hartzea erraztu duten arren, ezin da bermatu ikasle horien baldintzak eta gainontzeko ikasleentzako parekagarriak izatea, eta, beraz, ezinezkoa da emaitzak erkatzea.

### 2. Arloko Curriculum Egokitzapen Indibidual (CEI) esanguratsua duten ikasleak.

Ikasle horiek gainontzeko ikasleen baldintza berdinetan egin ahal izan dute irakasmilako proba. Proban parte hartzeko erabakia ikastetxearena izan da; hala ere, CEIaren arloari dagozkion konpetentzietan lortu duten puntuazioa ez da kontuan izan ikastaldeko batez bestekorako.

### 3. CEI esanguratsu orokorra duten eta gela arruntetan eskolatuta dauden ikasleak.

CEI orokorrarekin ikasten duten ikasleek, hots, arlo guztiak hezkuntza premia bereziak dituen ikaslearen mailara egokituta daudenean, ez dute ebaluazioa egin ikastetxeak kontrakoa erabakitzen ez bazuen. Eta arrazoia ximplea da: Proba estandarizatu bat ezin da egoki moldatu ikasle horien ikasketak ebaluatzeko. Jokabide bera jarraitu da CEI esanguratsu orokorra duten eta gela egonkorretan dauden ikasleekin.

Laburbilduz, aipatutako multzo horietako ikasle guztiek probak egin ahal izan dituzte ikastetxeko ikasleek hartutako erabakiaren arabera, irakasleek ondo ezagutzen baitituzte bakoitzaren arazoak. CEIren arloetako puntuazioak ez dira kontuan hartu ikastaldeko eta ikastetxeko batez bestekoetarako, curriculumera sartzeko egokitzapenen kasuetan bezala.

#### Erabilitako baliabideak

Curriculumera sartzeko egokitzapena edo arloko CEIa duten ikasleek proban parte ahal izateko erabili diren giza eta antolamendu baliabideak honako hauek izan dira:

- Itsuen Baliabidetegia (IBT).
- Ikasle gorrentzako lurraldeko aholkularitza.
- Aipatutako ikasleak eskolatuta dauden ikastetxeetako giza baliabideak eta baliabide materialak: laguntzaileak, aholkulariak, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak, zeinuen hizkuntzako irakasleak, Maiztasun Modulatuak...

Beraz, jarraian deskribatzen diren ikasleek hezkuntza premia bereziak dituzte eta curriculumera sartzeko egokitzapena edo Curriculum Egokitzapen Indibiduala (CEI) (arlo batekoa edo batzuetakoa) dute beren curriculumean. Gainera, ikastetxeak erabaki zuen ikasle horiek kasu bakoitzean behar zituzten sarbide-baliabideekin (letra handitzea ikusmen urriko ikasleentzat edo Brailera transkripzioak) ebaluazioan parte har zezaten. CEI orokorra duten ikasleak, hots, arlo guztiak beren hezkuntza premia berezietara egokituta dituzten ikasleak, ez dira ondorengo datuetan sartu.

Ondoren aurkezten diren datuak arestian aipatu diren CEI motetako batekin DBHko 2. maila ikasten duten eta Ebaluazio Diagnostikoan parte hartu duten ikasleei buruzkoak dira.

#### ➤ Curriculumera sartzeko egokitzapena edo arloko CEIa duten ikasleak.

Ebaluazio Diagnostikoan parte hartu duten eta curriculumera sartzeko egokitzapen edo arloko CEIa duten DBH 2ko ikasleak 184 izan dira, irakasmilako horretako ikasle guztien % 1 inguru. Ikasle horien artean % 63 (116 ikasle) sare publikoko ikastetxeetan eskolaturik daude, eta % 37 (68 ikasle) itunpeko sareko ikastetxeetan.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako datuekin konparaturik, DBHko 2. mailan mota bateko edo besteko CEIarekin ikasten duten ikasleen kopurua handiagoa da. Eta hori logikoa da, ikasteko arazoak dituzten ikasleen beharrak eskolatzea aurrera joan ahala hobeto defini baitaitezke; ikasteko arazo horiek Lehen Hezkuntzan agian banakako laguntzarekin hobe zitezkeen, baina ondorengo etapetan curriculumaren egokitzapena ezinbestekoa izan daiteke.



➤ **CEIa duten ikasleen banaketa geruzen eta irakastereduen arabera.**

Curriculumera sartzeko egokitzapen edo arloko CEIa duten eta ebaluazioan parte hartu duten ikasleen banaketa geruzen arabera ondorengo tauletan azaltzen da:

**Curriculumera sartzeko egokitzapen edo arloko CEIa duten eta parte hartu duten ikasleen eskolatzea geruzen arabera. DBH 2**

A publikoa		B publikoa		D publikoa		Itunpeko A		Itunpeko B		Itunpeko D	
K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
29	15,8	21	11,4	66	35,9	27	14,7	26	14,1	15	8,2
Ikastetxe publikoetan guztira: 116						Itunpeko ikastetxeetan guztira: 68					
CEIa duten ikasleak guztira: 184											

DBH 2ko ikasle guztiak aintzat hartzen baditugu, CEIa duten ikasleak ondorengo taulan azaltzen den bezala banaturik daude geruzan bakoitzean:

**Curriculumera sartzeko egokitzapena edo arloko CEIa duten eta ebaluazioan parte hartu duten ikasleen banaketa geruzen arabera ehunekoetan.**

	Ikasle kopuru orokorra	Egokitzapena edo CEIa duten ikasleak	Egokitzapena edo CEIa duten ikasleak
	K	K	%
<b>A publikoa</b>	610	29	4,75%
<b>B publikoa</b>	842	21	2,49%
<b>D publikoa</b>	5.788	66	1,14%
<b>Itunpeko A</b>	1.877	27	1,43%
<b>Itunpeko B</b>	3.647	26	0,71%
<b>Itunpeko D</b>	3.424	15	0,43%
<b>Guztira</b>	<b>16.188</b>	<b>184</b>	<b>1,13%</b>

Datuetatik atera daitekeenez, curriculumera sartzeko egokitzapena edo arloko CEIa duten eta ebaluazioan parte hartu duten ikasleen ehunekorik handiena A eredu publikoaren geruzan dago, eta ondoren B publikoan. CEIa duten ikasleen ehunekorik txikiena itunpeko D eta B ereduetan dago.

➤ **Curriculumera sartzeko egokitzapena edo arloko CEIa duten ikasleak sexuaren eta jaioturtearen arabera.**

Curriculumera sartzeko egokitzapena edo arloko CEIa duten eta 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan parte hartu duten ikasleen artean mutilen ehunekoa 15 puntu handiagoa da nesken ehunekoa baino.

**CEIa duten ikasleak sexuaren arabera. DBH 2.**

Mutilak		Neskak	
K	%	K	%
86	57,3	64	42,7

Ikaslearen jaioturtearen analisiaren bidez jakin dezakegu ikasleak irakasmilarekiko adin egokia duen, irakasmilaren bat errepikatu duen edo, zenbait kasutan, berandu eskolatu den. CEIa duten ikasleen jaioturteei buruzko datuak honako taula honetan aurkezten dira:

## CEIa duten ikasleen jaioturtea. DBH 2.

	K	%
Jaioturtea 1995 (adin egokia)	26	14,1
Jaioturtea 1994	68	37,0
Jaioturtea 1993	56	30,4

CEIa duten ikasleen % 14k adinagatik dagokion irakasmilla ikasten du. % 67k irakasmilla bateko edo biko atzerapena dute ikasketetan.

➤ **CEIa duten eta kompetentziatiko batez besteko puntuazioan sartuta dauden ikasleak**

Hurrengo tauletan curriculumera sartzeko egokitzapena edo CEIa duten eta ebaluatutako kompetentzia bakoitzean parte hartu zuten ikasleen kopurua eta ehunekoa adierazten dira.

## CEIa duten eta kompetentziatiko batez besteko puntuazioan sartuta dauden ikasleak. DBH 2.

	Sartutakoak		Sartu gabeak	
	K	%	K	%
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	53	28,8	131	71,2
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	60	32,6	124	67,4
Matematikarako kompetentzia	63	34,2	121	65,8
Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzia	116	63,0	68	37,0

DBH 2ko ikasleei buruzko datuek honako hau adierazten dute:

- Irakasmilla horretan CEIa duten ikasleen % 70 ez da sartu hizkuntza-komunikazioko bi kompetentziatiko puntuazioetan, ziur asko ikasle horiek CEIa hizkuntza-arloetan (euskaraz, gaztelanian edo bietan) dutelako.
- CEIa duten ikasleen % 65 ez da sartu *Matematikarako kompetentziako* puntuazioan, Lehen Hezkuntzan baino ehuneko handiagoa. Horrek adierazten du irakasmilla horretan Matematika arloan aurreko irakasmiletan baino maiztasun handiagoarekin behar direla curriculum egokitzapenak.
- Natur Zientziak dira curriculum egokitzapen gutxien behar dituen arloa (ikasleen % 37).

Ondorengo taulan 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan CEIa duten ikasleak zenbat kompetentziatiko puntuazioan sartuta dauden azaltzen da.

## CEIa duten ikasleak eta zenbat kompetentziatiko puntuazioan sartuta dauden. DBH 2.

Sartu gabeak		1ean sartutakoak		2tan sartutakoak		3tan sartutakoak		4etan sartutakoak	
K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
58	31,5	23	12,5	47	25,51	49	26,6	7	3,8

DBHko 2. mailan CEIa duten eta probak egin zituzten ikasleak % 31 dira; hala ere, ez dira sartu egin zituzten probei dagozkien kompetentziatiko puntuazioetan, ziur asko ikasle horiek curriculumera sartzeko egokitzapena zutelako (puntuazioan ez sartzea erabaki zen, curriculumera sartzeko egokitzapenak ez baitzuen bermatzen ikasle horiek proba baldintza berdinetan egitea).

Ikasle horien % 12 inguru kompetentzia bakar bateko puntuazioan sartuta dago. % 55 kompetentzia bitako edo gehiagotako puntuazioetan sartuta dago.

### 3. IKASTETXEARI LOTUTAKO FAKTOREAK ETA ALDAGAIK

Atal honetan konpetentzietako errendimenduari eta, aldi berean, ikastetxearen ezaugarriei lotutako faktoreak eta aldagaiak aztertzen dira, geruzetako bakoitzeko balio erantsiarekin batera.

Ikastetxeari dagozkion bi motatako faktore esplikagarriak bereizi dira:

- Hasieran, ikaslearen ikuspuntutik jadanik aztertu den indize bat –indize sozio-ekonomikoa eta kulturala- aztertu da, baina orain ikastetxearen ikuspuntutik. Ikastetxe bakoitzeko datuen batez bestekoa eta emaitzetan izan dezakeen eragina aztertu da.
- Bigarrenez, ikastetxearen ezaugarriei edo bere ingurune sozial eta soziolinguistikoari dagozkion zenbait aldagai aztertu dira: geruza, irakasteredua, hezkuntza sarea eta ingurune soziolinguistikoa.

Aldagai eta indize horietako batzuk, oinarrizko aldagaiak direnez, dagoeneko aztertu dira **Laburpen exekutiboan** eta **Emaitzen txosten orokorrean**; hala ere, beste zenbait berriak dira, eta, beraz, berariazko analisi bat aurkezten da txosten honetan.

Ikasleari eta familiari dagozkien faktoreen eta aldagaien kasuan bezala, indize batzuk elkarrekin lotutako galderen erantzunak bilduz finkatu dira –ikastetxeko ISEK indizea edo ikastetxearekiko jarrera kasu-, eta aldagai jarraituaren tankera hartzen dute. Gainontzeko faktoreak aldagai kategorikoak edo nominalak dira, balio kopuru mugatua har dezaketenak.

### 3.1. ABIAPUNTU-ALDAGAIK

#### 3.1.1. IKASTETXEKO MAILA SOZIO-EKONOMIKOA ETA KULTURALA

**Ikastetxeko ISEK indizeak, ikaslearen ISEK indizeak bezala, eragin nabarmena du ikastetxetako emaitzen arteko aldeetan; izan ere, indizearen eragina indargabetzen denean, puntuazioen arteko aldeak askotan ez dira adierazgarriak izaten.**

Ikasleek oinarrizko konpetentzien ikaskuntzan eta garapenean izaten dituzten lorpenei askotariko faktoreek, ikastetxe barrukoek zein kanpokoek, eragiten diete. Emaitzei eragiten dieten ikastetxetik kanpoko aldagaietako bat ikasleen egoera sozio-ekonomikoa eta kulturala da.

Indize horren eragina orain arteko ebaluazio eta ikerlan guztiek baieztatu dute. Oro har, emaitza akademikoa hobea izaten da ikasleen maila sozio-ekonomikoa eta kulturala igo ahala. Eta horregatik da garrantzitsua lortutako emaitzak aldagai horren eragina kontuan izanik baloratzea eta erkatzea.

Faktore horrek emaitzetan duen eragina mugatu ahal izateko, ebaluazioan parte hartu duten ikastetxe guztiak talde sozio-ekonomiko ezberdinetan sailkatu dira, hezkuntza-etapa bakoitzean ebaluatutako ikasleen ISEK indizea kontuan izanik.

ISEK indizea kalkulatzeko informazioa ikasleek galdera-sortan emandako erantzunetatik atera da. Familiari buruzko honako informazio honetatik kalkulatu da:

- gurasoen maila profesionala
- gurasoen ikasketa-mailarik altuena
- alde zuzenetik garrantzi handikotzat jo diren ondasun materialen eta kulturalen multzo bat edukitzea (etxean dauden liburuen kopurua, egunkaria eta aldizkari espezializatuak irakurtzea, ordenagailua eta Internetera sarbidea edukitzea).

Ikasle bakoitzaren datuetan oinarriturik, ikastetxe bakoitzeko ikasleen batez bestekoa kalkulatu da. Balio hori 0an zentratuta dago –Autonomia Erkidegoko batez bestekoa–, eta 1eko desbideratze tipikoa du. Populazio osoa 4 mailatan banatu da (*baxua*, *ertain baxua*, *ertain altua* eta *altua*) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera.


Kontutan izan behar da maila horiek ez direla absolutuak, konparagarriak baizik hezkuntza etapa bakoitzean ebaluatutako ikasleen populazioaren barruan. Hori dela eta, baliteke ikastetxe bat, ebaluatutako bi irakasmilak baldin baditu, irakasmila bakoitzean ISEK maila ezberdin batean egotea, datuak ebaluatutako irakasmilako ikasleei buruzkoak baitira, ez ikastetxe osoko ikasleei buruzkoak. Beraz, ikastetxeko ISEK indizea aipatzen denean, ebaluatutako ikastaldeetako ikasleen batez besteko ISEK indizea dela ulertu behar da.

2009ko Ebaluazio Diagnostikoan DBHko 2. mailako ikasleen lau ISEK mailen balioak honako hauek dira.

## DBH 2ko ikasleen ISEK indizearen balio-tarteak

ISEK maila	Gutxieneko balioa	Gehieneko balioa	Batez besteko balioa
Baxua	-1,84	-0,46	-0,76
Ertain baxua	-0,46	-0,13	-0,29
Ertain altua	-0,13	0,21	0,02
Altua	0,21	1,26	0,55

19. grafikoa: ED09-DBH 2: Indize socio-ekonomikoa eta kulturaren balioak (ISEK)



Ondorengo taulak DBHko ikastetxeetako ISEK indizearen batez besteko balioa erakusten du ebaluazioan kontuan izandako geruza bakoitzean.

Geruza	ISEK indizearen batez besteko balioa	
A publikoa	-0,68	Baxua
B publikoa	-0,35	Ertain baxua
D publikoa	-0,12	Ertain altua
Itunpeko A	0,24	Altua
Itunpeko B	0,08	Ertain altua
Itunpeko D	0,16	Ertain altua

### 3.1.2. EMAITZAK ETA ISEK INDIZEA GERUZEN ARABERA<sup>25</sup>

Lotura nabarmena dago ebaluazioan lortutako emaitzaren eta geruzetako maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren artean. Hori kompetentzia guztietan gertatzen da, **Euskarazko hizkuntza komunikaziorako kompetentzian** izan ezik, itunpeko A ereduko ikastetxeetan ikasleen ehuneko handi bat ISEK maila altukoa bada ere, emaitza apalak lortu baitituzte kompetentzia horretan.


Laburpen exekutiboan<sup>26</sup> ikastetxean lortutako emaitzaren eta maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren arteko lotura aipatzen zen. Ikastetxe mota, publikoa ala pribatua, eta irakasteredua batera aztertzean, ezberdintasun nabarmenak ikusi dira geruzetako emaitzetan ebaluatutako kompetentzietan, aurreko txostenetan azaltzen zen bezala<sup>27</sup>. Hala eta guztiz ere, geruzetako puntuazioen arteko aldeak aldatu egiten ziren geruza bakoitzeko ikasleen maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren eragina kontrolatzen zenean, hau da, geruza guztietako ISEK indizea berdina balitz emaitzak nolakoak izango liratekeen kalkulatu zenean.

ISEK indizearen aldagaia kontrolatzen zenean, hasierako emaitzen eta aldagai kontrolatu osteko emaitzen arteko aldaketak gertatzen zirela ikusten zen, zenbait kasutan geruzetako puntuazioen arteko aldeak desagertzen zirelarik. Ebaluatutako hiru kompetentziari dagozkien aldaketa horiek ondorengo grafikoetan erakusten dira:

*Euskarazko hizkuntza komunikaziorako kompetentzian* ez da analisi hori egin, geruzetako emaitzetan eraginik handiena duen aldagaia irakasteredua delako.

#### A. *Gaztelaniazko hizkuntza komunikaziorako kompetentzian lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko konparazioa.*

Ondorengo grafikoak geruza bakoitzean kompetentzia horretan lortutako batez besteko puntuazioa (zutabe urdina) erakusten du, eta, horrez gain, indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren eragina (ISEK) kontrolatuko balitz, hots, ikasle guztiek antzeko ISEK indizea izango balute, geruza bakoitzean lortuko litzatekeen batez besteko puntuazioa (zutabe laranja-kolora).



<sup>25</sup> Ebaluazio Diagnostikoa 2009. Emaitzen txosten orokorra. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila. DBH 2ko emaitzak eta geruzen ezaugarriak ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera. 82-89. orr. [www.isei.ivei.net](http://www.isei.ivei.net)

<sup>26</sup> Ebaluazio Diagnostikoa 2009. Laburpen exekutiboa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

<sup>27</sup> Ebaluazio Diagnostikoa 2009. Emaitzen txosten orokorra. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila. Emaitzak ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera. 32, 47, 63 eta 79. orr. [www.isei.ivei.net](http://www.isei.ivei.net)


Ikus daitekeenez, geruza publiko guztiek eta itunpeko D ereduaren geruzak puntuazioa handitzen dute ISEK indizearen eragina kontrolatzen denean, azken kasu horretan hein txikiagoan bada ere. Sei geruzetako bitan bakarrik –itunpeko A eta B ereduaren geruzetan- jaitsiko litzateke puntuazioa, itunpeko B ereduaren kasuan 7 punturaino.

Alde horien adierazgarritasuna aztertu ondoren, indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren eragina indargabetuko balitz, honako egoera hau gertatuko litzatekeela esan daiteke:

- Itunpeko hiru geruzen eta D eredu publikoaren artean ez litzateke alderik egongo.
- Era berean, A eta B eredu publikoaren geruzen artean ez litzateke alde adierazgarririk egongo, itunpeko sareko geruzekiko aldeak mantenduko liratekeen arren.
- Azkenik, B eredu publikoaren geruzako emaitzak D eredu publikoko emaitzekin eta itunpeko B ereduko emaitzekin berdinduko lirateke.

## B. Matematikarako kompetentzian lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko konparazioa

Ondorengo grafikoak geruza bakoitzean kompetentzia horretan lortutako batez besteko puntuazioa (zutabe urdina) erakusten du, eta, horrez gain, indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren eragina (ISEK) kontrolatuko balitz, hots, ikasle guztiek antzeko ISEK indizea izango balute, geruza bakoitzean lortuko litzatekeen batez besteko puntuazioa (zutabe laranja-kolorea).



Ikus daitekeenez, geruza publiko guztiek eta itunpeko A ereduaren geruzak puntuazioa handitzen dute ISEK indizearen eragina kontrolatzen denean. A eredu publikoan emaitzak 25 puntuz handituko lirateke, eta itunpeko B eta D ereduaren geruzetan, berriz, jaitsi egingo lirateke, 7 punturaino itunpeko D ereduaren kasuan.

Alde horien adierazgarritasuna aztertu ondoren, indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren eragina indargabetuko balitz, honako egoera hau gertatuko litzatekeela esan daiteke:


- Itunpeko hiru geruzen eta D eredu publikoaren artean ez litzateke alderik egongo.



- Era berean, A eta B eredu publikoen geruzen artean ez litzateke alde adierazgarriarik egongo, itunpeko sareko geruzekiko aldeak mantenduko liratekeen arren.
- Azkenik, B eredu publikoaren geruzako emaitzak D eredu publikoko emaitzekin berdinduko lirateke.

### C. Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzian lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko konparazioa.

Ondorengo grafikoak geruza bakoitzean kompetentzia horretan lortutako batez besteko puntuazioa (zutabe urdina) erakusten du, eta, horrez gain, indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren eragina (ISEK) kontrolatuko balitz, hots, ikasle guztiek antzeko ISEK indizea izango balute, geruza bakoitzean lortuko litzatekeen batez besteko puntuazioa (zutabe laranja-kolora).



Geruza publiko guztiek eta itunpeko B ereduaren geruzak puntuazioa handitzen dute ISEK indizearen eragina kontrolatzen denean. Gainontzeko itunpeko bi geruzetan –A eta D- puntuazioa jaitxi egingo litzateke, 12 punturaino itunpeko A ereduaren geruzaren kasuan.

Alde horien adierazgarritasuna aztertu ondoren, indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren eragina indargabetuko balitz, honako egoera hau gertatuko litzatekeela esan daiteke:

- Itunpeko hiru geruzen eta D eredu publikoaren artean ez litzateke alderik egongo.
- Era berean, A eta B eredu publikoen geruzen artean ez litzateke alde adierazgarriarik egongo, itunpeko sareko geruzekiko aldeak mantenduko liratekeen arren.
- Azkenik, B eredu publikoaren geruzako emaitzak D eredu publikoko emaitzekin eta itunpeko B eredukoekin berdinduko lirateke.

Laburbilduz, ISEK indizeak emaitzetan duen eragina indargabetu ondoren, bi talde sortzen dira hezkuntza-etapa horretan: alde batetik, itunpeko sareko geruza guztiak eta D eredu publikoaren geruza (sare publikoaren % 78,3 osatzen duena); beste aldetik, A eta B eredu publikoen geruzak. Talde bakoitzaren barneko geruzen artean ez dago alde adierazgarriarik, B ereduaren geruzak portaera berezia badu ere<sup>28</sup>

<sup>28</sup> Harrigarritzat har daitekeen zerbait gertatzen da: A eta B eredu publikoetako emaitzen artean 7 puntuko aldea dago, eta B eredu publikoko eta itunpeko B ereduko emaitzen artean alde berdina dago, 7 puntukoa. Hala ere, lehen kasuan aldea ez da adierazgarria eta bigarreanean adierazgarria da, honako arrazoi hauengatik:

- ISEK indizea kontrolatu osteko puntuazioen desbideratze tipikoak hasierako batez besteko puntuazioen desbideratze tipikoak baino apur bat handiagoak dira, hau da, ISEK indizearen eragina kontrolatu baino lehenagokoak, zutabe urdinez adierazten direnak. Desbideratzea handiagoa da ISEK indizea kontrolatzeko behar den kalkuluaren beraren eraginagatik, geruza bakoitzean aintzat hartu diren ikasleen kopuruagatik eta emaitzen barreiaduragatik.



#### D. *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako kompetentzian lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko konparazioa.*

Orain arte aztertutako hiru kompetentzietan ikusi den bezala, indize sozio-ekonomiko eta kulturalak (ISEK) eragin nabarmena izan ohi du ikasleen emaitzetan.

*Euskarazko hizkuntza komunikaziorako kompetentzian* harreman adierazgarria ikusten da ISEK mailaren eta errendimenduaren artean ISEK maila baxuan, ertain baxuan eta ertain altuan. Kasu horietan ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua hobea izan da eta aldeak adierazgarriak dira. Hala ere, harreman hori ez da gertatzen emaitzen eta ISEK maila altuaren artean, eta arrazoiak irakastereduen eragina da: itunpeko A ereduko ikasleen ehuneko handia ISEK maila altukoa da, eta, hala ere, kompetentziako emaitzak oso apalak dira (194 puntu).<sup>29</sup>

---

- Jarritako adibidean, hain zuzen ere, *Matematikarako kompetentzian* A eredu publikoaren geruzan 659 ikasle ebaluatu dira, itunpeko B ereduaren geruzan 3.608 ebaluatu direlarik. Alde horren ondorioz, geruza bakoitzeko emaitzak kalkulaterakoan izandako desbideratze tipikoa oso ezberdina izan da (desbideratzea logikoki askoz txikiagoa da itunpeko B ereduaren geruzan, ikasle kopurua A eredu publikoaren geruzakoa baino askoz handiagoa delako). Egiten den konparazioa hirugarren geruza berarekikoa denez (B publikoa), B eredu publikoko eta itunpeko B ereduko emaitzen arteko aldea estatistikoki adierazgarria dela esan ahal izateko, batez besteko puntuazioen arteko distantzia laburragoa behar izango da B eredu publikoaren eta itunpeko B ereduaren arteko konparazioan esan ahal izateko baino. Euskararen B2 mailaren ebaluazioa. DBH 4 (2004). 59. or. eta ondorengoak. ISEI-IVEI (2005). Euskararen B1 maila Lehen Hezkuntzan (2006). [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

<sup>29</sup> Ebaluazio Diagnostikoa 2009. Emaitzen txosten orokorra. DBH 2. 26. or. eta ondorengoak. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

### 3.1.3. IKASTETXEEN INGURUNE SOZIOLINGUISTIKOA

**Euskarazko hizkuntza komunikaziorako kompetentziako puntuazioak altuagoak dira ingurunekeo biztanlerian euskaldunen ehuneko handitu ahala. DBH 2ko ikasleen % 64 inguru 2. maila soziolinguistikoa dauden herrietan bizi dira, hots, biztanle euskaldunak % 20tik % 50era bitartean direneko herrietan.**

Aurretik egindako zenbait ikerlanek erakutsi dute ikastetxearen ingurune soziolinguistikoa zer nolako eragina izan dezakeen ikasleen euskara maila neurtzean lortutako emaitzetan<sup>30</sup>. Ebaluazio haietan egiaztatu zen ikastetxearen gizarte-ingurunean zenbat eta biztanleen ehuneko handiagoak euskara jakin, euskarako emaitzak hobeak izaten direla.

Horrekin batera egiaztatu zen eragina are handiagoa izaten dela, bai ikastetxearen ingurunean baita ikasleak bizi direneko gune soziolinguistikoa ere biztanleen ehuneko altua euskalduna denean.

Ebaluazio Diagnostikoa berriro aztertu nahi da noraino erlazionatzen diren ikastetxeen ezaugarri soziolinguistikoa, hau da, guneetan biztanle euskaldun gehiago ala gutxiago egotea, DBH 2ko ikasleek *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako kompetentzia* lortu dituzten emaitzekin.

Aldagaia aztertzeko lau gune edo esparru linguistiko finkatu dira, bertan bizi diren pertsona euskaldunen kopuruaren arabera<sup>31</sup>. *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako kompetentziako* proban parte hartu duten DBH 2ko ikasle guztiak lau multzotan banatu dira, bakoitzaren ikastetxearen ingurunean euskara dakiten biztanleen kopurua kontuan izanik. Ikasleen parte handi baten kasuan, batez ere sare publikoko ikastetxeetan ikasten dutenen kasuan, ikastetxearen ingurunea familiaren etxearen ingurune bera izango da.


Egindako multzoak –4 gune edo esparru linguistikoei dagozkienak– honela definitu dira:

- Lehenengo gunea: biztanle euskaldunen ehunekorik txikiena duten aldeak (biztanleen % 20 baino gutxiago). “1 maila”ko multzoa deitzen zaio.
- Bigarren gunea: biztanle guztien % 20tik 50era bitartean euskaldunak dira. “2 maila”ko multzoa deitzen zaio
- Hirugarren gunea: biztanle guztien % 50etik 80ra bitartean euskaldunak dira. “3 maila”ko multzoa deitzen zaio
- Laugarren gunea: biztanle guztien % 80 bano gehiago euskaldunak dira. “4 maila”ko multzoa deitzen zaio.

<sup>30</sup> Euskararen B1 mailaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzan (2006). ([www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net))

<sup>31</sup> Gune linguistikoak definitzeko kontuan hartu den informazioa iturri hauetatik dator: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak argitaratutako IV Inkesta Soziolinguistikoa 2006 (2008) ([www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net)) eta Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzuan argitaratutako IV Mapa Soziolinguistikoa 2006 (Vitoria-Gasteiz, 2009).

## Euskal Autonomia Erkidegoko IV Mapa Soziolinguistikoa 2006.



Jarraian *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako kompetentziako* puntuazioan sartu diren DBH 2ko ikasleen banaketa azaltzen da aipatutako lau gune linguistikoetan..

**Ikasleen banaketa gune soziolinguistikoetan ikastetxeen kokagunearen arabera.**

Euskara maila	Ikasleak gunean		Biztanle euskaldunak (%)	Ikastetxeak gunean	
	K	%		K	%
1. gunea	1.483	9,73	% 20 baino gutxiago	35	10,45
2. gunea	9.667	63,41	% 20 - % 50	203	60,60
3. gunea	3.645	23,91	% 50 - % 80	83	24,78
4. gunea	450	2,95	% 80 baino gehiago	14	4,18

K letrak *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako kompetentziako* probako puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua adierazten du; beraz, ez du zertan etorri behar aurreko tauletako K letrarekin bat.

DBH 2ko ikasleen ehunekorik handiena (% 63,41) 2. gune soziolinguistikoan dauden herrietan biltzen da, hau da, biztanleen % 20tik % 50era bitartean euskaldunak direneko herrietan; ikasleen % 24 inguru 3 mailako gunean eskolaturik dago, hots, biztanleen % 50etik % 80ra bitartean euskaldunak direneko herrietan.

Ikasleen % 27 inguru biztanleriaren % 50ek baino gehiagok euskaraz hitz egiten dueneko gune soziolinguistikoetan (3. eta 4. guneetan) eskolaturik dago; gune horietan ikastetxeen % 29 kokatzen da.

### **Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentziako emaitzak gune soziolinguistikoaren arabera**

Ondoren, ikastetxea gune soziolinguistiko batean edo beste batean egoteak *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentziako* emaitzei eragiten ote dien aztertzen da. Proba horretan DBH 2ko 15.245 ikaslek hartu dute parte.

#### **Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentziako emaitzak gune soziolinguistikoaren arabera**


	K*	Batez bestekoa
1. gunea	1.483	235
2. gunea	9.667	247
3. gunea	3.645	263
4. gunea	450	267

K letrak *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentziako* probako puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua adierazten du; beraz, ez du zertan bat etorri behar aurreko tauletako K-rekin .

Ikus daitekeenez, biztanleen artean euskaldunak zenbat eta ehuneko handiagoa izan, *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentziako* puntuazioak handiagoak izan dira. 1 mailako gune soziolinguistikoetako ikastetxeetako ikasleak ez dira 250 puntuko batez bestekora heldu. 2 mailako gune soziolinguistikoetako ikastetxeetan puntuazioa (247) ia-ia batez bestekoa dago. 3 eta 4 mailako gune soziolinguistikoetako ikastetxeek, euskaldunak biztanleen ehuneko handiagoa direnekoetakoek, batez besteko puntuazioa aise gainditu dute.

*Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentziako* emaitzen arteko aldeak ikastetxeak kokatuta daudeneko gune soziolinguistikoaren arabera estatistikoki adierazgarriak dira, 3. eta 4. guneetan izan ezik. Muturretako mailako puntuazioen arteko aldea 32 puntukoa izan da.

**23. grafikoa: ED09-DBH 2: Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentziako emaitzak eta ikastetxearen gune soziolinguistikoa**



Emaitza horien arabera, badirudi ingurune soziolinguistikoak lagundu egiten diola euskara ikasteari, baina, bistan denez, ez da eragiten dion faktore bakarra. Ingurunean euskara dakiten pertsonak zenbat eta gehiago izan, *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentzian* puntuazio hobea lortu dute.

Datu horiek interpretatzen laguntzeko garrantzitsua litzateke hurrengo hau kontuan izatea: 4. gune soziolinguistikoan euskara ikasleen % 67ren etxeko hizkuntza da, eta 3. gune soziolinguistikoan ikasleen % 39rena.

#### Ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera gune soziolinguistiko bakoitzean

	Euskara		Gaztelania		Beste hizkuntza bat	
	K	%	K	%	K	%
1. gunea	11	0,74	1.442	97,24	17	1,15
2. gunea	668	6,91	8.808	91,11	124	1,28
3. gunea	1.421	38,98	2.138	58,66	62	1,70
4. gunea	301	66,89	139	30,89	8	1,78
Guztira	<b>2.401</b>	<b>15,75</b>	<b>12.527</b>	<b>82,17</b>	<b>211</b>	<b>1,38</b>

#### Gune soziolinguistikoetako emaitzak irakastereduen arabera

DBH 2ko ikasleen ikastetxeetako irakastereduak eta ikastetxeen gune soziolinguistikoaren ezaugarriak aztertzen baditugu, honako hau ikus daiteke:

#### *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentziako emaitzak gune soziolinguistikoaren eta irakastereduen arabera*

	1. gunea		2. gunea		3. gunea		4. gunea	
	K	Batez bestekoa	K	Batez bestekoa	K	Batez bestekoa	K	Batez bestekoa
A eredia	322	<b>174</b>	1.825	<b>191</b>	---	---	---	---
B eredia	544	<b>245</b>	3.341	<b>252</b>	421	<b>253</b>	20 <sup>32</sup>	<b>275</b>
D eredia	617	<b>257</b>	4.501	<b>266</b>	3.224	<b>264</b>	<b>430</b>	<b>266</b>
Guztira	1.483		9.667		3.645		<b>450</b>	


3. eta 4. gune soziolinguistikoetan ez dago A ereduko ikastetxerik. *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentziako* emaitzak A eredian hobea dira 2. gune soziolinguistikoan, baina Autonomia Erkidegoko 250 puntuko batezbestekoa baino askoz apalagoak.

B eredian aurretiaz aipatutako datu orokorretan ikusten zen progresioa gertatzen da, hots, ingurune biztanle euskaldunen kopurua zenbat eta handiagoa izan, emaitzak hobea dira, nahiz eta 2. eta 3. gune soziolinguistikoetako emaitzen artean ia-ia alderik ez egon.

Hala eta guztiz ere, D ereduko emaitzen analitik ezin da ondorio bera atera, zeren, biztanle euskaldunen ehunekorik txikiena duen gune soziolinguistikoan (1 maila) izan ezik, DBH 2ko ikasleek *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentzian* lortutako puntuazioen artean ez baitago ia-ia alderik. Dirudenez, 1. gune soziolinguistikoan inguruneak ez litzateke ikasleak hainbeste akuilatuko euskara erabiltzera, eta, gainera, ikasle gehienek etxeko hizkuntza gaztelania litzateke. Gainontzeko guneetan ingurunearen eragina txikiagoa dela pentsa daiteke, edo ikastetxeari edo familiari dagozkion beste faktore batzuek orekatzen dutela.

<sup>32</sup> Itunpeko B ereduko 20 ikasle horiek batez beste 275 puntu lortu dituzte eta beren ikastaldean ikasleen % 75en etxeko hizkuntza euskara da. Lagina ez da aski handia emaitzen fidagarritasuna bermatzeko

**24. grafikoa: ED09-DBH 2: Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentziako emaitzak gune soziolinguistikoaren eta irakastereduaren arabera**



### Konpetentzia guztietako emaitzak gune soziolinguistikoaren arabera

Ebaluatutako konpetentzia guztietako emaitzak kasuan ikastetxearen gune soziolinguistikoaren arabera konparatzen baditugu, ikastetxearen ingurunean zenbat eta biztanle euskaldun gehiago egon, *Gaztelaniazko hizkuntza komunikaziorako konpetentziako* batez besteko puntuazioa jaitsi egiten dela ikus daiteke.


*Matematikarako konpetentzian* ez dago ia ezberdintasunik 2., 3. eta 4. gune soziolinguistikoetako ikasleek lortutako puntuazioen artean. Puntuazioak Erkidegoko batez bestekoaren inguruan daude.

*Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentziako* emaitzetan jaitsiera txiki bat ikusten da 1. eta 3. guneetan (247 eta 249), eta 2. eta 4. guneetako batez bestekoak berdina dira (251).

**Ebaluatutako konpetentzietako puntuazioak eta ikastetxeen ingurune soziolinguistikoa**

	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Matematikarako konpetentzia	Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzia
1. gunea	235	251	242	247
2. gunea	247	254	250	251
3. gunea	263	241	252	249
4. gunea	267	239	251	251

25. grafikoa: ED09-DBH 2: Ebaluatutako kompetentziako emaitzak ikastetxeen gune soziolinguistikoaren arabera



Aurreko taulan eta grafikoan ikus daitekeenez, alderantzizko erlazioa dago Hizkuntza komunikaziorako bi kompetentziako emaitzen eta ikastetxeen gune soziolinguistikoaren arabera: gunean biztanle euskaldunak zenbat eta ehuneko handiagoa izan, *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako kompetentziako* emaitzak hobeagoak izan dira, eta *Gaztelaniazko hizkuntza komunikaziorako kompetentziako* emaitzak apalagoak, eta alderantziz.

### 3.2. IKASTETXEARI LOTUTAKO PROZESU-ALDAGAIK

Lehen aipatu den bezala, txosten honen helbururik behinena ikasterakoan azaleratzen diren ikasleen ezaugarri pertsonal edo kolektibo batzuk aztertzea da. Horretarako, aldagaiak banan-banan aztertzeaz gain, batzuk multzokatu egin dira indizeak finkatzeko, haien portaera eta emaitzetan duten eragina batera aztertu ahal izateko asmoz. Indizeak finkatzeko informazio garrantzitsua eskaintzen duten aldagaiak bakarrik multzokatu dira.

Finkatutako indize bakoitzerako, 0 puntuko batez bestekoa eta 1 puntuko desbideratze tipikoa finkatu dira. Balio positiboek adierazten dute ikasleek indize horretan batez bestekoa baino balio handiagoa erakusten dutela; balio negatiboek, berriz, ikasleek indize horretan batez bestekoa baino balio txikiagoa erakusten dutela.

Jarraian aurkezten den indizean, eta indize bakoitzaren eta ebaluatutako konpetentzietako emaitzen artean dagoen erlazioa erakusteari begira, ikasleak lau multzotan banatu dira indize bakoitzean duten puntuazioaren arabera. Lau multzo (kuartilak) finkatu dira, bakoitzean gutxi gora behera ikasleen % 25 dagoelarik. Beheko kuartilak puntuaziorik apalena dutenak biltzen ditu, 2. eta 3. kuartilek erdi mailako puntuazioak dituztenak biltzen ditu, eta goiko kuartilak indize bakoitzean puntuaziorik altuenak dituztenak biltzen ditu. Horrekin batera, multzo bakoitzak konpetentzietan lortu duen batez besteko puntuazioa ere adierazten da, horrela indizearen balioaren arabera konparazioak egin daitezkeelarik.



### 3.2.1. IKASLEAK IKASTETXEAREKIKO DUEN JARRERAREN INDIZEA

**DBH 2ko ikasleek ikastetxearekiko zenbat eta jarrera hobea izan, emaitza hobea lortu dituzte konpetentzia guztietan.**

Indizearen xedea DBH 2ko ikasleek beren ikastetxearekiko duten jarrera orokorra ezagutzea eta, baita ere, jarrerak emaitzetan eraginik ote duen ezagutzea. Indizea finkatzeko galdera-sortako baieztapen hauek erabili dira:

- *Nire ikastetxea ona da*
- *Oro har, ikastetxera gustura etortzen naiz*
- *Eskoletan egiten dudana lan gogokoa dut*
- *Klasean parte hartzea gogokoa dut*
- *Ikaskideekin lan egitea gogokoa dut*

Erantzun posibleak lau multzotan banatzen ziren erakutsitako adostasun mailaren arabera: *ez nago ados, ez nago oso ados, nahiko ados nago eta oso ados nago*.

Kontuan izan behar da ehunekoak ikasleek item bakoitzean emandako baliozko erantzunetatik atera direla.

DBH 2ko ikasleen % 66k esan du ikastetxera joatea ez zaiola gustatzen edo ez zaiola batere gustatzen, ikastetxe ona dela pentsatzen duten arren. Badirudi jarrera hori, hein batean, klaseetan egiten duten lanarekiko atsegirik ezarekin lotu daitekeela, % 61,1ek ez baitu gogoko klaseetako lana. Hala ere, klasean parte hartzeko (% 63) eta ikaskideekin lan egiteko (% 80) interesaren inguruko galderetan erantzun positiboak eman dituzte.

**Ikasleek ikastetxearekiko duten jarreraren indizea eta erantzunen ehunekoak**

	<i>“Ez nago ados” eta “Ez nago oso ados”</i>	<i>“Nahiko ados nago” eta “Oso ados nago”</i>
<b>Nire ikastetxea ona da</b>	35,7%	64,3%
<b>Oro har, ikastetxera gustura etortzen naiz</b>	66,3%	33,7%
<b>Eskoletan egiten dudana lan gogokoa dut</b>	61,1%	38,8%
<b>Klasean parte hartzea gogokoa dut</b>	37%	63,1%
<b>Ikaskideekin lan egitea gogokoa dut</b>	19,7%	80,2%

Hurrengo taulak ikasleek indizean dituzten balioak, indizea 4 multzo edo kuartiletan banaturik.

**Ikastetxearekiko jarreraren indizea. Indizearen batez besteko balioa kuartilen arabera**

	Indizearen batez besteko balioa	D.T.
1. kuartila	-1,29	0,008
2. kuartila	-0,29	0,003
3. kuartila	0,35	0,003
4. kuartila	1,25	0,007

Jarraian indizeak konpetentzietako bakoitzeko emaitzekin duen erlazioa azaltzen da. 1. kuartilean ikastetxearekiko jarrerarik negatiboa duten ikasleak egongo lirarteke, eta beste muturrean, 4. kuartilean, ikastetxearekiko jarrerarik positiboena duten ikasleak (% 25) egongo lirarteke.


## Ikastetxearekiko jarreraren indizea eta kompetentzia bakoitzeko batez besteko puntuazioa

	Euskarazko hizkuntza-kom		Gaztelaniazko hizkuntza-kom.		Matematikarako kompetentzia		Zientzia, teknologia eta osasun-kultura	
	Batez bestekoa	D.T.	Batez bestekoa	D.T.	Batez bestekoa	D.T.	Batez bestekoa	D.T.
1. kuartila	243	0,81	242	0,80	243	0,80	240	0,80
2. kuartila	252	0,79	251	0,79	251	0,81	251	0,77
3. kuartila	253	0,81	254	0,79	254	0,80	255	0,79
4. kuartila	255	0,84	256	0,83	255	0,82	258	0,79

Ikus daitekeenez, ikasleek ikastetxearekiko duten jarrera positiboak edo ez hain positiboak erlazio zuzena du ebaluatutako kompetentzia guztietako emaitzekin. Izan ere, 1. kuartilean dauden ikasleak bakarrik, hots, indizean oso balio apala dutenak (% 25), ez dira heldu 250 puntuko batez bestekora inongo kompetentzian.

Gainontzeko kasu guztietan, indizearen balioa igo ahala, emaitzak ere igotzen dira. Ikus, esate baterako, *Matematikarako kompetentziako* puntuazioak: 12 puntuko aldea dago ikastetxearekiko jarrerarik negatiboena eta positiboena duten ikasleen puntuazioen artean. 2. kuartilean puntuazioa 8 puntuz igotzen da eta 3. kuartilean, 11 puntuz.

26. grafikoa: ED09-DBH 2: Kompetentzietako emaitzak indizearen kuartilen arabera: ikastetxearekiko jarrera



### 3.2.2. DBH 2ko IKASLEEN IKASGELAKO KALIFIKAZIOAK MATEMATIKA ARLOAN

**Erlazio positiboa ikusten da ikasgelako kalifikazioen eta *Matematikarako kompetentziako* emaitzen artean.**

**Hala ere, ikaslea eskolatuta dagoeneko ikastaldearen mailak eragina izaten du ikasleak ikasgelan ateratzen dituen notetan, irakasleek ikastaldeko ikasleen arteko barreiadura murrizteko joera izaten baitute, eta ebaluazio-irizpideak ikastaldeari egozten dioten batez besteko mailara moldatzen baitituzte.**

Atal honen helburua DBH 2ko ikasleek 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan lortutako emaitzak ikasle horiek ebaluatutako kompetentziekin lotutako arloetan (Euskara, Gaztelania, Matematika eta Natur Zientziak) aurreko ikasturtean, beren esanetan, atera zituzten bukaerako notekin erlazionatzea da.

Analisiaren xedea ikasleek ikastetxeetako ohiko ebaluazioetan izaten duten errendimenduak kanpoko ebaluazioetan izaten dutenarekin loturarik ote duen argitzea da, gure kasuan 2009ko Ebaluazio Diagnostikoko kompetentzietan izandako errendimenduarekin.

Analisian ikasleek Matematika arloan ateratako notak eta *Matematikarako kompetentzian* lortutako emaitzak hartu dira kontuan. DBH 2ko ikasleen kasuan arloak nota batekin (0tik 10era) kalifikatzen dira. Analisia argigarriagoa egiteko, eta emaitzak Lehen Hezkuntzakoekin konparagarriak izateko asmoz, kalifikazioak multzoetan banatu dira:

Zenbakizko kalifikazioa	Kalifikazio orokorra
0-4 puntu	Gutxi
5 puntu	Nahiko
6 puntu	Ongi
7 eta 8 puntu	Oso ongi
9 eta 10 puntu	Bikain


Hurrengo taulan ikasleek aurreko ikasturtean Matematika arloan atera zituzten bukaerako notak azaltzen dira, ikasleen ehunekoetan.

**DBH 2ko ikasleen kalifikazioak Matematika arloan ehunekoetan**

Kalifikazioa	%
Gutxi	11,68
Nahiko	17,87
Ongi	16,70
Oso ongi	35,39
Bikain	18,35

Irakasmaila horretako ikasleen erdiak gutxi gora behera (% 53,74) dio arlo horretan *Oso Ongi* eta *Bikaineko* puntuazioak lortu zituela. *Gutxi* kalifikazioa atera zutela diotenak % 12 inguru dira. *Nahiko* edo *Ongi* kalifikazioa atera zutela diotenak, % 35 inguru.

**27. grafikoa: ED09-DBH 2: Ikasleen ehunekoak Matematika arloan izandako kalifikazioaren arabera**



### Matematika arloko notak geruzen arabera (ikastetxe mota eta irakasteredua)

Hurrengo taulan ikasleek aurreko ikasturtean Matematika arloan lortu zituzten kalifikazioen azterketa zehatza aurkezten da geruzen arabera.


**DBH 2ko ikasleen kalifikazioak Matematika arloan. Ehunekoak geruzen arabera.**

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	Itunpeko B	Itunpeko D	Batez best. (%)
<b>Gutxi</b>	27,94	14,45	14,32	14,32	11,33	7,08	11,68
<b>Nahiko</b>	18,52	21,11	20,34	20,34	17,70	16,32	17,87
<b>Ongi</b>	13,97	17,34	18,11	18,11	17,47	15,95	16,70
<b>Oso ongi</b>	26,43	29,14	34,06	32,43	35,51	38,94	35,39
<b>Bikain</b>	13,13	17,96	14,81	14,81	17,99	21,71	18,35

Geruza bakoitzeko ikasleen ehunekoak kalifikazio bakoitzeko batez besteko ehunekoekin konparatzen badira, ondorio hauek atera daitezke:

- Hiru geruza publikoetan eta itunpeko A ereduaren geruzan *Gutxi* kalifikazioa lortu zuten ikasleen kopurua ehunekoetan batez bestekoa baino handiagoa da. A eredu publikoan zehazki batez bestekoa baino 16 puntu handiagoa da; B eta D publikoan eta itunpeko A ereduaren 3 puntu handiagoa da. Itunpeko B eta D ereduaren geruzetan arloa gainditu ez zuten ikasleak ehunekoetan gutxiago dira.
- Hiru eredu publikoek, itunpeko A ereduarekin batera, *Nahiko* kalifikazioari dagokion batez bestekoa gutxiatik gainditu zuten.
- Itunpeko A eta B ereduak eta D eredu publikoak *Ongi* kalifikazioari dagokion batez bestekoa gutxiatik gainditu zuten.
- Itunpeko D ereduaren Matematika arloan *Oso Ongi* kalifikazioa atera zuten ikasleen ehunekoak batez bestekoa baino 3 puntu handiagoa da. Itunpeko B ereduaren eta D eredu publikoan *Oso Ongi* kalifikazioa atera zuten ikasleen ehunekoak batez bestekoan dago.
- Itunpeko D ereduak bakarrik gainditu zuen 3 puntuz Matematika arloan *Bikain* kalifikazioari dagokion batez besteko ehunekoak. Itunpeko B ereduaren eta B eredu publikoaren batez bestekoan daude.
- Itunpeko B ereduko kalifikazio guztiak batez besteko orokorretik oso hurbil daude.

28.grafikoa: ED09-DBH 2:Ikasleen ehunekoa Matematika arloko kalifikazioaren arabera eta geruzen arabera



### Ikasgelako kalifikazioen eta Ebaluazio Diagnostikoan lortutako emaitzen arteko korrelazioa.

Ikasleek ebaluazioaren aurreko ikasturtean lortutako kalifikazioetan oinarriturik, Matematika arloko kalifikazioen eta Ebaluazio Diagnostikoan *Matematikarako kompetentzian* lortutako emaitzen artean erlaziorik ba ote dagoen aztertu da.

Hurrengo taulak erakusten du ikasleek Ebaluazio Diagnostikoan lortuko luketen batez besteko puntuazioa Matematika arloko ikasgelako kalifikazioaren arabera.

Ikasgelako kalifikazioa	Matematikarako kompetentziako puntuazioa	Ikasleen %
Gutxi	210	11,7%
Nahiko	225	17,8%
Ongi	239	16,7%
Oso ongi	262	35,4%
Bikain	292	18,3%

Korrelazio positiboa ikusten da Matematika arloko ikasgelako kalifikazioen eta DBH 2ko ikasleek 2009ko Ebaluazio Diagnostikoko *Matematikarako kompetentzian* lortutako puntuazioen artean. Ikasgelako kalifikazioa zenbat eta hobea izan, puntuazio altuagoa lortu dute ebaluazioan. Hain zuzen ere, *Oso Ongi* eta *Bikain* kalifikazioa lortu zuten ikasleek bakarrik (ikasleen % 54) gainditu dute ebaluazioko 250 puntuko batez bestekoa.

Aurreko ikasturtean Matematika arloan *Ongi* kalifikazioa lortu zuten ikasleek Ebaluazio Diagnostikoan 239 puntu lortu zituzten, *Nahiko* kalifikazioa izan zutela dioten ikasleen 225 puntuen gainetik eta *Gutxi* kalifikazioa izan zutela diotenen 210 puntuen gainetik.

## Ikasgelako kalifikazioen eta Ebaluazio Diagnostikoan lortutako emaitzen arteko erlazioa geruzen arabera.


Ikasgelako kalifikazioen eta ebaluazioan lortutako puntuazioen arteko erlazioa geruza guztietan aztertzen da. Hurrengo taulak geruza bakoitzeko ikasleek *Matematikarako konpetentzian* lortutako batez besteko puntuazioa erakusten du Matematika arloan lortu zuten kalifikazioaren arabera.

**Matematika arloko kalifikazioak eta *Matematikarako konpetentziako* emaitzak geruzen arabera.**

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	Itunpeko B	Itunpeko D
<b>Gutxi</b>	191	211	210	211	214	213
<b>Nahiko</b>	198	220	221	230	229	229
<b>Ongi</b>	215	226	236	245	241	242
<b>Oso ongi</b>	231	255	259	267	263	267
<b>Bikain</b>	252	287	291	302	296	293

Geruzak banan-banan aztertzen ditugunean ere, ikasleek Matematika arloan lortu zuten kalifikazioaren eta 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan *Matematikarako konpetentzian* lortutako puntuazioen arteko erlazio positiboa egiaztatzen da. Geruza guztietan ikusten da ikasgelako kalifikazioa zenbat eta hobea izan, Ebaluazio Diagnostikoko puntuazioa altuagoa izan dela.

**29. grafikoa: ED09-DBH 2: Matematika arloko kalifikazioaren eta ED09ko puntuazioaren arteko erlazioa geruzen arabera**



Geruza guztietan, *Oso Ongi* eta *Bikain* kalifikazioa izan zutenek 250 puntuko batez bestekoa gainditu dute, A eredu publikoaren geruzan izan ezik, geruza horretan *Bikain* kalifikazioa izan zuten ikasleek bakarrik (% 13) lortu baitute batez bestekoa 252 punturekin gutxigatik gainditzea.

## Ikasleen banaketa ikasgelako kalifikazioen eta *Matematikarako konpetentzian* lortutako puntuazioaren arabera

Ikasgelako kalifikazioen eta lortutako puntuazioen arteko erlazioa aztertzerakoan interesgarria da ikasleen barreiadura bi aldagaiak kontuan izanik ezagutzea: Matematika arloko kalifikazioa eta ebaluazioan lortutako puntuazioa.

Horretarako, kalifikazio bakoitzean 5 pertzentilean dauden ikasleak (% 5, *Matematikarako konpetentziako* puntuazio apalenekoak) eta 95 pertzentilean daudenak (% 5, puntuazio altuenekoak) hautatu dira, eta *Matematikarako konpetentzian* lortutako batez besteko puntuazioa kalkulatu da. Hurrengo taulan pertzentil bakoitzari dagozkion puntuazioak azaltzen dira ikasgelako kalifikazio bakoitzerako.


**Matematikarako konpetentziako puntuazioak pertzentiletan ikasgelako kalifikazioaren arabera**

	Batez bestekoa	5 pertzentileko batez bestekoa	95 pertzentileko batez bestekoa	5p-95p tartea
<b>Gutxi</b>	219	142	296	154
<b>Nahiko</b>	231	155	307	152
<b>Ongi</b>	241	160	314	154
<b>Oso ongi</b>	258	178	329	151
<b>Bikain</b>	281	201	347	146

Ikus daitekeenez, ikasgelako kalifikazio bereko ikasleek ebaluazioan lortu duten puntuazioen artean alde handiak daude, zenbait kasutan 150 puntukoak baino handiagoak. Esate baterako, Matematika arloan *Gutxi* kalifikazioa izan zuten ikasleen kasuan, 5 pertzentilean dauden ikasleen multzoak ebaluazioan batez beste 142 puntu lortu du, eta 95 pertzentileko multzoak aise gainditu du 250 puntuko batez bestekoa, 296 puntutara heldu delarik.

95 eta 5 pertzentilen arteko tartea 150 puntukoa baino handiagoa da kasu guztietan, *Bikain* kalifikazioaren kasuan izan ezik, kalifikazio horri dagokion tartea 146 puntukoa baita. Ezberdintasun horiek emaitzen barreiadura handiaren adierazle dira, beheko grafikoan azaltzen den bezala.

**30. grafikoa: ED09-DBH 2: Ikasleek Matematikarako konpetentzian lortutako puntuazioen barreiadura ikasgelako kalifikazioaren arabera**



Grafikoak erakusten du kalifikazio baten barnean ikasleen artean oso barreadura handia gertatzen dela. Esate baterako, *Nahiko* kalifikazioa izan duen ikasle batek eta *Oso ongi* kalifikazioa izan duen beste batek, agian, puntuazio bera lortu dute ebaluazioan.

Hortaz, Ikasgelako kalifikazioan *Nahiko* izan duten ikasleen artean 152 puntuko aldea dago ebaluazioan; hau da, kalifikazio hori izan duen ikasleren batek 231 puntu (batez bestekoa) lortu ditu, eta besteren batek 307 puntu, 250 puntuko batez besteko orokorra baino askoz puntuazio hobea; hala ere, beste batzuek, berriz, 155 puntu baino ez dute lortu, batez bestekoa baino askoz puntuazio apalagoa.

Horrek esan nahi du, nahiz eta ikasgelako kalifikazioen eta *Matematikarako konpetentziako* emaitzen artean erlazio positiboa izan, ikasgelako kalifikazioak ez duela beti ongi bereizten, zenbait ikasleren kasuetan bi puntuazio horiek ez baitatoz bat, agian kalifikazio bera lortzeko eskakizuna ikastetxetik ikastetxera ezberdina delako, edo ikastaldearen ezaugarriek kalifikazio jakin bat lortzeko eragina izan dezaketelako.

### Matematika arloko kalifikazioaren eta ikaslearen ikastaldearen arteko lotura

Irakasmila errepikatzeari buruz egindako ikerlanak<sup>33</sup> agerian ipini zuen ikastalde batean edo beste batean ikasteak zer nolako eragina duen emaitzetan. Ikerlan hark Matematika arloko kalifikazioak eta DBH 2ko ikasleek TIMSS 2007 ebaluazioan lortutako emaitzekin lotzen zituen.

Oraingo ebaluazioan jaso den informazioak ere aukera ematen du DBH 2ko ikasleek aurreko ikasturtean Matematika arloan izandako kalifikazioak eta *Matematikarako konpetentzian* lortutako emaitzak konparatzeko.


Analisia egiteko eta ikastaldeak ikaslearen emaitzetan zer nolako eragina duen ezagutzeko, DBH 2ko ikastalde guztiak lau kuartiletan banatu dira Ebaluazio Diagnostikoan lortu duten puntuazioaren arabera. Hortaz, 1. kuartilean emaitzarik apalenak lortu dituzten ikastaldeak daude (ikastalde guztien % 25); 2. eta 3. kuartiletan progresiboki emaitza hobea lortu dituzten ikastaldeak daude (ikastaldeen % 25 kuartil bakoitzean); eta, azkenik, 4. kuartilean *Matematikarako konpetentzian* puntuaziorik onenak lortu dituzten ikastaldeak daude (% 25).

Kuartiletan banatutako puntuazio horiek ikastalde bakoitzean Matematika arloan izandako kalifikazioekin konparatu dira jarraian grafikoki adierazten den bezala.

<sup>33</sup> Irakasmila errepikatzearen eragina ikasleen ikas-irakas prozesuan. 2009. ISEI-IVEI. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)



31. grafikoa: ED09-DBH 2: Matematikarako kompetentziako emaitzak ikasgelako kalifikazioaren arabera



1. kuartileko ikasleei (ebaluazioko emaitzarik apalenetatik hasita beheko % 25) dagokien lerro urdina arretaz begiratzen badugu, 250 puntuko batez bestekoa *Bikain* kalifikazioa izan zutenek bakarrik gainditu dutela ikus daiteke. Ikastalde horretako ikasle bat, adibidez, 2. kuartileko beste ikastalde batean egongo balitz, *Oso Ongi* kalifikazioa izango luke, eta 4. kuartileko ikastalde batean egongo balitz (ebaluazioko emaitzarik apalenetatik hasita goiko % 25), ez litzateke *Nahiko* kalifikaziora helduko.

4. kuartileko ikastaldeein dagokien marra moreak erakusten du *Ongi*, *Oso Ongi* eta *Bikain* kalifikazioa izan zuten ikasleek 250 puntuko batez bestekoa aise gainditu dutela (262, 280 eta 312 puntu, hurrenez hurren).


Datu horiek TIMSS ebaluazioan parte hartu zuten ikasleekin irakasmila errepikatzeari buruz gauzatu zen ikerlanaren ondorioetako bat berriro egiaztatzen dutela esan daiteke. Grisayren ikerlanen tesiak ere egiaztatzen dituzte, hots, ikaslea eskolatuta dagoeneko ikastaldearen mailak eragina izaten duela ikasleak ikasgelan ateratzen dituen notetan, irakasleek ikastaldeko ikasleen arteko barreiajura murrizteko joera izate baitute, eta ebaluazio-irizpideak ikastaldeari egozten dioten batez besteko mailara moldatzen baitituzte. Hartara, Ebaluazio Diagnostikoko emaitza bat ikasgelako kalifikazio ezberdinei egoki dakieke, ikaslearen ikastaldeari egozten zaion mailaren arabera, hau da, goi mailakotzat hartu den ala behegaroko mailakotzat.

#### 4. IKASTETXEEN EZAUGARRITZEA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA.

Aurreko ataletan ikusi ahal izan da emaitzei nabarmenki eragiten dieten beste faktore eta aldagai batzuk badaudela, haien artean “balio erantsia” izenekoa, ikastetxearen hezkuntza-jardueratik datorrena. Ikastetxeak ekartzen duen balio horrek bi motatako emaitzen arteko aldea adierazten du: alde batetik, ikastetxeak edo ikastalde jakin batek benetan lortutako emaitzak, eta bestetik, ikastetxearen ezaugarri sozialak, ekonomikoak eta kulturalak kontuan izanik espero zitezkeenak.

Beraz, balio horrek ikastetxeen bi ahalmen islatzen ditu: bata, ikasleari bere ingurunea eta familiaren ezaugarriak kontuan izanik espero daitezkeen aukeren gaintetik garatzeko aukera eskaintzeko ahalmena; eta bestea, garapen-aukerak ikasle guztiengana berdindeltzeko behar den antolamendua finkatzeko ahalmena.

Laburpen exekutiboan eta Emaitzen txosten orokorrean 36 ebaluatutako ikastetxe bakoitzaren kokagunea aipatzen zen, alde batetik bere maila sozio-ekonomikoaren arabera, eta bestetik, konpetentzietan lortutako puntuazioen arabera. Analisia barreiadura-grafiko batean adierazten zen.



Barreiadura-grafikoa da eta, alde batetik, ikastetxeetako maila sozio-ekonomikoa eta kulturala, ardatz horizontalean adierazirik, eta bestetik *Matematikarako konpetentziako* puntuazioa, ardatz bertikalean adierazirik, erlazionatzen ditu. Grafikoan bi aldagai horien gurutzatzea erakusten da, bi lerro etenekin batera: bata *Matematikarako konpetentziako* batez besteko puntuazioa adierazten du, eta besteak etapa horretan ebaluatutako populazio osoaren batez besteko indize sozio-ekonomikoa eta kulturala adierazten du. Lerro diagonal lagin osoari dagokio eta bi aldagaien

arteko erlazioa adierazten du. Ikastetxea bere ezaugarri sozio-ekonomikoa eta kulturalen arabera dagokion puntuaren gainetik edo azpitik dagoen adieraziko luke.

Grafikoan 2009ko ebaluazioan parte hartu duten DBH 2ko 335 ikastetxe edo ikastalde azaltzen dira. Ikastetxe bakoitza dagokion ISEK mailaren koloreaz markaturik dago.

Grafikoak hiru egoera erakusten ditu:

1. **Ikastetxe gehienak beren ISEK indizearen arabera espero daitezkeen emaitzetatik hurbil daude.**

Ebaluatutako ikastetxe edo ikastalde guztien % 82k lortutako batez besteko emaitzen eta ikasleen ezaugarri sozio-ekonomiko eta kulturalen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko aldea 25 puntukoa baino txikiagoa da.

2. **Ikastetxe batzuk diagonalaren gainetik daude, espero zitezkeenak baino emaitza hobekoak lortu dituztelako.**

Alderantziz gertatzen da diagonalaren azpitik dauden ikastetxeekin.

3. **Ikastetxeek gai izan beharko lukete beren hezkuntza-jardueraren bidez ikasleen maila sozio-ekonomiko eta kulturala gainditzeko.**

Grafikoan argi ikus daiteke ISEK maila bereko ikastetxe batzuek oso emaitza ezberdinak lortu dituztela. Horrek adieraziko luke ikastetxearen hezkuntza-jarduera eta antolamendua giltzarriak direla ikasleen ISEK mailaren mugak gainditzeko edo ez gainditzeko. Gainera, gauza bera gertatzen da ISEK maila guztietan; hau da, ikastetxea edonolako izanik ere, bere esku hartzeak eragin positiboa edo negatiboa izan dezake.

Egoera horiek xehetasun handiagoarekin azaltzeko asmoz, bi analisi ezberdin egin dira eta bien emaitzak erkatu dira:

- a. **Emaitzarik altuenak eta apalenak izan dituzten ikastetxeak**, era zuzenean eta beren egoera kontuan hartu gabe. Analisia egiteko bi arrazoi daude: alde batetik, ikastetxearen ezaugarriak gorabehera, emaitza altuak lortzea oso lan konplexua da eta askotariko aldagaiek eragiten diote; bestetik, emaitza apalagoak lortzeak esan nahi du agian ikastetxean erabakiak hartu behar direla ikasleen emaitzak hobetzeko.
- b. **Ikastetxeen eraginkortasuna**, hots, ikastetxe guztiek maila sozio-ekonomiko eta kultural bera izan balute espero zitezkeen emaitzekiko alderik handienak (positiboak eta negatiboak) lortu dituzten ikastetxeak. Analsiaren xedea ikasleei gehien ematen dieten ikastetxeen ezaugarriak aztertzea da, eta, aldi berean, ikasleengandik beren ahalmen guztiak ateratzea lortzen ez duten ikastetxeen ezaugarriak.

*Matematikarako konpetentzia* aukeratu dugu bi analisisetan, konpetentzia horretako emaitzek, egiaztatu ahal izan dugunez, gainontzeko konpetentzietakoek baino korrelazio-maila altuagoa erakusten dutelako. Gainera, hizkuntza-konpetentzia ez denez, irakasteredua, etxeko hizkuntza eta antzerako faktoreek hein txikiagoan eragiten diote.

Izan ere, mota bakoitzeko ikastetxek hautatu ondoren ikusi da ikastetxeek antzeko portaera izan dutela gainontzeko konpetentzietan, emaitzak beti konpetentzia bakoitzeko altuenak edo apalenak ez badira ere.

#### 4.1. EMAITZARIK ALTUENAK ETA APALENAK IZAN DITUZTEN IKASTETXEAK

Analisirako emaitzarik altuenak lortu dituzten 30 ikastetxeak eta emaitzarik apalenak lortu dituzten 30 ikastetxeak aukeratu dira. Hurrengo taulan ikus daitekeenez, emaitza apalekotzat hartu diren ikastetxeetako batez besteko puntuazioa 158 eta 219 puntu bitartekoa izan da. Emaitza altukotzat hartu diren ikastetxeetako batez besteko puntuazioa 275 puntukoa da gutxienez, eta zenbait kasutan 300 puntura heltzen da, batez besteko puntuaziorik altuenera.

ED09-DBH 2. Ikastetxeen sailkapena gutxienerako, gehieneko eta batez besteko puntuazioen arabera


Ikastetxeko emaitzak	Ikastetxe kopurua	%	Gutxienerako puntuazioa	Gehieneko puntuazioa	Batez bestekoa
Erdi Maila	275	82,1	219	275	247
Behe Maila	30	9,0	158	219	203
Goi Maila	30	9,0	275	300	283
<b>Guztira</b>	<b>335</b>	<b>100</b>	<b>158</b>	<b>300</b>	<b>246</b>

Ondorengo taulan ikus daitekeenez, konpetentzia batean emaitza onak lortu dituzten ikastetxeek emaitza onak lortu dituzte gainontzeko konpetentzietan ere, beti bikaintasun maila berean ez bada ere. *Matematikarako konpetentzian* emaitza apalak lortu dituzten ikastetxeek gainontzeko konpetentzietan ere emaitza apalak lortu dituzte.

ED09-DBH 2. Ikastetxeetako batez besteko emaitzak ebaluatutako konpetentzia guztietan

Ikastetxeko emaitzak	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Matematikarako konpetentzia	Zientzia, teknologia eta osasun-kulturara
Erdi Maila	249	248	247	247
Behe Maila	192	214	203	215
Goi maila	260	265	283	275

Ikastetxeetako emaitzen banaketa ISEK indizearen arabera hurrengo grafikoan azaltzen da.




Grafikoan puntuaziorik altuenak lortu dituzten 30 ikastetxeak berdez adierazi dira, eta puntuaziorik apalenak lortu dituzten 30 ikastetxeak, laranja-kolorez. Grafikotik honako hau atera daiteke:

1. Multzo bakoitzaren barnean emaitzen banaketa oso ezberdina da ikastetxe bakoitzeko batez besteko ISEK indizea kontuan hartzen bada. Emaitza altuak lortu dituzten ikastetxe gehienetako batez besteko ISEK indizea ikastetxe guztietako ISEK indizeen batez bestekoa (-0,12, puntuazko lerro zut beltzaz adierazia) baino altuagoa da. Gauza bera ikus daiteke emitzarik apalenak lortu dituzten ikastetxeen multzoan, baina alderantziz.
2. Hala ere, multzo horietan ez daude ISEK indizerik altuenak edo apalenak dituzten ikastetxe guztiak. Izan ere, erdi-mailako ISEK indizea duten ikastetxeak daude puntuaziorik altuenak lortu dituzten 30 ikastetxeen artean eta baita puntuaziorik apalenak lortu dituzten 30en artean ere.

Ikastetxe horien egoera argiago antzemateko, hurrengo grafikoen muturreko puntuaziokotzat hartu diren ikastetxeak bakarrik erakusten dira.

34. grafikoa: ED09-DBH 2.: Matematikarako kompetentziako emaitzak eta ISEK indizea (Muturreko emaitzak izan dituzten ikastetxeak)



Emaitzarik altuenak eta apalenak lortu dituzten ikastetxeen arteko analisia dela eta, honako ondorioak atera daitezke:

- ✓ Bi multzoetan (emaitzarik altueneko ikastetxeen multzoan eta emaitzarik apalenekoen multzoan) antzeko ISEK indizea duten ikastetxeak badaude ere, bi multzoetako ikastetxeetako ISEK indizeen batez bestekoak ezberdinak dira. Hau da, egoera sozio-ekonomiko eta kulturalaren eragin nabarmena antzematen da.
- ✓ Datuek, hala ere, ISEK indizearen eragina baieztatzen dute, baina eragin hori ez da erabakigarria eta ikastetxeek esparru zabala dute ikasleekin lan egiteko. Izan ere, alde handiak daude antzeko ISEK indizea duten ikastetxe batzuetako puntuazioen artean.

## 4.2. IKASTETXEEN ERAGINKORTASUNA

DBH 2 irakasten duten ikastetxeetako emaitzak aztertzeko erabil daitekeen bigarren ikuspuntua eraginkortasuna da.

F.J. Murillo irakasleak dioenez<sup>34</sup>, gaur egun *“ikastetxea eraginkorra da baldin eta ikasle guztien garapen integrala lortzen badu, eta garapen hori ikasleen aurreko errendimendua eta familien egoera sozio-ekonomikoa eta kulturala kontuan izanik espero daitekeena baino handiagoa bada”*. Definizio horrek hiru ezaugarri barne hartzen ditu: **balio erantsia**, hots, ikastetxeak ikasleari zer ematen dion; **ekitate**, eraginkortasunaren kontzeptuaren oinarriko osagai gisa; eta ikasleen **garapen integrala**. Analisisian ezaugarri bakar bat hartuko da kontuan, balio erantsia, hau da, ikastetxeak ikasleari ematen diona.

Horretarako, *Matematikarako kompetentzia* lortutako puntuazioa eta ikastetxeko ISEK indizearen arabera espero zitekeen puntuazioa aztertu ondoren, bien arteko alde positiborik handiena duten 30 ikastetxeak hautatu dira, alde negatiborik handiena duten 30 ikastetxeekin batera. Alde positiborik handiena dutenei “ekarpen handieneko ikastetxeak” deituko diegu, eta alde negatiborik dutenei “ekarpen txikieneko ikastetxeak”.

ED09-DBH 2. Ikastetxeetako batez besteko puntuazioa eraginkortasun-mailaren arabera

Ikastetxeko emaitzak	Ikastetxe kopurua	%	Gutxieneko puntuazioa	Gehieneko puntuazioa	Batez bestekoa
Erdikoak	275	82,1	185	300	247
Ekarpen txikienekoak	30	9,0	158	256	213
Ekarpen handienekoak	30	9,0	232	296	272
Guztira	335	100	158	300	246

Taulan ikus daitekeenez, ekarpen txikieneko ikastetxeen multzoan askotariko batez besteko puntuazioak daude, batzuk oso apalak (158) eta beste batzuk *Matematikarako kompetentziako* batez bestekoa baino handiagoak. Antzera gertatzen da ekarpen handieneko ikastetxeen multzoan, puntuazioak 232tik (kompetentziako batez bestekoa baino apalagoa) 296ra baitoaz.

Aurreko analisisian bezala, ikastetxeak hautatu ondoren antzeman ahal izan da ikastetxeen portaera berdina izan dela beste kompetentzia batzuetan, kompetentzia horietan ekarpen handieneko ikastetxeen artean ezta txikieneko artean ez badaude ere.

Ondorengo taulan ikus daitekeenez, kompetentzia batean emaitza onak lortu dituzten ikastetxeek emaitza onak lortu dituzte gainontzeko kompetentzietan ere (baina ez beti bikaintasun maila berean). *Matematikarako kompetentzia* emaitza apalak lortu dituzten ikastetxeek gainontzeko kompetentzietan ere emaitza apalak lortu dituzte.


ED09-DBH 2. Ikastetxeetako emaitzak eraginkortasunaren arabera kompetentzia guztietan

Ikastetxeko emaitzak	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Matematikarako kompetentzia	Zientzia, teknol. eta osasun-kult.
Erdikoak	246	248	247	247
Ekarpen txikienekoak	210	228	213	228
Ekarpen handienekoak	264	252	272	262

<sup>34</sup> Ikus [www.ice.deusto/rinace/reice/vol1n1/Murillo](http://www.ice.deusto/rinace/reice/vol1n1/Murillo)



Ikastetxeetako emaitzen banaketa ISEK indizearen arabera grafiko honetan ikus daiteke:




Grafikoan ekarpen handieneko 30 ikastetxeak berdez adierazi dira eta ekarpen txikienekoak laranja-kolorez. Grafikotik ondorio hauek atera daitezke:

1. Emaitza horien banaketa ISEK maila guztietan zehar hedatzen da. Hau da, ekarpen positiboa egiten duten ISEK maila altuko zein apaleko ikastetxeak daude, eta hori ikasleen errendimenduan islatzen da.
2. Ekarpen handieneko ikastetxeak ISEK indizearen ardatzaren erdialdean daude, eta ez, espero zitezkeen bezala, ISEK indizearen balio altuetan. Agian, ISEK maila altuko ikastetxeen kasuan, espero zitezkeen puntuazioa hain altua izanik, puntuazio hori gainditzea oso zaila delako gertatzen da horrela.

Ikastetxe horien egoera argiago antzemateko, hurrengo grafikoan ekarpen handieneko eta txikieneko ikastetxeak bakarrik erakusten dira.



**36. grafikoa: ED09-DBH 2.: Matematikarako kompetentziako emaitzak eta ISEK indizea ISEK indize berdinarekin espero zitezkeen emaitzetatik gehien (+ eta-) aldentzen diren ikastetxeak.**



Emaitza onak eta emaitza apalak lortu dituzten ikastetxeen arteko aldeak eta ekarpen handieneko eta txikieneko ikastetxeen artekoak egoteko askotariko arrazoiak daude. Honako hauek azpimarratu nahi genituzke:

- **ISEK indizearen eragina.** Aldagai horretan bi gauza antzeman dira: alde batetik, ISEK indizeak emaitzetan duen eragina agerian dagoela beti; bestetik, ekarpen handieneko eta txikieneko multzoetan –eraginkorren artean eta ez hain eraginkorren artean– ISEK maila guztietako ikastetxeak daudela; izan ere, ekarpen handieneko ikastetxe batzuetako ISEK indizea ebaluazio osoko ikastetxe guztietako batez besteko ISEK indizea baino txikiagoa da. Bi alderdi horiek adierazten dute ikastetxeak gehitzen dituen hezkuntza-faktoreek (metodologiak, antolamendua, eskola giroa...) berebiziko eragina izaten dutela ikasleen emaitzetan, ISEK maila edozein delarik ere. ISEK maila bereko ikastetxeen artean batzuek ikasleek errendimendu ona izatea lortu dute, eta beste batzuek, berriz, ez.
- **Hezkuntza-sarea.** Emaitzak hezkuntza-sarearen aldagaiaren arabera aztertzen badira, emaitza altueneneko ikastetxeen % 97 itunpeko sarekoak dira, eta % 3 bakarrik sare publikokoak. Hala eta guztiz ere, analisia eraginkortasun mailaren arabera egiten badugu (ISEK indizea kontuan izanik espero zitekeena) ehunekoak aldatu egiten dira: ekarpen handieneko ikastetxeen % 37 publikoak dira eta % 63, itunpeko sarekoak.
- **Ikastetxearen tamaina.** Oro har, edozein ebaluazioetan, ikastetxea zenbat eta handiagoa izan, emaitza hobetoak lortzen dira (batez beste 53,53 ikasle irakasmilan, hau da, 2 ikastalde edo gehiago irakasmilako). Hala ere, ikastetxeen eraginkortasun maila aztertzerakoan, zerbait berezi antzeman da: ikastetxerik emankorrenetako (ekarpen handienekoetako) ikasle kopurua batez beste 36 da (ikastalde bat irakasmilako). Pentsa liteke ikasle kopuru txikiagoko ikastetxe batzuek egoera hori aprobetxatzen dutela ikasleen ekarpena orekatzen duten antolamendua edo metodologia hobetzeko.
- **Ikastetxearen jarrera IKTekiko.** Informazio hori zeharka lortu da, eta, beraz, bere balioa ez da hain sendoa. Irakasleek ikastetxeetan erabiltzen diren IKTekiko nolako jarrera duten aztertzeke informazioa Zuzendaritza Taldearentzako galdera-sortatik atera da. Informazio horretatik ondorio hauek atera daitezke: emaitza apaleko ikastetxeen ustez, teknologia horiek erabiltzeko arazorik handienak irakasleen prestakuntza, denbora eta haiekiko segurtasun falta dira; hau da, irakasleei dagozkien alderdiak;

emaitza altuko ikastetxeen ustez, arazorik handienak teknologia berriak erabiltzerakoan material eta software falta dira. Hala ere, analisirako ikastetxeak *Matematikarako konpetentzian* lortutako emaitzen arabera ikasleei zenbat ematen dieten kontuan hartzen bada, ekarpen txikieneko ikastetxeek irakasleei dagozkien alderdiei garrantzi handia ematen dietela ikusten da, eta ikastetxe eraginkorrenek, berriz, ez diotela garrantzirik ematen.

Analisiak azaletik argitu nahi du zergatik ikastetxe batzuek lortzen duten ikasleei asko ematea eta jatorriko urritasunak orekatzea, eta zergatik beste batzuek ez duten horrelakorik lortzen. Arrazoi horien azalpen sakonagoa eskaintzeko ezinbestekoa litzateke kasuen inguruko ikerlan bat egitea eta, batez ere, emaitzen egonkortasuna aztertzea. Ikerlan hori 2010ean egingo den bigarren Ebaluazio Diagnostikotik aurrera gauzatu ahal izango da.

## 5. EMAITZEN ARTEKO ALDEAK AZALTZEKO EREDUA

### 5.1. EMAITZEN ALDAKORTASUNAREN ANALISIA: IKASTETXEEN ARTEKO BARIANTZA ETA IKASTETXE BARRUKO BARIANTZ

***Matematikarako kompetentziako emaitzen arteko aldeen % 83,5 ikasleen ezaugarri pertsonalei zor zaie, eta % 16,5 bakarrik ikastetxeen ezaugarriei.***

Emaitzen aldakortasunaren analisiaren xedea hezkuntza-prozesuan ageri diren zenbait aldagaik emaitzetan zer nolako eragina duten bilatzea da. Analisia egiteko ezinbestekoa da aski informazio izatea aldagai bakoitzak bukaerako emaitzetan nolako eragina duen finkatzeko.

Ikasle batek emaitza jakin bat lortzeari zer nolako faktoreek eragiten dioten ezagutzeko, bi motatako aldagaiak aztertu dira; alde batetik, ikaslearen ezaugarri pertsonalei eta familiarrei dagozkien banan-banako aldagaiak, zeharka multzo bezala ikastaldeari eragiten diotenak; eta bestetik, ikastetxeari dagozkion aldagaiak, hots, ikastetxe bat besteengandik bereizten duten ezaugarriak, ikasleen jatorrizko egoerari etekin handiagoa edo txikiagoa atera diezaioketenak.

Analisi horiek eskura dagoen informazioaren arabera gauzatzen dira; hala ere, badira zenbait muga, batez ere didaktikaren aldetiko aldagaiak neurtzerakoan, esate baterako irakaslearen lana ikasgelan, curriculumaren egituratzea, ikastetxeen antolamendua, baliabideen erabilera eta antzeko gaiak dagozkienak. Aldagai horiek interes handikoak badira ere, neurtzen zailak izaten dira oso.

Emaitzen aldakortasuna aztertzeke *Matematikarako kompetentzia* aukeratu da, alde batetik, kompetentzia neurtzerakoan hizkuntzak emaitzei hein txikiagoan eragiten dielako, eta bestetik, aurreko ebaluazio batzuetako datuak ditugunez, luzetarako konparazioak egiteko aukera ematen duelako.

Analisian ikastetxea definitzen duen ezaugarri nagusia bertako irakasteredua da; hau da, ikastetxe bat behin, birritan edo hirutan hartu da kontuan, irakasteredu bat, bi edo hiru baldin baditu. Erabaki horren arrazoi nagusia irakasteredu bakoitzak ezaugarri ezberdinak izatea da, batez ere ikastetxe batean baina irakasteredu ezberdinetan eskolatutako ikasleen banan-banako ikuspuntutik. Arazoa nabariagoa izaten da ikastetxe publikoetan itunpekoetan baino.

2009ko Ebaluazio Diagnostikoan *Matematikarako kompetentziako* emaitzen aldakortasuna, "bariantza orokorra" deitua, bi alderdi osagarritatik aztertzen da: alde batetik, ikastetxeen arteko bariantza; eta bestetik, ikasleei dagokien bariantza. Bakoitzak honako hau aztertzen du:

- *Ikastetxeen arteko bariantza.* Ikastetxe bakoitzaren ezaugarriek (programak, ikasleen ezaugarriak, funtzionamendurako estrategiak eta abar) emaitzetan duten eraginari dagokio. Bariantzaren ehuneko oso handia ikastetxeei zor zaienean, ikastetxe bakoitzaren eskaintza askotarikoa dela interpretatzen da. Beraz, ikastetxe bat edo beste bat aukeratzeak sekulako garrantzia izan dezake ikaslearen etorkizuneko heziketan.
- *Ikasleei zor zaien bariantza.* Ikasleen banan-banako ezaugarriek (gaitasuna, interesa, familiarren laguntza, itxaropenak eta abar) emaitzetan duten eraginari dagokio.

Ikastetxeak kontuan hartu behar ditu aldagai horiek, nahiz eta eraldatzeko aukera txikiagoa izan.

Bi alderdi horiek bat egiten dira. Adibidetzat familiaren maila sozio-ekonomikoa banan-banako ikuspuntutik hartzen badugu, ikasle bakoitzaren ikasketa-egoerak eragina izango du ikasleei dagokien bariantzan. Hala ere, ikastetxeko edo ikastaldeko ikasle guztien egoera sozio-ekonomikoen batez bestekoak ere eragina izango du ikastetxe bakoitzean eta, beraz, ikastetxeen bariantzan.

2009ko Ebaluazio Diagnostikoko *Matematikarako kompetentziako* emaitzen arabera, bariantza honako hau da:

	Bariantza orokorra		Ikastetxeen arteko bariantza	Ikasleen arteko bariantza
	Guztira	%		
Ikasle guztiak	2.525,5	100	16,5%	83,5%

Ikus daitekeenez, ikastetxeen arteko bariantza txiki samarra da ikasleen arteko bariantzarekin konparaturik. Ikasleen arteko bariantzak bariantza osoaren % 83,5 azaltzen du, eta ikastetxeen artekoak, % 16,5 bakarrik.

Laburbilduz, *Matematikarako kompetentziako* emaitzen arteko aldean % 83,5 ikaslearen, familiaren eta ingurune sozialaren ezberdintasunek azaltzen dute, eta ikastetxeen arteko ezberdintasunek % 16,5 bakarrik.

Datuak PISA 2003 ebaluazioan lortutakoekin konpara daitezke, ebaluazio hartan 15 urteko ikasleen Matematika arloko ezagupenak ebaluatu baitziren. Datu konparagarriak hurrengo taulan azaltzen dira.

	Bariantza orokorra %	Ikastetxeen arteko bariantza	Ikasleen arteko bariantza
ED09-DBH 2 <i>Matematikarako kompetentzia</i>	100	16,5%	83,5%
PISA 2003 EUSKADI	100	15%	85%
PISA 2003 ELGA	100	33%	67%

Ikus daitekeenez, Euskadiko biztanleriaren aldakortasuna oso antzekoa da. Bariantzak oso gutxi aldatu dira PISA 2003 ebaluaziotik 2009ko Ebaluazio Diagnostikora. Oso antzerakoak dira biak eta PISA 2003 ebaluazioko ELGAko herrialdeetako batez bestekoa baino txikiagoak, ebaluazio hartan ikastetxeek bariantzaren % 33 azaltzen baitzuten; hau da, ikastetxeak emaitzetan zuen eragina Euskadin baino bi aldiz handiagoa zen, eta, beraz, ikasleak eskolatzeko ikastetxe bat edo beste bat aukeratzeak garrantzi handiagoa zuen.

## 5.2. EMAITZEN ARTEKO ALDEAK AZALTZEKO EREDUA

Emaitzetan duten eragina kontuan izanik, aldagairik azpimarragarrienak irakasmailerako adin egokia izatea, ikaslearen ISEK indizea eta ikastetxeko ISEK indizea dira. Izan ere, hiru aldagai horiek elkarrekin baterako ereduak azaltzen duen bariantzaren parterik handiena azaltzen dute (eredu osoak azaltzen dituen 24,2 puntuen % 22,8).

Aipatutako aldagaiek *Matematikarako konpetentziako* emaitzak azaltzeko duten garrantzia ulertu ahal izateko, azterketa hierarkiko bat bi mailatan gauzatu da, aldagai bakoitzak emaitzetan duen eragina kontuan izanik. Alde batetik, ikaslearen banan-banako aldagaiak (ikaslearen edo familiaren ezaugarriei dagozkienak), eta bestetik, ikaslea eskolatuta dagoen ikastaldeari dagozkionak.

*Matematikarako konpetentziako* emaitzak, orokorrak zein irakasteredu bakoitzekoak, azaltzeko eragina duten aldagaiak honako hauek dira:

Banan-banako aldagaiak	Deskripzioa	Aukerak
<b>Jaioturtea*</b>	1993=-2, 1994=-1, 1995=0	-2, -1, 0
<b>Familiaren jatorria</b>	Ez-etorkina=0, Etorkina =1	0, 1
<b>ISEk indizea (ikaslea)</b>	Ikaslearen indize sozio-ekonomiko eta kult.	-3,54tik 1,96ra
<b>Sexua</b>	Neska 0, mutila 1	0, 1
<b>Etxeko hizkuntza</b>	Euskara=1, Ez euskara=0	0, 1
<b>Probako hizkuntza</b>	Euskara=1 Gaztelania=0	0, 1


  

Ikastetxeaari dagozkion aldagaiak	Deskripzioa	Aukerak
<b>Etxeko hizkuntza (Ikastetxea/eredua) **</b>	Ikastetxe osoa Euskara=1 Ikastetxe osoa Ez euskara=0	0tik 1era
<b>Ikasle kopurua ikastetxean/ereduan</b>	Ikasle kopurua ikastetxean eta ereduan	2tik 143ra
<b>Ikastetxeko ISEK indizea</b>	Ikastetxeko batez besteko Indize sozio-ekonomiko eta kulturala	-1,84tik 1,26ra

\* Jaioturtea irakasmila errepikatzeari lotutako aldagaia da, baina ez da berbera.

\*\* 0tik 1era aldatzen den balioa da, eta etxeko hizkuntza euskara deneko balioen batez bestekotik ateratzen da. Ikasle guztien etxeko hizkuntza euskara denean, balioa 1 izango da; ikasle guztien etxeko hizkuntza beste hizkuntza bat denean, balioa 0 izango da.

37. grafikoa: ED09-DBH 2.: Aldagaien eragina banan-banan azterturik



Grafikoa interpretatzeko kontuan izan behar da analisiak honako hau jotzen duela: emaitzei eragiten dien aldagai bakarra aztertzen dena da. Hartara, *koefizienteak* aldagaiaren balioa 0 denean ikaslearentzat espero den puntuazioa adierazten du; balio horri aztertutako aldagaiaren berariazko eragina gehitu (ala kendu) behar zaio, ikaslearen balioaren arabera edo eskolatuta dagoen ikastetxearen balioaren arabera. Hurrengo taulak aldagai bakoitzaren koefizientea adierazten du, bakoitzak gehitzen dituen puntuekin batera.

**Aldagai bakoitzak emaitzetan duen eragina banaka azterturik.**

Aldagaia	Kofizientea	Aldagaiaren ekarpena
Jaioturtea	254	29,9
Familiaren jatorria	248	22,1
ISEK indizea (ikaslearena)	250	14,0
Sexua	245	1,6
Etxeko hizkuntza	244	13,9
Probako hizkuntza	240	10,8
Etxeko hizkuntza (ikastetxea/eredua)	241	33,4
Ikasle kopurua ikastetxean/ereduan	235	0,3/ikasle
Ikastetxeko batez besteko ISEK ind.	249	27,5

Adibidez, 1995 jaio ziren ikasleentzat –DBH 2rako adin egokikoentzat– espero litekeen puntuazioa 254 da. Aldagai horrek urteko 29,9 puntu kentzen du, eta, beraz, emaitzei eragiten dien aldagai bakarra balitz, 1994an jaiotako ikasleentzat espero litekeen puntuazioa 224 litzakete, eta 1993an jaiotakoentzat, 194.

Ikasle ez-etorkinen kasuan, espero litekeen puntuazioa 248 litzateke, baina ikasle etorkinentzat 226 puntu espero litzake.

Ikasle batek Euskadiko batez besteko ISEK indizea (0) izango balu, 250 lortuko lituzke. Aldagai honek ISEK maila bakoitzeko 14 puntu gehitzen ditu; beraz, ikaslearen ISEK indizea -1 denean, espero daitekeen puntuazioa 236 da, eta ikaslearen ISEK indizea 1 denean, espero daitekeen puntuazioa 264 da. Izan daitekeen ISEK indizerik baxuena -3,54 da, eta ikasle batek indize horrekin 210 puntu lortuko lituzke. Ikasle batek ahalik ISEK indizerik altuenarekin (1,96) 277 puntu lortuko lituzke.

Neskentzat espero litekeen puntuazioa 245 da, eta mutilentzat, 247.

Ikaslearen etxeko hizkuntza euskara ez bada –gaztelania edo beste bat bada–, espero daitekeen puntuazioa 244 da; etxeko hizkuntza euskara denean, espero daitekeen puntuazioa 258 da.

Bai ikastetxean *Matematikarako konpetentziako* proban erabilitako hizkuntzak, bai ikastetxeko ikasleen etxeko hizkuntzak badute eragina emaitzetan. Adibidez:

- Probako hizkuntza euskara denean, espero daitekeen puntuazioa 240 da; ikastetxe batean ikasle guztiek proba gaztelaniaz egingo balute, ikastetxerako espero litekeen puntuazioa 251 litzateke.
- Ikastetxeko edo ikastaldeko ikasleen etxeko hizkuntzak aldaketa handiak izan ditzake: euskara inoren etxeko hizkuntza ez izatetik (espero daitekeen puntuazioa, 241) ikasle guztien etxeko hizkuntza izatera (espero daitekeen puntuazioa, 274). Aldagai horrek baliorik handiena (33,4 puntu) gehitzen du; hala ere, ikastetxe edo ikastaldeko ikasle guztien etxeko hizkuntza euskara izatea salbuespeneko egoera da. Izan ere, D ereduetako ikasleen % 25ek hitz egiten du euskaraz familian, eta DBH 2ko ikasleen % 13k.

Ikastetxeko ikasle kopuruak beti gehitzen du balio positibo bat; puntuazioak 235 puntutik (gutxienekoa, 2 ikasleko ikastetxe batean) 278 puntura (espero daitekeen gehienekoa, 143 ikasleko ikastetxe batean) doaz. Emaitzei eragiten dien aldagai bakarra dela suposatuko bagenu, 25 ikasleko ikastalde baterako espero litekeen puntuazioa 242,5 litzateke.

Ikastetxeko batez besteko ISEK indizeak ikaslearen ISEK indizeak bezala funtzionatzen du, baina aldagai horrek 27,5 puntu gehitzen ditu ISEK maila bakoitzeko. Hartara, ikastetxe batek Euskadiko batez besteko ISEK indizea (0) baldin badu, ikasleek *Matematikarako konpetentzian* 249 puntu lortzea espero daiteke; ikastetxeko ISEK indizea hori baino apalagoa bada, espero daitekeen puntuazioa apalagoa izango da (adib. ISEK indizea -1 bada, emaitzei eragiten dien aldagai bakarra dela suposatuz, 223 puntuko emaitza espero daiteke); ikastetxeko ISEK indizea, berriz, positiboa bada, espero daitekeen puntuazioa koefizientea baino handiagoa izango da (adib. ISEK indizea 1 bada, 277 puntuko emaitza espero daiteke).

Informazio hori aldagaiek bakarka zer nolako eragina izango luketen ulertzeko garrantzitsua bada ere, ezinbestekoa da eredu osoa batera interpretatzea; hau da, aldagai guztien eragina aztertzea elkarri eragiten diotenean. Jarraian azaltzen den baterako ereduak bariantzaren parte handi bat azal dezake.

### Baterako eredia

Hainbat aldagaien funtzionamendua batera aztertu ondoren, eta eragin adierazgarria duten aldagaiak hautatu ondoren, aldagai horietako bakoitzak *Matematikarako kompetentziako* emaitzetan zer nolako eragina duen aztertu da banan-banan.

**ED09-DBH 2. Matematikarako kompetentzia**

	Guztira	Bukaerakoa	Bukaerakoa %	Azaldutakoa %
<b>Bariantza orokorra</b>	2.545,5	1.928,4	100	24,2
<b>Ikastetxeen arteko bariantza</b>	419,1	115,0	6,0	72,6
<b>Ikasleen arteko bariantza</b>	2.126,4	1.813,4	94,0	14,7

Aldagai multzo honek emaitzen aldakortasun osoaren % 24,2 azal dezake. Ikastetxeen arteko bariantza txiki samarra da (% 6), eta ikasleen artekoa handiagoa da, % 94ra heltzen delarik.

Hurrengo taulak aldagai bakoitzaren koefizientea erakusten du, batera jarduten dutenean bakoitzak gehitzen dituen puntuekin batera.


**Aldagai bakoitzak emaitzetan duen eragina batera azterturik.**

<b>Aldagaia</b>	<b>Aldagaiaren ekarpena</b>
<b>Jaioturtea</b>	-25,4
<b>Familiaren jatorria</b>	-8,4
<b>ISEK indizea (ikaslearena)</b>	9,84
<b>Sexua</b>	4
<b>Etxeko hizkuntza</b>	4
<b>Probako hizkuntza</b>	-6,5
<b>Etxeko hizkuntza (ikastetxea/eredua)</b>	21,9
<b>Ikasle kopurua ikastetxean/ereduan</b>	0,06/ikasle
<b>Ikastetxeko batez besteko ISEK indizea</b>	9,07

Ondoko grafikoak erakusten du azalpen eredia osatzen duten aldagaiek DBH 2ko ikasleen *Matematikarako kompetentziako* emaitzetan zer nolako eragina duten batera jarduten dutenean.



38. grafikoa: ED09-DBH 2.: Aldagai bakoitzak emaitzetan duen eragina batera azterturik



Aurreko grafikotik atera daitekeenez, aldagai horien eragina kontuan izanik, espero daitekeen 251,3ko puntuazioa neska bati dagokio: ez-etorkina, 1995ean jaioa (ez du irakasmillarik errepikatu), familia erdaldunekoa, eta proba gaztelaniaz egin duena. Bere ISEK maila 0 da (Euskadiko batez bestekoa); bere ikastaldean ez dago etxeko hizkuntza euskara duen ikaskiderik; ikastetxeko batez besteko maila sozio-ekonomikoa 0 da (Euskadiko batez bestekoa).

Baterako ereduari aldagai bakoitzak gehituko lukeena eta aurreko banan-banako analisian gehitzen zuena ez dira berdin-berdinak. Gure kasuan aldagaien balioak doitu egiten dira, emaitzen aldakortasuna azaltzen duten faktoreen arteko elkarreragina dagoelako.

Emaitzetan duten eragina kontuan izanik, aldagairik azpimarragarrienak honako hauek dira: irakasmillarako adin egokia izatea, ikaslearen ISEK indizea eta ikastetxeko ISEK indizea. Izan ere, hiru aldagai horiek elkarrekin baterako ereduak azaltzen duen bariantzaren parterik handiena azaltzen dute (eredu osoak azaltzen dituen 24,2 puntuen % 22,8).

## 6. ALDAGAIEN ANALISIARI BURUZKO ONDORIOAK. DBH 2. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009

### IKASLEARI ETA FAMILIARI DAGOZKION FAKTOREAK ETA ALDAGAIK

#### Ikaslearen eta familiaren inguruneari dagozkion aldagaiak

- **Gurasoen ikasketa maila**
  - Gurasoen ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, emaitzak hobeagoak izaten dira konpetentzia guztietan.
  - Oinarritzko ikasketadun gurasoak dituzten ikasleen eta unibertsitateko ikasketadun gurasoak dituzten ikasleen artean 40 puntu inguruko aldea dago konpetentzia gehienetan.
- **DBH 2ko ikaslearen familiaren egitura**
  - Familia nuklear batean bizi diren ikasleek (% 80 inguru) familia gurasobakar edo beste familia mota batean bizi direnek baino emaitza hobeagoak lortzen dituzte.
- **Etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza**
  - Proba etxeko hizkuntzan egiten ez duten ikasleek etxeko hizkuntzan egiten dutenek baino emaitza nabarmenki apalagoak lortzen dituzte hizkuntzakoak ez diren konpetentzietan.
- **Familiaren jatorria**
  - Kanpotar etorkiko ikasleek (ikasle guztien % 7,8) batez bestekoa baino puntuazio apalagoa lortu dute konpetentzia guztietan, batez ere *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentzian*.
  - Kanpotar etorkiko ikasleen % 50 inguru ikasle etorkin bat gutxienez duten 242 ikastetxeetako 35etan eskolatuta dago.
- **Ikasleen sexua**
  - Nesken errendimendua mutilena baino hobeagoa izan da *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, bai euskaraz bai gaztelaniaz, eta baita *Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzian* ere. *Matematikarako konpetentzian* bi taldeek antzeko emaitzak lortu dituzte.
- **Ikasleen eskolatzearen hasierako adina**
  - Eskolatzeara hiru urte bete aurretik hasi zuten DBH 2ko ikasleek (% 59,9) puntuaziorik altuenak lortu dituzte konpetentzia guztietan.

#### Ikasleari eta familiari dagozkion prozesu-aldagaiak

- **Irakasmailarekiko adin-egokitasuna**
  - Irakasmailarekiko adin egokia duten ikasleek –1995ean jaio zirenek– konpetentzia guztietan izan dute errendimendu nabarmenki hobeagoa urte bateko edo biko atzerapena dutenek baino. Horrez gain, urte bateko atzerapena dutenek bi urtekoa dutenek baino emaitza nabarmenki hobeagoak lortu dituzte.

- **Jaiotza hilabetearen eragina errendimenduan**
  - Jaiotza-datak emaitzei eragiten die, eta eragin hori ahulduz doa ikaslearen adina handitu ahala.
- **Ikasleen ikasketa-itxaropena**
  - Ikasleen ikasketa-itxaropena zenbat eta handiagoa izan, hobeagoak izan dira konpetentzia guztietan lortutako emaitzak. Derrigorrezko ikasketak bakarrik bukatu nahi dituzten ikasleen eta unibertsitateko ikasketak egi nahi dituztenen artean 50 puntu inguruko aldea dago.
- **Curriculum-arloekiko zaletasuna**
  - Oro har, ebaluatutako konpetentziei zuzenki lotutako arloekiko zaletasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta puntuazio altuagoa lortu dute kasuan kasuko konpetentzian.
- **Arloen zailtasunaren balorazioa**
  - Arlo baten zailtasuna, ikaslearen iritziz, zenbat eta handiagoa izan, orduan eta apalagoa izan da arloari lotutako konpetentziako puntuazioa.
  - Oro har, ikasleek zaletasun handiagoa izaten dute hizkuntza-arloekiko zientzia-arloekiko baino (Matematika eta Natur Zientziak), eta zailtasun txikiagokoak direla uste dute.
- **Ikaskideen arteko harremanen pertzepzio-indizea**
  - Ikaskideekin, sarritan edo gutxitan, jokaera-arazoak dituztela dioten ikasleek (% 8) arazorik ez dutela edo harreman onak dituztela diotenen (% 92) baino emaitza nabarmenki apalagoak lortu dituzte konpetentzia guztietan.
- **Lan-ohiturak etxean:**
- **Ikastetxeko etxerako lanak egiten egunero emandako denbora**
  - Dirudenez, etxerako lanak egiten zentzuzko denbora bat –ordu bat edo bi– emateak eragin positiboa du emaitzetan. Hala ere, etxerako lanetan denbora gehiago ematen denean, emaitzak ez dira hobetzen. Etxerako lanak egiten ez duten ikasleek lortu dituzte puntuaziorik apalenak.
- **Etxerako lanak egiteko autonomia**
  - Etxerako lanak egiteko laguntzarik ez duten ikasleek (% 54) eta senitarteko baten laguntza jasotzen dutenek (% 28,8) batez bestekoa baino puntuazio altuagoak lortu dituzte.
  - Emaitzarik apalenak kanpoko laguntza profesionala (irakasle partikularra) duten ikasleek (% 13,5) lortu dituzte. Ziur asko, ikasteko arazorik handienak dituzten ikasleak dira, eta laguntza gehiago behar dute ikasketak aurrera ateratzeko.
- **HBEP programetan ikasten duten DBH 2ko ikasleak**
  - DBHko 2. mailan eskolatutako ikasleen artean 1.287 ikasleek Hezkuntzan Berriaz Esku Hartzeko Proiektu batean (HBEP) ikasten dute. Haien arteko 1.149k parte hartu dute 2009ko Ebaluazio Diagnostikoko probaren batean.
  - Konpetentzia guztietan lortutako puntuazioak 250 puntuko batez bestekoa baino askoz apalagoak izan dira.

- **Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak**
  - Ebaluazioan parte hartu duten DBHko 2. mailako ikasleen artean curriculumera sartzeko egokitzapena edo CEla dutenak guztira 184 izan dira (%1). Haien artean % 63 sare publikoko ikastetxeetan dago eskolaturik, eta % 37 itunpeko sarean.
  - Mutilen ehunekoa (% 57) neskena (% 43) baino handiagoa izan da.

## IKASTETXEARI DAGOZKION FAKTOREAK ETA ALDAGAIK

### Sarrera/inguruneari dagozkion aldagaiak

- **Ikastetxeko maila sozio-ekonomikoa eta kulturala**
  - Ikastetxeko ISEK indizeak, ikaslearen ISEK indizeak bezala, eragin nabarmena du ikastetxetako emaitzen arteko aldeetan; izan ere, indizearen eragina indargabetzen denean, puntuazioen arteko aldeak askotan ez dira adierazgarriak izaten.
- **Maila sozio-ekonomikoa eta kulturala geruzen arabera**
  - Lotura nabarmena dago ebaluazioan lortutako emaitzaren eta geruzetako maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren artean. Hori konpetentzia guztietan gertatzen da, *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentzian* izan ezik, itunpeko A ereduko ikastetxeetan ikasleen ehuneko handi bat ISEK maila altukoa bada ere, emaitza apalak lortu baitituzte konpetentzia horretan.
- **Ikastetxeen ingurune soziolinguistikoa**
  - *Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentziako* puntuazioak altuagoak dira inguruneko biztanlerian euskaldunen ehunekoa handitu ahala.
  - DBH 2ko ikasleen % 64 inguru 2. maila soziolinguistikoan dauden herrietan bizi dira, hots, biztanle euskaldunak % 20tik % 50era bitartean direneko herrietan.

### Ikastetxeari lotutako prozesu-aldagaiak

- **Ikasleek ikastetxearekiko duten jarreraren indizea**
  - DBH 2ko ikasleek ikastetxearekiko zenbat eta jarrera hobeagoa izan, emaitza hobeagoak lortu dituzte konpetentzia guztietan.
- **Ikasleen ikasgelako kalifikazioak Matematika arloan**
  - Erlazio positiboa ikusten da ikasgelako kalifikazioen eta *Matematikarako konpetentziako* emaitzen artean.
  - Hala ere, ikaslea eskolatuta dagoeneko ikastaldearen mailak eragina izaten du ikasleak ikasgelan ateratzen dituen notetan, irakasleek ikastaldeko ikasleen arteko barreadura murrizteko joera izaten baitute, eta ebaluazio-irizpideak ikastaldeari egozten dioten batez besteko mailara moldatzen baitituzte.

**EMAITZEN ARTEKO ALDEAK AZALTZEKO EREDUA**

- **Ikastetxeen arteko bariantza eta ikastetxe barruko bariantza**
  - *Matematikarako konpetentziako* emaitzen arteko aldean % 83,5 ikasleen ezaugarri pertsonalei zor zaie, eta % 16,5 bakarrik ikastetxeen ezaugarriei.
  
- **Emaitzen arteko aldeak azaltzeko eredia**
  - Emaitzetan duten eragina kontuan izanik, aldagairik azpimarragarrienak hauek dira: irakasmalarako adin egokia izatea, ikaslearen ISEK indizea eta ikastetxeko ISEK indizea. Izan ere, hiru aldagai horiek elkarrekin baterako ereduak azaltzen duen bariantzaren parterik handiena azaltzen dute (eredu osoak azaltzen dituen 24,2 puntuen % 22,8).